

TXOSTENA

2021eko


©Sra Polarisoka (Alaitz Arenzana & Maria Ibarretxe)
Hiru Haiku
Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienalaren barruan.

Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea
sociedad y cultura contemporánea
society and contemporary culture

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Irati Inoriza. Nadie se baña dos veces en el mismo río sino en el pantano mismo.



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	4
Zuzendariaren gutuna	7
2019-2023 Programa Proiektua	9
Nor garen	10
Gure ekarpenak eta aktiboak	12
PROGRAMAZIO-ILDOAK	18
Arte bisualak	20
Zinema eta ikus-entzunezkoak	54
Arte biziak	64
Literatura	78
<hr/>	
Bitartekaritza eta hezkuntza	88
Artistak eta programazioaren konplizeak	92
PROIEKTU ESTRATEGIKOAK	94
Arte eta kultura Garaikideko Praktika eta Teoriako berezko Masterra EHU-UPV	95
Az irratia. Azkuna Zentroko irratia	96
Sorkuntza artistikorako proiektuak	97
Arte bizietarako espazio berriak: Kubo Baltza	104
Harreman instituzionalak	106
Publikoen komunitateak	108
Hobetzeko planak	110
ZERBITZUAK	112
Mediateka BBK	113
artxiboAZ	114
Argitalpenak	115
dendAZ. Azkuna Zentroaren saltokia	116
Jarduera Fisikoaren Zentroa	118
Espazioen alokairua	121
Golem Alhóndiga Zinemak	124
Ostalaritza	126
URTEKO KONTUAK	128
ADMINISTRAZIO KONTSEILUA ETA AZKUNA ZENTROKO TALDEA	129
ESKERRIK ASKO	130



Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbaok kultura garaikidea sustatzen du praktika, prozesu eta esperientzia gisa, gizartearekin etengabeko elkarrizketan eta forma artistiko berrien bidez.



Mal Pelo. On Goldberg Variation / Variations



Oscar Gómez Mata L'Alakran & Juan Loriente. Makers



Amalia Fernández. Expografía Retrospectiva. Prototipoak

ZUZENDARIAREN GUTUNA

2021. urtea suspertzeko urtea izan da Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaorentzat. Bi milioi sarrera baino gehiagorekin, zentroa indarberritu egin da, topaketarako, hausnarketarako eta ezagutzarako gune gisa, eta, orobat, garapen sozial, kultural eta ekonomikorako aktibo gisa.

Luzapen eta formatu desberdineko 200 jarduera baino gehiago izan dira: erakusketak eta kontzertuak, arte biziak eta letrak, topaketa handiak eta hausnarketarako eta eztabaidarako espazio intimoagoak. Eta artistak ezinbesteko eta beharrezko konplizeak izan dira, arte bisualetatik, arte bizietatik, zinema eta ikus-entzunezkoetatik, literaturatik, kultura digitaletatik eta gizartetik publikoen komunitate desberdinei proposatzen zaien elkarriketa askotariko eta poliedriko horretan.

Aldi berean, zentroaren zuzendaritza hartzean aurrekeztu nuen 2019-2023 Programa Proiektuaren erdialdera iritsi gara, eta orduan planteatu genituen helburu handinahiak gauzaten ari dira. Estrategia horren barruan, zentroan sorkuntza eta ikerketa garatzen duen arte-komunitatea handitu da, prozesuak eta emaitzak publikoekin partekatuz. Gainera, formatu berriak probatu ditugu, lengoaia garaikide berrietan oinarritutako programazioarekin, bitartekaritza eta hezkuntza ezagutzarako eta pentsamendu kritikorako zeharkako ardatz gisa hartuta.

Hirugarren urteko balantzean, nabarmentzekoa da erakusketa-zentro gisa finkatu garela, arte garaikide-rako eta arte bizietarako espazio gehiagorekin, eta ekoizpen propioekin eta erreferentziako beste gune batzuekin izandako lankidetzekin. Hala, Azkuna Zentroa estatuko rankingeko kultura-zentro nagusien artean kokatu da.

Kultura garaikidearen funtsezko adierazgarria gara, eta laguntza ematen dugu Bilbok lehen mailako erreferente bihurtzeko egin duen apustuan. Horregatik, nazioarteko eta testuingururik hurbileneko sareak areago aktibatu ditugu, ezagutza partekatua sortuz beste erakunde eta eragile sozial batzuekin.

Etengabe ari gara finkatzen kultura-ekoizpenerako zentro gisa, kalitate ezin hobeko zerbitzuak eskainiz, diskurtsoak, kontakizunak eta diziplinak eguneratuz, eta programa berriak aktibatuz. Hala, Azkuna Zentroa ekoizpen artistikorako eta pentsamendurako zentroak lekua egiten die denbora errealean gizartea eraldatzeko, berritzeko eta garatzeko premia berriei.

Beti sendo sinetsita ez dagoela garaikidetasuna baino gauza egunekoagorik. Liburu bat irakurtzea, erakusketa bat ikustea, zinemara joatea, antzezlan bat ikustea, kontzertu batez gozatzea, podcast bat entzutea, hizketan aritzea... bizitza aldatu ahal diguten eguneroko esperientziak dira.

Fernando Pérez
Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoko zuzendaria

2019-2023 PROGRAMA PROIEKTUA

2019-2023 Programa Proiektua eredu berri bat da, kultura garaikideari praktika, prozesu eta esperientzia gisa heltzeko, gizartearekin etengabeko elkarriketan eta forma artistiko berrien bidez.

Pertsonak dira Azkuna Zentroko bizitzaren muina, gizarte eta kultura garaikidea uztartzen dituen "lokailua" baita, eta eragina baitu ingurunean, gizarte sortzaile, kritiko eta askotarikoagoa izan dadin lortzeko. Hori guztia, eraldaketan oinarritutako proiektu dinamiko baten bidez. Programazio osoa erabiltzaileei, ikus-entzuleen komunitate desberdinei zuzenduta dago, eta modu desberdinak bultzatzen ditu Zentroa esperimendatzeko eta bisitatzeko.

Programa Proiektua dagoen planteamenduaren azterketa batetik sortu da, bost urtean garatu beharreko plan estrategiko bat eraikitzeko, egungo ikuspegira egokitutako lan-ildo berriekin.

Emaitza gisa, programazio kulturalako ildoak finkatu dira, elkarren arteko harremanean, hizketan eta etengabeko mugimenduan, artistak oinarritzko ardatz gisa hartuta: Arte bisualak, arte biziak, zinema eta ikus-entzunezkoak eta literatura, hezkuntza eta bitartekaritza zeharkako ardatz gisa hartuta.

Hona hemen gure ildo estrategikoak:

1. Gizarte eta kultura garaikidea erdian

Ildo estrategiko nagusia da, gainerako guztien elkargune. Lehentasuneko da gizarte eta kultura Azkuna Zentroaren oraingo eta etorkizuneko jardura guztien erdian jartzea. Artisten aldeko apustua egiten du, eraldaketaren sortzaile diren aldetik.

2. Azkuna Zentroa, irekirik eta konektatuta

Loturak barruan eta kanpoan sustatzen ditu, sareak sortuz, bertatik nazioartera joz, eta espazioak eraikitzen ditu, sortzeko, partekatuzko, hitz egiteko, eztabaidatzeko, ikasteko eta aztarnak uzteko.

Eraikin osotik hedatzen da programazioa, eta, horrela, ohiko espazioek balio gehiago hartzeaz gain, toki berrietara iristen gara:

- 3 Erakusketa-espazioak: Erakusketa Areto nagusia -2 solairuan, Mediateka Galeria Mediateka BBKn eta BAT Espazioa Lantegia. Ideien Laborategian.

- 2 Arte biziarentako espazioak: Auditorioa eta Kubo Baltza
- 1 Ekoizpen artistikoko zentroa: Lantegia. Ideien laborategia
- 1 Mediateka sorkuntza artistikorako, ikaskuntzarako eta esperimendatzeko
- 1 Osasunerako Jardura Fisikoko Zentroa
- Terraza eta fatxada ere arterako espazioak dira.

3. Erabiltzaileengana zuzendutako ikuspuntu berria

Kontua da erabiltzaileen esperientziez berriz hausnartzea. Azkuna Zentroa esperimendatzeko modu berria sortu, dibertsitatea eta ikus-entzuleen komunitateak kontuan hartuz, haien beharrezkoak landuz, Azkuna Zentroa bisitatzeko modu berriak proposatuz, hobetzeko moduko esperientzia eraldatzaileak bizitzeko.

4. Ikus-entzule berriak hizketan aritzeko

Modu berriak asmatu, egungo eta etorkizuneko ikus-entzule berriekin komunikatzeko eta haiekin hizketan aritzeko. Informazioa haiengana hurbildu, elkarriketak sortu, bilatzen gaituzten lekuetan egon, eta bilatzen ez gaituzten tokietan konplize, tresna, baliabide eta leku bat izan, auzoekin, komunitateekin eta ikus-entzuleekin konektatzeko.

5. Barneko mugimendua hobekuntza positiboa lortzeko

Elkarrekin lan egiten ikasi eta horretarako modu berriak sortu, era zeharkakoagoak, sortzaileagoak, geure metodologia eta tresnak euskarritzat hartuta; eta talde-lana eta harremanetan jartzeko eta elkartzeko modu berriak sustatu.

PROGRAMA PROIEKTUAREN ERDIALDEAN

ARTE ETA KULTURA GARAIKIDEA SORTZEKO, EKOIZTEKO ETA ZABALTZEKO ERREFEREN- TZIAKO ZENTROA

2021. urtea suspertze-urtea izan da Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaorentzat. Covid-19aren pandemiaren ondorioz ezarritako edukiera- eta jarduera-mugek indarrean jarraitzen dute, baina publikoak erantzun ona eman dio programazioa berraktibatzeari. Horri esker, zerbitzu batzuk sendotu dira, hala nola zinemak, Mediateka BBK liburutegiaren eredu garaikide berri gisa eta Jarduera Fisikoaren Zentroa osasun-programa berriekin. Handitzeaz gain, publikoaren tipologia dibertsifikatu egin da, Lantegia. Ideien laborategiko sorkuntza artistikoarekin, Azkuna Zentroaren saltokia den dendAZeko diseinu-eskaintzarekin eta Komiktekako programazioarekin.

PROGRAMAZIOA: PROIEKTU GEHIAGO

Aurten arte bisualetako proiektuak bultzatu dira, 2020an baino ia bi aldiz gehiago izan baitira, berezko ekoizpenak eta erreferentziako espazioekin egindako koprodukzioak aintzat hartuta. Aipagarria da Erromako Akademiarekin egindako “Roma Akademia”, orain arte egin den erakusketarik handiena, 45 artistarekin eta Zentro osoa erakusketa-gune handi bihurtua. Era berean, erreferentziako bi topaketa egin dira: Gutun Zuria. Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia eta Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Topaketa. Hezkuntza eta bitartekaritza Azkuna Zentroaren zeharkako ardatza dira, ezagutza kritikoa sortzeko eta sorkuntza artistikoaren bidez gizartea eraldatzeko bide gisa. Horregatik, Zentroan garatzen diren proiektuak kultura-programazioa dira eta, aldi berean, bitartekaritza landua egiten dute ohartuki publikoen komunitateekin, garaikidearen egunerokotasuna bultzatuz. Programazioa beste formatu batzuetara hedatzen jarraitzen dugu, esate baterako, podcastera eta streamingera, kultura esperimintatzeko modu garaikide berri gisa. Zentroko artxiboa den artxiboAZekin batera, argitalpenak ezinbesteko tresnak dira proposamen artistiko garaikideak ulertzeko eta ezagutzera emateko. Argitalpenek jarraipena ematen diete erakusketei, sormen-prozesuei eta topaketei... eta euskarria ematen diote esperientzia artistikoari.

ARTERAKO ESPAZIO BERRIAK

2021ean, arterako espazio berriak sortu dira, hala nola Mediateka Galeria, espazio horretako bildumekin zirikusia duten erakusketak lehenesten dituen; edota

Kubo Baltza, proposamen ez-konbentzionalak egiteko Lantegia. Ideien Laborategian dagoen agertoki berria, arte bizien praktika garaikideak hala antzerkia, nola performancea, dantza eta mugimenduko arteak garatzeko pentsatua.

SORKUNTZARAKO LAGUNTZA INDARTZEA

Kultura-programazioaren esparruan, 200 jarduera baino gehiago programatu dira, 250 artista baino gehiagorekin, eta sorkuntzari laguntzeko hainbat programa ere bai, Azkuna Zentroak arte eta kultura garaikidea sortu, ekoitzi eta zabaltzeko zentro gisa duen maila indartzeko.

2021ean, jarraipena eman zaio Babestu deialdiari. 2020an jarri zen abian sorkuntzari laguntzeko, COVID-19aren krisiak eragindako salbuespenezko egoerari erantzuteko, abian zeuden sormen-prozesu asko arriskuan jarri baitzituen.

Babestu ezinbesteko tresna da gaur egun, programazioarekin eta Zentroaren ekintza-ildoekin lotutako sormen-proiektuak garatu nahi dituzten artistentzat; bestalde, publiko-komunitateei bidea erraztu nahi die hausnarketa artistiko garaikidera hurbiltzeko eta eztabaidak sortzeko, kultura eraldaketarako tresna gisa hartuta. Deialdiak baldintza horiek betetzen dituzten proiektuak lehenesten ditu hautaketan, azken pieza hainbeste nabarmendu ordez hura garatzeko prozesuan indarra jartzen dutenak.

NAZIOARTEKO ETA HURBILEKO SAREAK ORR- KAN

Zentroaren helburua arte-sorkuntza eta -esperimintazioa indartzea da, kultura-eragile eta -erakunde askorekin lankidetzan aritzeko bideak irekiz, artisten lana aktibatu eta aberastu ahal izateko. Horretarako, nazioarteko sare gehiago aktibatu dira, hala nola Quebec-eko Maison de la Littérature-rekin eta Angulemakoko Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'Image-rekin, komikiaren nazioarteko egonaldiaren lehen edizioa abian jartzeko.

Era berean, hurbileko sareak hedatu dira, eta ezagutza partekatua sortu da beste erakunde eta eragile sozial batzuekin. Ildo horretatik, 2021ean amaitu da arte eta kultura garaikideko praktika eta teoriako lehen masterra abian jartzeko lana, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatearekin. Master horrek aukera paregabea eskainiko du Zentroko programazioarekin zuzenean ikasteko.

NOR GAREN

GURE EGINKIZUNA

Gure eginkizuna da loturak sortzea pertsonen eta kulturaren artean, ingurunean eragiteko, eta gizarte kritiko, sortzaile eta askotarikoagoa eraikitzen laguntzeko.

Kultura garaikidea praktika gisa, prozesu gisa, artisten, agente eta komunitate artistikoen bidez eta programazio-eredu hibridoekin esperientzietarako espazio gisa bizitzeko lekua da Azkuna Zentroa.



Sorkuntza artistikorako atek zabalik

GURE IKUSPEGIA

Gure ikuspegia da Azkuna Zentroa espazio publiko askotarikoa eta gizarte eta kultura garaikidean erreferentea izatea, hala hemen nola nazioartean. Lurraldean eta bertan bizi diren pertsonengan eraldaketa eragingo duen epizentroa izatea.



Les impuibles. Gizarte inklusioari buruzko jardunaldiak

GURE BALIOAK

Hainbat balio lantzen ditugu: iraunkortasuna, ekonomiari eta energia-eraginkortasunari dagokienez; espaziorako eta programaziorako irisgarritasun unibertsala; eta berdintasuna, pertsona guztientzako gunea sortuz.



Elena Aitzkoa. Lendia Song. Babestu

GURE LAN-ILDOAK




GURE EKARPENAK ETA AKTIBOAK

Hiriko proposamen kulturala zabaldu dugu, arte garaikidea, kultura eta jakintza eskuratzen lagundu baitugu. Gizarteak kultura garaikidearekin duen harremana berrikusi dugu, eta programazioa eta esperientziarako eta pentsamendurako espazioak aktibatu. Zentroak 5 aktibotan egiten duen ekarpena neurtzen dugu:



01. GIZARTEA



02. ARTEA ETA KULTURA

Ana Laura Aláez. Todos los conciertos,
todas las noches, todo vacío.



03. HIRIA



04. HARREMANAK

Roma Akademia



05. EKONOMIA



01. GIZARTEA

ZER

Gizarte kritikoagoa, sortzaileagoa eta askotarikoagoa eraikitzen laguntzen dugu, programazioaren bidez eta publikoen komunitateen arteko lotura errazten duten espazioen bidez.

NOLA

Esperientziak eta eztabaida publikoa eskaintzen ditugu gure gizartearentzat funtsezkoak diren arloetan, eta publikoen komunitateen jakin-mina sustatzen dugu, jakintza kritikoa sortzeko eta artearen eta artisten bidez gizartea eraldatzeko.

ZENBAT

2.059.446

bisitari AZn 2021ean

5.642

bisitari egunean AZn 2021ean batez beste

187

parte-hartzaile egunean programatutako jardueretan


2.973

jaulkiriko AZ txartelak

823

parte-hartzaile bisita gidatuetan

02. ARTEA ETA KULTURA



Ana Laura Aláez. Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío.

ZER

Lankidetzako komunitate profesionalak sortzea, arte- eta kultura-sektorearen harrobia izan daitezen, hain zuzen, alderik sortzaileena.

NOLA

Kontaktu, ideia-truke, prozesu eta proposamen artistikoen bidez kultura garaikidea ekoizteko espazio bat eratuz. Eta prestakuntzako proposamenak garatuz, jakintza garaikidea sustatzeko eta azaltzen ari diren profesionaleri laguntza emateko.

ZENBAT

265

jarduera AZk programatuta

186

artista

33

artista eta ikertzaile egoilarra

25

erakusketa + instalazio artistikoa

90

bitartekaritza- eta hezkuntza-jarduerak eta tailerrak

31

zuzeneko ikuskizun

59

film jatorrizko bertsioan



03. HIRIA / BILBO

ZER

Bilbo kulturaren eta jakintzaren hiri gisa kokatzen laguntzen duen ekosistema kulturalaren parte gara, 2030eko Agendaren garapen iraunkorraren helburuekin bat etorritik.

Kultura irekia eta integratzailea sustatzeko Euskadik duen estrategiaren parte gara, nazioartean presentzia handiagoa lortu nahi duena, sorkuntza artistikoa eta euskal kultura- eta sorkuntza-industriak bultzatuz.

NOLA

Sarean lan eginez lehen mailako espazio eta proiektu garaikideekin, eta jarduera instituzional bizia garatuz, munduko hainbat tokitako bienal, azoka eta kultura-zentroetako arduradunekin elkartzeko, nazioarteko harremanak zabaltzeko xedez.

ZENBAT

155.510

AZ txartela, AZ txartela duten pertsonen % 58 Bilbokoak dira

Bizkaiko 10 pertsonatik 9k
bisitatu dute noizbait zentroa*

11,9

milioi bisita*

Mediateka BBKn izena emandakoan % 62
ez dira Bilboko Zentrokoak*

208 txartel *

baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboen elkarteei lagatako

* BBK Fundazioko gizarte-eragineko sailak hamargarren urteurrena dela-eta egin duen eta Zentroak Bilbo/Bizkaia lurraldean egindako ekarpena aztertzen duen txostenaren arabera

04. HARREMANAK



Roma Akademia

ZER

Tokiko eta nazioarteko kontaktuak eta harremanak garatzen laguntzen dugu, Alhóndiga hedatuaren kontzeptuarekin, berrikuntza, nazioartekotzea eta finantza-konpromisoa eskaintzen baitigu.

NOLA

5 mailatako lokailuak gara: programazio-zentroyen sarea, artisten sarea, babesleen eta laguntzaileen sarea, publikoen komunitateen sarea eta hornitzaileen sarea.

ZENBAT

27

lankidetzako kultura-programak

28

sareko kultura-zentro

21

nazioarteko kultura-instituzio eta -zentroak sarean

90

erakunde AZn espazioak alokatzen



05. EKONOMIA

ZER

Azkuna Zentroa eragile aktiboa da Bilbo nazioartekotzeko eta gure inguruko kultura-sarearen bidez tokiko ekonomia bultzatzeko.

NOLA

Zentroaren autofinantzaketa maximizatzeko lan egiten dugu, babesleen eta erakunde laguntzaileen ekarpenaren bidez, bai eta gizartearentzat interesgarriak diren zerbitzuen bidez ere.

ZENBAT

20,61 %^{eko}
autofinantziazioa

2€
trakzio ekonomikoko udalak aurkeztutako 1€ bakoitzeko*

248
hornitzaile*

+50%
euskadiko hornitzaileak*

39
ICC hornitzaile*

260
enplegu egonkor*

* BBK Fundazioko gizarte-eragineko sailak hamargarren urteurrena dela-eta egin duen eta Zentroak Bilbo/Bizkaia lurraldean egindako ekarpena aztertzen duen txostenaren arabera.



PROGRAMAZIO - ILDOAK

GIZARTE ETA KULTURA GARAIKIDEA

Kultura-programazioa arte bisualen, zinema eta ikus-entzunezkoen, zuzeneko arteen eta literaturaren bidez garatzen da -eta elkarrekin hizketan jartzen ditugu eredu hibridoen, programazio hedatuen eta "ko", "multi", "trans", "inter" eta antzeko formatuen bidez, aukera ematen baitigute gaur egungoaren egunerokotasuna lortzeko. Zeharkako programazioa da, hizkuntza artistikoak eta diziplinak zeharkatzen dituena; berdinak eta desberdinak lotzen dituena; praktika artistikotik eratu eta hezten duena; arraza-, sexu-, hizkuntza-, geopolitika- eta identitate-arloak zeharkatzen dituena, forma desberdinetan; kontzientziak eta gorputzak ukitzen dituena; mugak eta leku komunak zeharkatzen dituena. Arreta berezia jartzen diogu egungo euskarazko sorkuntzari eta berdintasunari, bitartekotza eta hezkuntza ezagutza kritikoa sortzeko eta artea eta artisten bidez gizartea eraldatzeko bide gisa hartuta.

Arte bisualak

Arte bisualen programazioa arte plastikoaren, ikerketaren, pentsamenduaren, komisariotzaren, kritikaren eta forma berrien eremu hedatua da, bertako eta nazioarteko artista, komisario eta espezialistekin batera garatua. Sortzaile garaikideen banakako eta taldeko erakusketen bidez gauzatzen da, baita artea literatura, dantza, zinema, hezkuntza eta beste sistema batzuekin lotzen duten proiektuen bidez ere. Erakusketa-programa garatzean, koproduzioa eta ibiltaritza dira xede, eta elkarrizketa egiten da beste espazio batzuekin, edukia aberasteko, komunitatea sortzeko eta gizartean esperientzia berriak abiarazteko.

Zinema eta ikus-entzunezkoak

Zinema eta ikus-entzunezkoen sorkuntza egituratu egiten dira, ikus-entzunezkoen adierazpen garaikideak zinema klasikoarekin bateratu nahi dituen programazio batean. Azkuna Zentroa Bilboko Zinematekaren egoitza da, eta haren programazioan batera uztartzen ditu autore-zikloak eta bertako eta nazioarteko ikus-entzunezko komunitate artistikoa ikusarazten duten programazioak. Era berean, ikus-entzunezkoa da sorkuntzan laguntzeko programen bidez Zentroan garatzen diren proiekturik esperimentalenen ernamuina. Zentroaren aliatu nagusietako bat Golem Alhóndiga da, haren zinema-emanaldiarekin, zinemak Bilbon duen egoitza nagusia baita, programazio egonkorrekin, estreinaldiekin eta zinemaldiekin.

Arte biziak (antzerkia, dantza, musika, performancea)

Arte bizien programazio egonkorra forma artistikoen inguruko erakusketa, praktika eta ikerketa proposatzen ditu. Gorputza da elementu eszeniko nagusia, antolaketa koreografikoan edo espazialean, plastikoan edo performatiboan; eta, harekin batera, egitura narratibo berriak, formatu eta lengoia berriak, sormen-aukerak pizten eta zabaltzen dituztenak.

Musika esperimentalaren eta soinu-artearen esparruan, Zentroak apustua egiten du musikarekin eta soinuarekin lotuta dauden esperientzia artistikoen alde, musikalak edo harmonikoak ezinbestez izan beharrik gabe. Musika esperimentalaren eta soinuaren urteko programak nazioarteko eta bertako artistak biltzen dituzten musika-entzunaldiak ditu, eta soinu-sorkuntzari eta inprobisazioari buruzko tailerrak eta topaketak ere bai.

Literatura

Hitza, adierazpen literarioaren bitarteko legez eta pertsonen arteko komunikazioaren eta elkarrekintzaren ardatz legez; hitza da, hain zuzen ere, Azkuna Zentroaren ardatz programatikoetako bat. Programazioak literaturaren ikuskera garaikideari heltzen dio, liburuak, letrak eta irakurketa gaindituz, eta zabaltzen da ahozko adierazpenaren eta transmisioaren artera, ikus-entzunezko narratibara, marrazkira eta komikira. Era berean, ezagutzera ematen du bertako sormen urbanoa eta euskarari lotutakoa, publiko familiarrari lotuago dauden adierazpenak, eta azaleratzen ari diren ahots berriak eta hegemonikoak ez diren hizkuntzetakoak.



Mabi Revuelta. Acromática. Una partida inmortal

ARTE BISUALAK

Arte bisualen programazioa arte plastikoen, ikerketaren, pentsamenduaren, komisariotzaren, kritikaren eta forma berrien eremu hedatua da, bertako eta nazioarteko artista, komisario eta espezialistekin batera garatua. Sortzaile garaikideen banakako eta taldeko erakusketen bidez gauzatzen da, baita artea literatura, dantza, zinema, hezkuntza eta beste sistema batzuekin lotzen duten proiektuen bidez ere.

Erakusketa-programa garatzean, koprodukzioa eta ibil-taritza dira xede, eta elkarrizketa egiten da beste espazio batzuekin, edukiak aberasteko, komunitatea sortzeko eta gizartean esperientzia berriak abiarazteko.

25

erakusketak, erakusketa-proiektuak, instalazio artistikoak

179

artistak, komisarioak...

64

jarduerak

59.867

arte bisualeko programara bertaratutakoak

33

artistak egonaldietan

ERAKUSKETAK

ERAKUSKETA ARETOA

Erakusketen eta ikusizko arteen programazioak barne hartzen du erregistro garaikidearen barruan Zentroko espazioak erabil ditzaketen artisten, obren eta komisarioen hautaketa.

Azkuna Zentroak ez du arte-bildumarik, baina sorkuntza sustatzeko eta artisten habitat bihurtzeko ideiatik babesten du arte-ekoizpena. Ikusizko arteak zentroko hiru erakusketa-aretoetan erakusten dira, eta horietako bakoitzak gai desberdinetara jotzen du, programazioaren barruan.

-2. solairuan dagoen Erakusketa Aretoan, tokiko eta nazioko nahiz nazioarteko arte-arloko figura garrantzitsuen erakusketa-proposamen garaikideak daude.

Mabi Revuelta

Acromática. Una partida inmortal

2020ko urriaren 14tik 2021eko apirilaren 11ra

Artista.

Mabi Revuelta

Komisarioa.

Susana Blas

Koprodukzioa.

Tabacalera Promoción del Arte (Madrid)

Elkarlanean.

BBK Fundazioa

Bisitariak.

8.612

Jarduerak.

Bisita gidatuak



Mabi Revuelta. Acromática. Una partida inmortal ©Ignacio Escubi

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok Mabi Revuelta (Bilbo, 1967) artistaren *Acromática. Una partida inmortal* erakusketa aurkezten du, arte garaikidearen historialaria eta komisarioa den Susana Blas (Madrid, 1969) komisarioarekin.

Xakea hari eroale gisa hartuta, erakusketak artistaren ibilbidea berrikusten du, *Acromática* aurkeztearekin batera, erakusgaiari izenburua ematen dion proiektu argitaragabea. Ibilbidea lehen espazioan (Apertura, Irekiera) hasten da, eta bertan kokatzen da *Naturaleza muerta con perlas negras*, aurrez berrikusitako eskultura-pieza bat, erakusketaren tonu poetikoa markatzen duena. Bigarren espazioan (Medio juego, Joko erdia), *Acromática* proiektua osatzen duten hainbat lan zabaltzen dira. Proiektu hau historiako xake-partidarik artistikoenetako batean oinarrituta dago: 1851n Adolf Anderssen eta Lionel Kieseritzkyren artean jokaturako hilezkorra. Azkenik, azken espazioan (Fin de partida, Partida amaiera), *Línea de tiempo* (Denbora-lerroa) dago: artistaren ibilbidearen laburpena, xakearen lau arotan oinarritua: erromantikoa, zientifikoa, hiper-modernoa eta dinamikoa.

Mabi Revueltaren hitzetan, «*Acromática* piezen seriean, behin eta berriz itzultzen naiz jokoen unibertsora, oraingoan xakea eta haren arauen eta mugimenduen multzo berezia inspiratuz hartuta. Bi koloreko eremu txiki batean, munduaren ordenaren eta izaki eta gauzen patuaren hedapena ikusten dugu, izugarria eta larria. Eskulturaren, zinemaren, dantza garaikidearen, musikaren eta idazketaren bidez, jokoen erregearen kontakizuna egiten saiatzen naiz, haren mugetatik hara joz, metafora artistiko, intelektual, beliko eta bitalen bidez artikulatua».

Susana Blas komisarioak deskribatzen duen moduan, «Alderdi antologikoak artistaren ibilbidea berrikusten du, eta lau kategoriatan antolatzen ditu bere lana, xakearen historiako aroak definitzen dituztenak eta, aldi berean, diziplina unibertsal horri aurre egiteko eta jokatzeko lau aro direnak».

Mabi Revueltaren obrek gogoeta egiten dute bere lanean hasieratik agertzen diren gai unibertsalei buruz: errealitate-fikzio harremanak, generoen iragazkortasuna (literatura, arte eszenikoak, eskultura, marrazketa, ikus-entzunezko arteak), hezkuntza artistikoari buruzko ikerketa eta estrategia didaktikoen bilaketa ekintza artistikoa gizarte-aldaketaren eragile gisa baloratzeko.

Acromática. Una partida inmortal Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao eta Tabacalera Promoción del Arte (Madrid) zentroen arteko koprodukzioa da.



Mabi Revuelta. Acromática. Una partida inmortal ©Ignacio Escubi

Ana Laura Aláez

Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío

2021ko maiatzaren 20tik irailaren 26ra

Artista.

Ana Laura Aláez

Komisarioa.

Bea Espejo

Koprodukzioa.

Centro de Arte Dos de Mayo, CA2M (Madrid)

Elkarlanean.

Institut d'estudis Baleàrics

Bisitariak.

17.500

Jarduerak.

Azalpen bisitak

Bea Espejo y Ana Laura Aláezen arteko topaketa
Ana Laura Aláez eta La Riboten arteko elkarrizketa

Ana Laura Aláez artistaren "Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío" (Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik) erakusketa, Bea Espejok komisariatuta. Genero-ikuspegiari lotutako elementu zuzentzaileak txertatzen ditu artistak, material eta estrategia prozesualak erabiliz, tradizioz eskultorikotzat jotakoak alde batera utzita.

Aláezen jaioterrian aurkezten den tamaina honetako lehen erakusketa monografikoa da, eta bertan bere azken lanetako batzuk erakusten dira hasierako beste lan batzuekin hizketan.



Ana Laura Aláez ©Elssie Ansareo



Ana Laura Aláez ©Elsie Ansareo

Ana Laura Aláezek Euskal Herrian jaso zuen prestakuntza, 80ko hamarkadaren bigarren zatian. Lehen lanek aurreko belau-naldiak -'Euskal Eskultura Berria' izenekoak- planteatutako gaiak asimilatzekeo prozesu bat adierazten dute, eta, aldi berean, genero-ikuspegiari lotutako elementu zuzentzaileak txertatzen dituzte, material eta estrategia prozesualak erabiliz, tradizioz eskultorikotzat jotakoak alde batera utzita.

“Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío” erakusketak bira bat ematea eta sorburura, abiaburura jotzea proposatzen du, azken hogeita hamar urteetan artistaren obran azaldu diren gaien arrakaletan lan egiteko: gorputza idulki gisa, idulkia eskultura gisa, eskultura kanta gisa, gaua material gisa, identitatea gatazka gisa, inpostura aukera gisa. Erakusketaren izenburua instalazioetako batetik hartuta dago, eta ekitaldi bateko arrasto berezkoa ekartzen du gogora, ustezko denbora ez-emankor horrekin, errealizazioen eta desengainuen aurrean ilusioak eta itxaropenak aurkeztuz

Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaon aurkeztu den erakusketak zabalago garatzen du Madrilgo CA2M zentroan erakutsi zen titulu bereko proiektua, 2019ko azarotik 2020ko urtarrilera bitartean ikusgai izan zena. Lau ataletan egituratzen da: objektu eta estentzio doilorrak; Exzitazioa eta hutsunea; Indarkeria eta zaugarritasuna; mitoa, emakumearen sexualitatea, kamuflajearen ideologia.

Ana Laura Aláez & Bea Espejo

Maiatzaren 19a



Ana Laura Aláez , Bea Espejo & Alicia San Juan

Erakusketaren hasiera gisa, Ana Laura Aláez eta Bea Espejo Alicia San Juan kazetariarekin elkartu ziren, artistaren ibilbideari eta Zentroan zetozen hilabeteetan ikusi ahal izango zen erakusketaren edukiari buruz eztabaidatzeko.

Ana Laura Aláez & La Ribot

Irailaren 26a



Ana Laura Aláez & La Ribot

Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío erakusketaren itxierarekin lotutako jardura gisa, Ana Laura Aláezek elkarrizketa bat proposatzen du La Ribot artistarekin. Bertan, artistak berak dioten bezala, «berezko euskarri fisiko eskultorikoak gainditu eta eskema teorikoak hutsi nahi ditu, bai baitirudi mugiezinak direla oraindik edo "odol" aski ez dutela».

Roma Akademia

Artistak.

Processi 146

José Ramón Amondarain, Taxio Ardanaz, Itziar Barrio, Igor Bragado, Andrea Canepa, Nicolás Combarro, Isolina Díaz, Lara Dopazo, Silvia Fernández, María Ángeles Ferrer, Pablo Fidalgo, Pedro G. Romero, Begoña Huertas, Julia Huete, María Moraleda, Jorge Portillo, Marta Ramos Yzquierdo, Estibaliz Sádaba, Fernando Sánchez-Cabezudo, Borja Santomé, Anna Talens, María del Mar Villafranca, Tono Vizcaíno

Processi 147

José Ramón Ais, Carla Berrocal, Antonio Buchanan, Ana Bustelo, Joana Cera, Jorge Cubero, Federico Guzmán, Susanna Inglada, Montserrat Lasunción, Jana Leo, Jorge Luis Marzo, Irene-Clémentine Ortega, Javier Pividal, Enrique Radigales, Pantxo Ramas, Adolfo Serra, Begoña Soto, Claudio Sotolongo, Eduardo Soutullo, Javier Verdugo, Manuel Vilas, Ana Zamora

2021ko urriaren 28tik 2022ko otsailaren 6ra

Komisarioa.

Jesús Donaire

Elkarlanean.

Real Academia de España en Roma eta AECID

Bisitariak.

13.274

Jarduerak.

Azalpen bisitak

Irakurketa, performancea: Marta Ramos-Yzquierdo. "Trabajar menos. Hacer más"

Topaketa: Estibaliz Sádaba. "Procesos romanos"

Irakurketa, topaketa: Jorge Luis Marzo. "Las videntes. Imágenes en la era de la predicción"

Tailerra: Adolfo Serra. "Ilustrazio, sormen eta istorioen sorkuntzako tailerrak"

Ibilbide ludikoak



Roma Akademia ©Ixone Sadaba

Azkuna Zentroak Roma Akademia erakusketa aurkezten du, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) urteko bekaren bidez 45 artistak Erromako Espainiako Errege Akademitan (RAER) izandako egonaldian egindako lan eta proiektuekin

Jesús Donairek komisariatutako erakusketa-proiektu honek programaren ikuspegi multidisziplinarioa erakusten du: pinturatik hasi eta argazkigintzara, arte biziak, ikerketa, zinemaa, arkitektura, antzerkia, literatura, moda eta zaharberritzea barne hartuta. Lan guztien izendatzaile komuna artistek kultura-eragileekin eta Erromako errealitate ugariarekin duten interakzioa da.

Roma Akademia Zentroko gune guztietan egongo da: Erakusketa Aretoan, Lantegia. Ideien Laborategian, Atarian eta Mediateka BBK-n.


Proiektua erakusketaren katalogoarekin osatuko da, parte hartzen duten 45 artisten sormen-prozesuen azalpenarekin.

Erroma, sorkuntzaren eta ikerketaren topaleku

1873an sortua, Erromako Espainiako Akademiaren helburu nagusia, Kanpo Arazoetarako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren menpean, sorkuntza artistiko eta ikerketako prestakuntza artistiko eta humanistikoan laguntzea da.

147 urte pasa dira, eta Akademiak arte ekoizpenerako eta ezagutze sortzeko zentro gisa jarraitzen du. Sortzaileentzat topagunea da, beren proiektuak monumentu-multzoaren tradizioaren eta gizarte global eta teknologikoaren etengabeko berrikuntzaren artean garatzen dituztenak. Ia 1.000 egoiliar elkarrekin bizi izan dira Erroman eta haien arteko harremanak sortu dituzte etengabeko elkarrizketan

Azken zazpi urtetan AECID Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren ekoizpenerako laguntzak jaso ditu. Horrela, Espainiako arte-egoitza garrantzitsuenetako bat da Akademia, nazioartean erreferentzia diren beste sorkuntzarako zentroyen antzekoa.



Roma Akademia ©Ixone Sadaba

“Roma Akademia” erakusketa 2018-2019 (Processi 146) eta 2019-2020 (Processi 147) promozioetako 45 egoiliarrek Akademitan garatutako lan eta proiektuak biltzen du.

2020 urteko pandemiaren ondorioz kultura-erakundearen programazioetan eragin handia izan zuen egoera zela eta, 2018-2019 eta 2019-2020 promozioetako lanen aurkezpena erakusketa bakar handi batean biltzea erabaki zen, lehen aldiz Euskal Herrian antolatutako erakusketa.

Azkuna Zentroan erakusten diren proiektuak margolaritza, eskultura, argazkigintza, diseinu indutrialak, bideoa, ikerketa, zinema, arkitektura, antzerkia, literatura, moda eta zaharberritze arlokoak dira. Asko dira Espainiako Akademia Erroman zentruan elkarrekin bizi diren disziplinak, non izendatzaile komuna eragile kulturalekin eta hiriko errealitate anitzekin interakzioa den.

“Roma Akademia” Azkuna Zentroak Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziarekin eta Espainiako Errege Akademia Erroman zentroarekin egindako koprodukzioa da.

Taxio Ardanaz
“CREDERE OBBEDIRE COMBATTERE”
argitalpenaren aurkezpena

2021eko azaroaren 9a

Argitalpen autoeditatua da, eta Italian, Erromako Espainiako Akademiako bekadun gisa, 2019ko urtarriletik iraile-ra bitartean egindako material piktoriko eta artxibokoaren sorta zabala biltzen du.

Roma Akademiako artista ere baden Marta Ramos-Yzquierdorekin hizketan, Italiako egonaldian egindako lan horretaz arituko da.

Marta Ramos-Yzquierdo
Trabajar menos. Hacer más


2022ko urtarrilaren 11 eta 12a

Roma Akademia erakusketako artista den Marta Ramos-Yzquierdok, “Trabajar menos. Hacer más” (“Lan gutxiago egin. Gehiago egin”) bere proiektuaren barruan, “Hacer el indio en 77” (“Indioarena egin 77an”) hitzaldi performatiboa proposatu du, kuradoreak Erroman egin zuen bidaiari zeharreko ibilbide gisa, lan egiteak zer esan nahi duen edo zer esan nahi dezakeen ulertzeko eta eginkizuna praktika artistikoetatik nola birpentsatu jakiteko.

Ibilbide Ludikoak

2021eko abenduaren 1etik 2020ko otsailaren 6ra

Haurrei eta familiei zuzendutako jarduera da. 2018. eta 2020. urteen artean Erromako Espainiako Akademiaren egoiliar izan diren 45 artistaren erakusketa eta lana bisitatzeko du xede. Material didaktiko espezifikoaren bidez, ibilbide ludiko bat proposatzen da era askotako lengoaietara hurbiltzeko, hala nola pinturara, argazkigintzara, collagera, bideora, modara, diseinura eta ilustraziora. Aretoan egiteko moduko jolasak ere baditu, obra batzuetan inspiratuta.



Marta Ramos-Yzquierdo

Estibaliz Sádaba
Procesos romanos

2022ko urtarrilaren 19a

Estibaliz Sádaba artista bisual eta Arte eta Ikerketan dokto-reak Erromako Espainiako Akademiaren egonaldietan egindako bi lanak gauzatzeko prozesuak aurkeztuko ditu: “Soberakinak. Erromako hiriaren kartografia gene-erikuspegitik egiteko oharra” (2017) eta “Etxeko subert- sioak” (2020).

Jorge Luis Marzo
Las videntes. Imágenes en la era de la predicción

2022ko otsailaren 3a

Jorge Luis Marzo (Bartzelona, 1964) arte-historialari eta erakusketen komisarioak Erromako Espainiako Akademiaren egonaldian idatzitako “Las videntes. Imágenes en la era de la predicción” liburua aurkeztuko du.

ERAKUSKETA PROIEKTUAK BAT ESPAZIOA. LANTEGIA GALERIA MEDIATEKA

Arte garaikidearen eta ikusizko arteen programazioaren barruan, erakusketa-proiektuak sustatu ditugu, arreta berezia jartzen dutenak Azkuna Zentroan sorkuntza garaikideari laguntzeko programen esparruan gauzatzen diren egoitzetako tokiko eta nazioarteko artistekin lankidetzan.

Lantegia. Ideien laborategiaren Bat espazioa proiektu artistikoen ekoizpen, esperimentazio foroen, lankidetzaren, topaketen eta bistaratze etengabeko gune bihurtzen da. Mediateka galeriak hainbat proiektu eta instalazio artistiko erakusten ditu, zentroaren programazioarekin lotuta.

Iván Gómez

La prospección de Kairós

2020ko Azaroaren 19tik 2021ko otsailaren 21era- BAT Espazioa

Komisarioa.

Iván Gómez

Artistak:

Xabier Barrutia, Silvia Cabrilla, Julen Ibañez, Idoia Leache, Malen Lopez, Joey O.R

Bisitariak.

537


“La prospección de Kairós” Iván Gómez artistaren arte proiektua da Bat espazioan, Lantegia. Ideien laborategian. «Elkarlaneko ikerketa-rako egitura metodologiko» horrek, «elkarren artean» kontzeptua berri-rriz kokatzea du helburu, nolabaiteko «jakintza-gune» baten osatuta. Esperimentu hau 2020. urtean zehar kontatzen da, eta kapitulu gisa proposatutako hainbat engranajetan artikulatzen da.

1. kapitulua: ‘Denkraum’ Erakusketa hau aurreko hilabeteetan ikasitakoa lantaldeetan artikulatuz eraikitzen da. Karen Rivas, Andrea Álvarez, Iván Ureta, Lucía Pedregal, Nieves Barrenetxea, Bernarda B. Garmendia

2. kapitulua: ‘La lámpara de Mnemósine’ erakusketa hitzaldi-jardunaldi batzuekin bizitzen ari gara, “Entre” delakoaren auzia difraktatu eta ikuspegi berrietatik irakurtzeko.

Juan Llano Borbolla, Aurora Fernández Polanco, Iván Flores, Oriol Fontdevila, Emma Ingala, Bulegoa z/b

3. kapitulua: ‘Las Ruinas del Momento’ lan talde berri batek sortutako praktika artistiko berri bat aurkezten da, aurreko kapituluen deseraikuntzatik abiatuta. Xabier Barrutia, Silvia Cabrilla, Julen Ibañez, Idoia Leache, Malen Lopez, Joey O.R.



La prospección de Kairós.

Artoteka

Arterako eguneroko espazioak

Urtarrilaren 23tik apirilaren 11ra
Galería Mediateka

Artistak.

Belén Cerezo, Helena Goñi, Juana García, Mawatres, Raisa Alava, Raquel Asensi, Raquel Meyers, Saioa Olmo, Tunipanea, Victoria Ascaso

Lanean. Prozesu artistikoei laguntzeko programa bereziaren barruan

Bitartekaritza artistikoko proiektua da, eta publiko berriak sortzea eta bertako artisten lana zabaltzea du xede. Artoteka plataformak artelaren mailegua eta bitartekaritzako jarduerak eskaintzen ditu sortzaileekin, artea eguneroko bizitzara eta era askotako ikuslerengana hurbiltzeko. Gaur egungo artea zabaltzeko eta ezagutzera emateko modu berriak sortzeko, arte garaikidearen eta sare sozialen arteko lotura-bideak eratzeko eta artisten ekonomian eredu berriak bultzatzeko da goen beharra izan da proiektuaren sorburua.

Elena Aitzkoa

Lendia Song

Apirilaren 22tik uztailaren 4ra – BAT Espazioa

Bisitariak.

946

Jarduerak.

Performanceak ekainaren 2tik 4ra


Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa bereziaren barruan

Izaera beti performatikoarekin, sorkuntza honen abenturak lankidetzara eta bakardade-lekuak zeharkatzen ditu. Ahots- eta paisaia-grabazioen bidez igarotzen ditu espazioak, gorputz-eskultura bihurtu arte. Abestiarekin elkartzea.

Haren sorkuntza-lanak ekosistema heterogeneo bat dira, eta ingurune gutxi-asko hurbileko elementu fisikoak eta emozionalak eta bizi-esperientziak dituzte oinarrian. Materiaren konfigurazio poetikoan jartzen du fokua eta sormen-energia, eta edertasuna hartzen du izakien arteko lotura-elementu gisa.



Elena Aitzkoa



Miriam Isasi

Miriam Isasi

Erretxina, brea eta glizerina

Maiatzaren 27tik Irailaren 26ra
Galería Mediateka

Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa bereziaren barruan

Paisaiaren identitateari lotutako ikerketa bat, etnobotanikara lengoaia plastiko batetik hurbiltzeko, gure testuingurua ulertzeko kontzeptu natural gisa.

Sendabelarren eta haien sistema immunologikoen erabileratik abiatuta, proiektua konifero-basoetan hasten da, arroka-erretxina hari gidari gisa hartuta proiektuaren garapenean. Planeta metalikoen bidez, kontzeptu alkimiko gisa, hainbat eskultura landu dira, landareen zezidio-forma desberdinetan oinarrituta. Artista lanean hasi da kontzeptu horrekin eta instalazio honetan presentzia izatea nahi izan du. Transmutazio-elementuak, magiara, bitxira, biziraupen-kapsuletara edo planeta-sistemetara eramaten gaituztenak.



Irati Inoriza

Irati Inoriza

Inor ez da bi aldiz bainatzen ibai berean, urtegian bertan ez bada

Irailaren 16tik Urriaren 10era
BAT Espazioa

Artista.

Irati Inoriza

Komisarioa.

Caterina Avataneo

Bisitariak.

845

Jarduerak.

Topaketa: Irati Inoriza Caterina Avataneorekin
Urriaren 6a – Bastida aretoa

Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa be-reziaren barruan

Ikus-entzunezko instalazioa da, urtasun-forma zaharrak eta berriak aztertzen ditu, eta “erreal” deritzonaren interpretazio arinak estimulatzen dituena, hura ulertzeko eta eraikitzeko ahalmen berriak aurkituz.

Caterina Avataneoren hitzetan, “Gauetz filmatuta, igerilari sinkronizatu talde bat igerileku batean dantzan ari da. Bere mugimenduek gorputzaren mugak bultzatzen dituzte indarra, erresistentzia, malgutasuna eta grazia erakutsiz, urarekin harmonian eta ausartzian”.

Ur azpian izaki bakar bihurtzen dira – Lore bat, itsas izaki fin bat, gorputz kolektibo bat – Baina arnasketa da, ezinbestean, izaki kaltebera bihurtzen dituena. Beste behin ere azaleratzeko dira beti, azkar eta banaka, arnasa berreskuratuz eta gizaki bihurtuz.

Maider Aldasoro

Aurrean goxo

Irailaren 16tik Urriaren 10era - LAB 2

Bisitariak.
845

Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa be- reziaren barruan

Aurrean goxo berak definitzen duen bezala, «desioen bilera bat izango da, fantasia bat bizitza aspergarri baten barruan. Unibertso baten eraikuntza, nire baitan egon daitekeen gauzarik benetakoena asetzeko».

Proiektuaren oinarrian hainbat artefaktu-jantzi daude, haiek erabiltzen dituzten gorputzen egunerokotasuna aldatzera edo eraldatzera bideratuak. «Batzuetan, artefaktu hauek gorputzak elkartuta egotera behartzen dituzte, gogor musu ematera, baita jolastera ere; eta, beste batzuetan, pixka bat arriskuan jartzen dituzte. Guztiek asetzen dute eta guztiek agortzen dute», azaldu du artistak. «Artefaktu hauek erai-ki ondoren, ekintza etortzen da, haiek probatzeko lana, eta bideoz grabatu edo argazkiak egiten dizkiet. Beste izaki baliotsu batzuk ere agertzen dira haiekin batera», azaldu du.



Maider Aldasoro. *Aurrean goxo*



INSTALAZIO ETA ESKU-HARTZE ARTISTIKOAK

Hainbat esku-hartze eta instalazio artistikoren bidez, Azkuna Zentroak arte garaikideko bere eskaintza beste espazio batzuetara hedatuko du, hala nola Atrio, Mediateka BBK, Lantegiko bat espazioa. Ideien laborategia, terraza eta eraikinaren fatxada bera.

Zubiak eraikitze eta zentroko espazioak kultur programazioarekin lotzeko modu bat, programazio-eredu hibridoak eta formatu berriak esploratu, landu eta aurkezteko, publiko-komunitate guztietara iristeko.



Mario Paniego. Espacio Public(itari)o. Komisario Berriak

Mario Paniego

Espacio public(itari)o

KOMISARIO BERRIAK
Eusko Jaurlaritzza

2020ko abenduaren 3tik 2021eko urtarrilaren 31ra.

Komisarioa.
Mario Paniego

Artistak.
Laura Marte, Jason Eppink, Maider López, Tony de Marco, Dobro, Vermibus, Irene Cuesta del Cura y Eder Gutiérrez

Bisitariak.
497

Jarduerak.
Bilerak komisarioarekin
No ad day ekimenaren aldeko ekintza

Hitzaldiak.
Mahai-ingurua (2021eko urtarrilaren 20an): Pablo Vilá, Tomás del Hierro, Karmele Herranz Pascual, Ula Iruetagoiena

Komisario Berriak Eusko Jaurlaritzako komisariotza egiten laguntzeko eta artearen munduko profesional berriak sortzen eta finkatzen laguntzeko programa da. Aurtengo deialdian, Azkuna Zentroaren proposamenak kultura-kuradoretzaren aldeko apustua egin du, eremu zabal bat hartuz. Proposatu duen komisariotzak ikuskera artistiko jakin bat du, diziplina batetik bestera igarotzeko.

Erakusketa-lan honek publizitateak gure bizitzan eta, bereziki, eremu publikoan izan duen gorakadaren azterketa proposatzen du. "Espacio público(itari)o" proiektuak munduko hiri batzuk hartzen ditu aztergai, eremu publikoan publizitate-erabilera hori murriztu baitute eta ikusgarritasuna eman baitiote gai honen inguruan lan egiten duten nazioarteko kolektibo eta artista batzuen jardura artistikoari eta aktibistari, herritarren artean hausnarketa sortzeko helburuarekin

Nestor Lizalde

Akelarre eléctrico

2020 urtetik, 2021eko abenduaren 31ra

Artista:

Néstor Lizalde

Komisarioa:


Jaime de los Ríos

Bisitariak.

20.848

Nestor Lizalde artistaren instalazioak Azkuna Zentroko terraza argitzen du berriro, 44 arkuk osatzen duten egiturari mugimendua emenez erritueterako espazio gisa. Bilboko hainbat lekutatik gozatu ahal izaten da argi-pieza.

Lan hau, esperimentazio teknologikoaren eta tradizio artistikoaren arteko elkarriketa sortzen duena, terrazarako propio sortuta dago, erakusketa-espazio bat bihurtuz.



Nestor Lizalde. Aquelarre Eléctrico.

Josune Urrutia Asua

NIRE minbiziaren hiztegi entziklopediko ilustratu laburra


2020ko abenduaren 15etik 2021eko Martxoaren 1era.

'Proyecto Fatxada' Proiektuaren barruan

Josune Urrutia ilustratzaileak itxi du aurtengo edizioa, gorputzen zaugarritasunaren prozesu individual eta kolektiboetako bere lanarekin, gaixotasuna esperientzia gisa berresteko, Nire minbiziaren hiztegi entziklopediko labur ilustratuarekin.



Josune Urrutia



Iker Vázquez.

Iker Vázquez

Az Reality Lab

Irailaren 16tik Urriaren 10era – Kulturen Ataria

Bisitariak.
651

Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa be- reziaren barruan

Ane Pikaza, Oihane Sánchez Duro, Eva Malvisa, Itxaso Díaz y Saioa Olmo artistekin lankidetzan

Musaren kontzeptutik abiatuta eta horren aurrez aurre, «ahalegina egiten du sortzaileen ikusgarritasuna bultzatzen eta irudikapen berriak garatzen, erreferenteak erakutsiz, norberaren irudiaren eraikuntzatik berdintasuna sustatzeko», ikertzaileak azaldu duenez.

Horretarako, Iker Vázquezek pentsamendua artikulatzeko eta emakume artistekin hitz egiteko prozesu bat garatu du, eta horren azken emaitza emakume bakoitzaren autoordezkaritza da. Aldi berean, eta artearen eta teknologia berrien artean hibridazioak sortzeko asmoz, Errealitate Laborategia egin du. «Errealitate hedatua sortzeko eta esperimentatzeko espazio iragankorra da, bere ahalmen teknikoak eta adierazkorak ikertzera bideratua», proposatu du. «Erretratu bakoitza formalizatzeke, artistak 3Dn eskaneatu, eta markatzaile batzuen bidez erakusten dira; horiek telefono mugikor edo tablet baten kamerarekin fokatzean, errealitate areagotuan ikusi ahal izango dira».

Karlos Martínez

K. Güt plana

Irailaren 16tik Urriaren 10era –
Auditorioaren Foyerra

Bisitariak.


441

Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa be- reziaren barruan

Kara Güt artistarekin lankidetzan.

Espazio eten bat, arte-proiektuak sortzera eta aurkeztera bideratua, izaki fisikoaren eta digitalaren aldiberekotasuna esploratzeko.

Lehen plan honetan, Kara Güt artista iparramerikarraren laguntza izango du Intimacy Mod Live aurkezpenean. Ekintza performatibo hau zuzenean emango da, ikusleen eskaerak hartuz txat baten bidez, eta antzezlea ordezkatuz proxy batekin. Saioan tartean dauden bi avatarrak erakusten dira, ahoen magnetismoarekin bat eginda eta trapuzko panpinaren fisikan konfiantza izanda, jaurti ditzaten gorputz birtualak besarkada ezinezkoetan eta bortitzetan bihurritzen dituen koreografia batean.



Karlos Martínez

Prototipoak

Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienala 2021

proto
tipo
ak

proto_tipo_ak
Forma_Artistiko_Berrien_Nazioarteko_Bienala
Bienal_Internacional_de_Nuevas_Formas_Artisticas
International_Biennial_of_New_Artistic_Forms

Ekainaren 1etik-5era

Artistak.

Amalia Fernández, Diego Sologuren & Sébastien Tripod, Laida Lertxundi & Ren Ebel, Elssie Ansareo, Sra. Polaroiska (Alaitz Arenzana & María Ibarretxe), Maider López, Elena Aitzkoa

Komisarioak.

Rosa Casado, Fernando Pérez

Audientzia.

1.853

Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienala

Ekainaren 1etik 5era arte, Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienala egingo da, eta, bertan, duela urtebete baino gehiagotik zentroan garatutako proiektuak aurkeztuko dira.

Prototipoak begirada desberdinak dituzten artisten bienala da, jatorri oso desberdinekoak izanda eta testuinguruaren espezifikotasunetik abiatuta, esperientzia berriak planteatzen baitituzte. Forma artistiko garaikideen bidez egiten dute, beren kodeekin eta sorkuntza-denborekin, aldatzen diren agertoki eta formatuetan, era askotako lengoaiak erabiliz errealitatearen hainbat alderdi zalantzan jartzeko, errealitatea eraldatzeko aukerak zabaltzeko nahian.

Prototipoak proiektuak jarraipena ematen dio 3, 2, 1, Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketa programak 2013. eta 2015. urteen artean egindako lanari, eta areago zabaltzen du. 2016an sortu zenetik, alderdi sozialaren izaera, performatibitatea eta ugaritasuna ikertu nahi izan ditu artearen bidez, eta, horrez gain, ekarpena egin nahi du era kritikoan eratzeko, alde poetiko, estetiko eta politikotik.

Hasieratik, tokia elementu nagusia izan da, bizitzaren agertokia izateaz gain, hau da ekintzaren testuingurua edo edukiontzia izateaz gain, egiten dugunaren bidez, gure ekintzen bidez berez eratzen dena ere bai baita.

Toki konplexu bat, etengabe mugitzen ari dena, non elkarrekin bizi diren normala, marjinala, zalantzakoa eta misteriozkoa, absurdoa, begien bistakoa, anodinoa eta erabat salbuespenekoa dena, bizitzarako alferrikakoa eta funtsezkoa dena. Prototipoak programan, arreta berezia eskaintzen diogu proiektu artistikoak eta tokia ehundu, korapilatu eta txirikordatzeko aukerari, gure praktikak eta parte hartzen duten artistenak gainditzen dituzten harremanak sustatuz.

2021eko bienalean sortzaile hauek parte hartuko dute: Sra. Polaroiska, José Ramón Ais, Diego Sologuren & Sébastien Tripod, Maider López, Laida Lertxundi & Ren Ebel, Elssie Ansareo, Elena Aitzkoa eta Amalia Fernández.

Amalia Fernández

Atzera begirako espografia

Ekainaren 3 eta 4 - Zinemak, Bastida Aretoa, Auditorio Foyerra, Topaketa Gunea, Lucernario Gunea, Fdez del Campo Aretoa, Amphitryon.

Audientzia.
508

“Atzera begirako espografia” proiektuan hainbat egoera-objektu daude; performer-ek aktibatu dituzte, eta horien edukia, instalazio-bertsioan, artistaren pieza eszenikoen atzera begirakoa da.

Zentroan egonaldia izan ondoren, publikoen komunitateek ezagutzen ez dituen korridore, hormarte eta txoko ezkutuz beteta dauden hiru eraikinetatik dabil artista. Egonaldi horretan eta espazioen ikerketa horretan oinarrituta, leku horietan berriz bisitatu ahal izandiren haren lehenagoko piezen zatiak erabakiditu. Site-especific proiektu hau guztiz lotuta dago gertatzen den espazioarekin, “arkitektura material eta fisiko bezala, lantoki moduan eta obra ekoizteko leku gisa”.



Amalia Fernández.

proto
ak tipo

proto_tipo_ak
Forma_Artística_Seriem_Nozioarlekko_Bienala
Bienal_Internacional_de_Nuevas_Formas_Artísticas
International_Biennial_of_New_Artistic_Forms

Diego Sologuren & Sebastien Tripod

Broadwindow

Ekainaren 1etik irailaren 19ra – Lantegia 1

Elkarlanean.
Fundación Banco Sabadell

Diego Sologuren eta Sébastien Tripod arkitektoek Azkuna Zentroko mendebaldeko fatxadan esku hartu dute “Broad Window” proiektuarekin. Instalazioak arkitekturaren eta ingurunearen arteko mendetasun ekologikoa birsortu nahi du, ekosistema esperimental bat eratuz.



Diego Sologuren & Sebastien Tripod.

Laida Lertxundi & Ren Ebel

Notes on working from home

proto
tipo
ak

proto_tipo_ak
Forma, Artistas, Berriak, Nazioarteko, Benito
Benito, Internacional de Nuevas Formas Artísticas
Internacional, Bienal, of New Artistic Forms

Ekainaren 1etik 5era. - Auditorioa

Bisitariak.

232

“Notes on Working from Home” instalazioan gogoeta jorratzen da etxeko bizitzari buruz, praktika artistikorako funtsezko material gisa hartuta.

Instalazioak zinemako, bideoko eta soinu-arteak hainbat lan ditu, Azkuna Zentroko auditoriumean begiztan proiektatuak, bai eta artisten testu eta irudien lagin bat ere. Eguneroko lanaren zati ikusezin eta ohikoak euren lanaren atal integral gisa erabili dituztenak.



Laida Lertxundi & Ren Ebel. Notes on working from home.

Jose Ramón Ais

Baso bidaiariak

Ekainaren 1etik Irailaren 19ra - Terraza

Bisitariak.

11.198

Jarduerak.

Solasaldia Alicia Chillida (06/2), Javier Loidi (06/3) eta Rosa Casadorekin (06/4).

Elkarlanean.

Fundación Banco Sabadell

José Ramón Aisen “Baso bidaiariak” espazio publikorako asmatutako zuhaitz-lerrokatzearen prototipoa da. Terrazan instalatuta, arboreto bat antolatzen du lerroan, espazioa diagonalean zeharkatzen duen erabilera publikoko lorategia. Arbolado para calles, imperios y paraísos seriearen baitan dago, artistak Erroman egin zuen egonaldian hasitako proiektuan; zuhaitz-lerrokatze patrioiak eta ereduak sortzen ditu, zuhaitzen historiatik eta testuingurutik abiatuta kontakizunak eraikiz.

Baso bidaiariak honetan, zuhaitzek gure historiaren bilakaeran duten garrantzia azpimarratzen da, eta gure egungo harreman eta jardunbideei buruzko galderak eragiten ditu.



Jose Ramon Ais

Sra. Polaroida

Hiru Haiku

Ekainaren 1etik 5era – 1 Lantegi

Bisitariak.

346

Azkuna Zentroko kide den Sra. Polaroida (Alaitz Arenzana & María Ibarretxe) kolektiboak ikus-entzunezko proiektua aurkeztu du. Hiru haiku, poema edo alegia laburren bidez, egunerokotik abiatuz zabaldu ahal izateko sortzen, itxuraldatzen eta eraldatzen diren mundu posible eta ezezagunen aniztasuna.

Elssie Ansareo

Bio-int-día

Ekainaren 1etik Irailaren 19ra
Kultur Ataria Lantegi Fatxada.

Elssie Ansareo artistak “BIO-INT-DÍA” proiektuarekin esku hartuko du Lantegia. Ideien laborategiko fatxadan, zehazki 21 leihoetan egindako instalazio fotografiko eta ikus-entzunezko irudiarekin, eta proiektzio bat egingo du eraikinaren plano zeiharrean kokatutako Eguzkiaren Pantailan.

BIO-INT-DÍA (Bilbao-Interior-Día, Bilbo-Barnea-Eguna) izenburuak filmen gidoi teknikoaren terminologia, kokapena eta argiztapen-asmoa ditu aipagai kasu honetan. Garai batean egunerokoa zen errealtatetik datorren fikzio baten eraikuntza narratiboa da.



Sra. Polaroida. Hiru haiku.



Elssie Ansareo. BIO-INT-DIA.

Elena Aitzkoa

Andrómeda túnel

Performance ekainaren 2tik 4ra - Bat espazioa

Audientzia.

70

Performanceak aintzira baten miatze intimoa jorratuko dute. Ibilbidea azaleratu nahi duen topaketa errepikatua. "Ahotsa, gidari arin gisa, material durundi egiten. Kantua, aitortzeko eta eraldatzeko leku gisa. Dantza, airearen dentsitateari pultsua hartze moduan. Arintasuna balizko lasterbide gisa. Eskulturan, gorputzez gorputz. Gu guztiok mugitzen. Belarri atzean ezer gabe. Linterna argia bekokian, Lendia tunela zeharkatzen. Galaxia bat dator. Liken berriak lakuko harrietan habia egiten, ametsetan ari den bitartean. Egun berria esnatzen ari da, beste behin".

Maidier López

Pertsonaia

Ekainaren 1etik Uztailaren 4ra - LAB2

Bisitariak.

413

Maidier López artistaren "Personaje" lana, espazio publikoan gauzatzen den ekintzaz eta honen dokumentazioaz osatzen den proiektua da. Ekintzak, 2021eko apirilaren 12tik maiatzaren 16ra bitartean Bilbon egindakoa, hirian pertsonaia bat sortzea du helburu, pertsona bat espazio publikoan infiltratuz, denboran errepikatzen den eguneroko egoera bat eraginda.



Elena Aitzkoa .Andrómeda túnel.



Maidier López. Personaje.

EGONALDI ARTISTIKOEN ETA
SORKUNTZARI LAGUNTZEKO
PROGRAMAREKIN LOTUTAKO
JARDUERAK



Tractora Koop. E. Imogen Stidworthy.

Kolektibo egoiliarra:

Tractora Koop E. *Kinu (2020 - 2022)*

Artistak.

Ainara Elgoibar & Usue Arrieta

Audientzia.

313

Kinu#4:

Apirilak 18 eta 25 - Auditorioa

Kinu#5:

Irailak 16 eta 17 - Bastida Aretoa, Lantegia 1

Kinu#6:

Abenduak 9 eta 11 - Zinemak.

KINU #4 : **Andrés Duque**

Apirilak 18 eta 25 – Auditorioa

Zikloak apirilaren 12an jarraitzen du, Venezuelan jaiotako espainiar zinemagile Andrés Duqueren lanari eskainitako saioarekin. Bere lana espainiar ez-fikzioaren periferian kokatzen da, eta saiakera-kutsu sendoa du.

KINU #5 : **Imogen Stidworthy**

Irailak 16 eta 17 – Bastida Aretoa, Lantegia 1

KINU #5 Imogen Stidworthy-ri eskainita dago, haren lanetan hizkuntza eta ahotsa nagusi direla kontuan izanda. Imogenen lanetan, ahotsa material eskultorikoa da, espaziala, egunero erabiliz termino fisiko eta kulturaletan kokatzen gaituena. Haren lanek hizkuntzaren hauskortasunean sakontzen dute, hitzak ezegonkorrak diren egoerak aukeratuz, hitzak higatuz doazen edo huts egiten duten egoerak hain zuzen ere. Horrelakoetan beste zer ulermen-modu azalartzen den aztertzen du.

KINU #6 : **Ute Aurand**

Abenduak 9 eta 11 - Zinemak

Ute Aurand (Frankfurt 1957) alemaniar zinemagileari eskainia dago. Topaketan, bere ikus-entzunezko piezak proiektatuko dira, «In die Erde gebaut» (2008) eta «Four Diamonds» (2016), eta ondoren, solasaldi bat izango da artistarekin. Ute Aurand giltzarri bat da Europako 16 mm-ko zinema esperimentalean. Zinemagile, programatzailer eta ekoizle gisa egin duen lana ezinbestekoa da Berlingo zinema alternatiboaren kultura ulertzeko, jardunean aritu baita hor 80ko hamarkadatik orain arte.

Oscar Gómez Mata – L'alakran.

*Deriben katalogoa eta
Makers ikuskizuna*

Oscar Gomez Mata Azkuna Zentroarekin eta Espe Lopeze-kin elkartutako artistak ikerketa eta eguneroko hiri-paisaien behaketa lantzen ditu. 'Deriben katalogoa' proposamena laguntzaile bakoitzari oinez ibiltzeko banakako hainbat deribatu eskaintzean datza, bai eta barneko bizitzen eta hiri-paisaiaren arteko lotura sortzean ere.

Oscar Gómez Matak honako hau planteatzen du proiektu honetan: "Pentsamendua aldarrikapen garaikide gisa, kanpoan dagoena beharrezkoa eta egiazkoa den une gisa. Pentsamendua, zaindu, estimulatu, defendatu, mugitu, eragin behar dudun barne-indar intimoa".



Oscar Gómez Mata y Espe López.

Sra. Polaroiska (Alaitz Arenzana & María Ibarretxe) *Consejo de sabias (2019 - 2021)*

Audientzia.
440

Polaroiska (Alaitz Arenzana eta María Ibarretxe) Azkuna Zentroari lotutako artista gisa zentroan garatzen duten proiektua adineko emakumeekin eta hainbat eremutako profesionalekin elkartzeko ziklo bat da. Elkarrizketa batzuen bidez, emakume horiek beren bizitza- eta lanbide-esperientziak transmititzen eta partekatzen dituzte, eta erreferente posible gisa agertzen dira.

2021eko gonbidatuak:

Arantza Urretabizkaia (Kontagailu grafikoa: Higinia Garay) – Urtarrilaren 19an – Lantegia 1

Margarita Ledio (Kontagailu grafikoa: Ruth Juan) – Urriaren 19an – Lantegia 1

Rosa María Calaf (Kontagailu grafikoa: Leire Urbeltz) – Urriaren 26an – Lantegia 1

Teresa Catalán. (Kontagailu grafikoa: Raisa Álava Robina) – Azaroaren 30ean – Lantegia 1



Sra. Polaroiska. Consejo de Sabias.

Isabel De Naverán

Uhina gogoan

Virginia Woolfek Vita Sackville-Westi bidalitako gutun batean oinarritzen da Uhina gogoan. Gutunean, idazketan erritmo egokia aurkitzeak duen garrantzia azpimarratzen du Woolfek. Olatu isil baten mugimenduarekin alderatzen du, zeina itsas zabalean hasi, eta pixkanaka itsasertzerantz hurbiltzen den. Idazten duenaren zeregina, bere ustez, olatu horren mugimendua hautematea da, hurbiltzen den bitartean.

Aimar Arriola

Forma-desira

Aimar Arriola komisarioak Forma-desira proiektuarekin jarraitzen du, Azkuna Zentroko ikertzaile Az-Kide gisa. Proiektua 2020ko udazkenean jarri zen abian, zentroko programazioaren barruan queer- kuir ikuspegiaren eta artearen presentzia areagotuko zuen berezko lan-ildoak garatzeko gonbidapenari erantzunez.

2021eko Ekintzak:

Camila Tellez

Udaberriko trantsizioa

Martxoak 4 – Auditorioa

Audientzia.
60

Ikerketa honetako elementuak banpirismoaren inguruan garatzen dira, queer/kuir, autobiografia eta gorputzaren oroimenari dagokienez. Hamabi urte zituela hilekoa izateak haurtzaroaren pitzadura ekarri zion, eta aurre egin behar izan zion esleitura zuen generoa onartzeari; orduan, artista gaztea zela, vampir rola jokatzen hasi zen, gaueko izaki baten portaera hartuz.



Camila Tellez & Aimar Arriola.

Pablo Marte

*Una fuerte imaginación genera
acontecimiento o Las ideas sobre las cosas*

Lan dinamika eta solasaldia
Maiatzaren 11tik 13ra- Lantegia 1

Audientzia.

90

Irudimen sendoak gertaera sortzen du.

*Giza oinazearen kausak: ez gauzak, gauzei buruzko ideiak
baizik.*

Bi esaldi horien artean, han-hemenka ibiltzeko espazio bat zabaltzen da, non, pasibotasuna, geldotasuna, intimitatea eta haren distantziak lantzen ari den artistak «egitura plurinarratiboa» planteatuko duen, lirikaren eta zori objektiboaren arteko bilera.



Pablo Marte.

Sands Murray-Wassink

Working Title: Shahzia Sikander Catalysis

Performancea Azaroak 18 - Lantegia 1

Audientzia.

55

Gutun-trukearen elementuetatik abiatuz, "queer forma" denarekin edo izan daitekeenarekin zerikusia dutenak barne hartuta, eta, orobat, aldaketa kulturei, migrazioari, espiritualtasunari, estetikari, etnizitateari, istorioei, generoari eta sexualitateari, egoera mentalei eta horiekin guztiarekin borrokatzeko moduei buruzko ideiak jasoz, Sands Murray-Wassink-ek performance berri bat aurkezten du. Performanceak artistaren lanean errepikatzen diren estrategiak izaten ditu oinarrian, hala nola aipua, zuzeneko marrazkia eta zerbaiten sostengua -dela bizitza, pentsamendua edo ekintza- denbora luzez.



Sands Murray-Wassink.

Sorkuntza artistikorako ate irekiak

Irailak 16

Parte-hartzaile.

1.006

Azkuna Zentroa artistek eta sortzaileek kultura garaikidean sartzeko plataforma bat da, gizartearekin elkarrizketan. Testuinguru dinamikoa, berrikuntza eta ikerketa artistikora bideratua. Urtean zehar, sortzaileek beren lanak prestatu, entseatu, hausnartu, ezabatu, berrartu eta beren proiektuak partekatzen dituzte ikastetxeko publiko-komunitateekin. Bere presentziak programazioari balioa gehitzen dio, prozesua eta praktika ekartzen ditu, ekitaldiaren aurretik eta ondoren gertatzen dena.

Irailaren 16an, artista egoiliar eta elkartu horiek guztiek beren egiteko moduak, helburuak eta abian dituzten ikerketak erakusten dituzte. Topaketa hauetan, sortzaile hauek erabiltzen dituzten lengoia artistikoak ezagutuko ditugu. Aldi berean, ikastetxetik igarotako zenbait emaitza erakusten dizkigute.





ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK



Zinema eta ikus-entzunezkoen sorkuntza egituratu egiten dira, ikus-entzunezkoen adierazpen garaikideak zinema klasikoarekin bateratu nahi dituen programazio batean. Azkuna Zentroa Bilboko Zinematekaren egoitza da, eta haren programazioan batera uztartzen ditu autore-zikloak eta bertako eta nazioarteko ikus-entzunezko komunitate artistikoa ikusarazten duten programazioak. Era berean, ikus-entzunezkoa da sorkuntzan laguntzeko programen bidez Zentroan garatzen diren proiekturik esperimentalenen ernamuina.

Zentroaren aliatu nagusietako bat Golem Alhóndiga da, haren zinema-emanaldiarekin, zinemak Bilbon duen egoitza nagusia baita, programazio egonkorrekin, estreinaldiekin eta zinemaldiekin.

59

film jatorrizko bertsioan

4.768

ikusle AZren ikus-entzunezko programazioan

10

proiektu programatuta zineman eta ikus-entzunezkoetan

12

solasaldi zinemaren eta ikus-entzunezko sorkuntzaren inguruan

11

Jaialdi

10.150

ikusle Golemen izandako zinema-jaialdietan

ZINEMATEKA

Azkuna Zentroko Zinematekak programazio egonkorra dauka duela markada batetik, eta zinema klasikoa eta sorkuntza garaikideagoa ditu ardatz. Ikus-entzunezko programazioko ingurune bat, zinema-lengoiaren eta ikus-entzunezko lengoiaren ezagutzan sakontzen duena, zirkuitu komertzialetik kanpo dauden obretatik abiatuta.

Pier Paolo Pasolini

Poesia zinema egina


Urtarrilaren 13tik martxoaren 18ra.

Audientzia.

999

Pier Paolo Pasolini, XX. mendearen bigarren erdiko zinemagile eta poeta garrantzitsuenetakoa bat. Ziklo honek 35 mm-tan proiektatutako bere ekoizpen zinematografiko zabalaren titulurik esanguratsuenetakoa batzuetan zehar ibilbide bat proposatzen du.

Accattone, 1961, *Il Vangelo secondo Matteo*, 1964, *Uccellacci e uccellini*, 1966, *Edipo Re*, 1967, *Teorema*, 1968, *Medea*, 1969, *Il Decameron*, 1971, *I racconti di Canterbury*, 1972, *Il fiore delle mille e una notte*, 1974, *Salò o le 120 giornate di Sodoma*, 1975.



Luis García Berlanga


XX mendeko kronista

Apirilaren 14tik ekainaren 17ra.

Audientzia.
833

Berlangarekin, Gerra Zibilaren eta frankismoaren ondoko Espainia hari begira jartzen gara, zinema espainiarrak italiar neorrealismora egin zuen lehen hurbilketetako bat da. Zinemagileak berak noizbait gogoratu zuen bezala, testuingurua funtsezkoa izan zen bere filmentzat, eta bere ibilbide osoaren haria izan zen. Ez alferrik XX. mendeko kronista bezala ezagutzen dugu. Aktoreen zerrenda koralak, musika, tonu komikoa, askotan ironikoa, eta hiriko eta landa-eremuko irudi kostunbristak dira Berlangaren zinemaren ezaugarri nagusiak.

Esa pareja feliz (1953), *Bienvenido Mister Marshall* (1953), *Calabuch* (1956), *Los jueves, milagro* (1957), *Plácido* (1961), *El verdugo* (1963), *La escopeta nacional* (1978), *Patrimonio nacional* (1981), *La vaquilla* (1985), *Todos a la cárcel* (1993).



Jean Pierre Melville

Gaua, katuak eta jazz

Urriaren 6tik abenduaren 16ra.

Elkarlanean.
Institut Français

Audientzia.
448

Ziklo honetan programatutako hamar filmek zinemagilearen ibilbidea osatuko dute; Nouvelle Vague-ren sortzailetako bat izan zen, eta Frantziako zinema polarraren eta Frantziako erresistentziaren adierazgarri nagusia. Carlos Aguilar Gutiérrez historialari zinematografikoak deskribatu zuenez, "misantropoa eta harroa, mitomanoa eta obsesiboa, muturrerainoko independentea, jazzaren, katuen eta gauaren maitalea", hari buruz esan ohi da film "beltzak" egin zituzten Europako errealizadore guztien artean amerikarrena izan zela. Horregatik, haren ondarea kultuko eta erreferentziako filmografia da zinema-zuzendari garaikide asko eta askorentzat.

24 heures de la vie d'un clown - 1946 - 18' + *Le silence de la mer* (1946), *Bob le flambeur* (1956), *Deux hommes dans Manhattan* (1959), *Le doulos* (1962), *L'Armée des ombres* (1969), *Le cercle rouge* (1970), *Un flic* (1972).



BIDEOTIK, IKUS-ENTZUNEZKO BESTE NARRATIBEI BEGIRA

Otsailaren 9tik martxoaren 16ra.

Egileak.

M.Liebenthal, D.Rodríguez Muñiz, R.Riebenbauer, R.Barbosa y W.Salles, A.Gil y N.Guerrero, A.Olaskoaga, L.Saiz y A.Díaz, A.Schulz y C.Fernández, C.PG Granxeiro, P.Merchan, L.Sachs, C.Cienfuegos, J.Palacios.

Koordinatzailea:

Itxaso Díaz

Audientzia.

187

Filmineko Audientzia.

399

2020an izandako egoeretatik abiatuta, konfinamendua, galerak, identitatea, lurraldeen arteko gatazkak, borrokak, bilaketak... BideOtik. Ikus-entzunezko bestelako narratibei begira programak errealitate hori osatzen duten zenbait elementu biltzen ditu. Ikus-entzunezko saiakerak, dokumentalak, animaziozko film laburrak eta opera primak dira. Horien bidez, deialdi irekiaren edo prozesu komisariatu baten ondorioz, 17 sortzailek bestelako begiradak proposatzen dituzte, gizarte gisa eta banaka bizitzen ari garenari buruz.

BideOtik programaren helburua ikus-entzunezko sorkuntza artistikoa, kulturala eta sortzailea ikusaraztea da, sorkuntza, hausnarketa eta eraldaketa kultural eta sozialerako tresna gisa, hizkuntza berrien erabilera sustatuz, mugimenduko irudiaren eta arte digitalaren bidez. Egungo egokitzapen-eta eraldaketa-unearen ondorioz, aurrez aurreko saioei online formatua gaineratu diegu, Filmin plataformaren bidez.

Sei asteko bidaia da, bizi garen espazioak, oroitzapenak eta gure lekuak berrikusiz irekitzen dena; bilaketa introspektibo, identitate, galera eta borroketatik dabilena; eta hiri-espazioetatik urrun dauden zentzumen, irudi eta kolorezko lurraldeetan ixten dena.

1. Saioa:

Aquí y allá (2019), Melisa Liebenthal; *Beyond the glacier* (2019), David Rodríguez Muñiz; *Yo fui Anderssen* (2019), Raúl Riebenbauer; *Vencejos* (2020), Raúl Riebenbauer

2. Saioa:

Cavalo (2020), Raphael Barbosa eta Werner Salles Bagetti

3. Saioa:

Syria (2018), Alexia Gil eta Natalia Guerrero; *Jo ta ke* (2020), Aitziber Olaskoaga, *Espero* (2019) Loreto Saiz eta Adrián Díaz

4. Saioa:

Mudar la piel (2018), Ana Schulz eta Cristóbal Fernández

5. Saioa:

Un día normal (2019), Carmen PG Granxeiro; *Pirate boys* (2018), Pol Merchan; *A month of single frames* (2019), Lynne Sachs; *ID Copy* (2020), Candela Cienfuegos

6. Saioa:

Meseta (2019), Juan Palacios



DONOSTIA ZINEMALDIA AZKUNA ZENTROAN

Irailaren 27tik urriaren 3ra

Egileak.

Javier Marco, Julia Ducournau, Noémi Merlant,
Laura Wandel, Tea Lindeburg, Emanuel Pârvu,
Laurent Cantet, François Ozon, Xavier Giannoli,
Ute von Münchow-Pohl, Tomer Eshed

Audientzia.

1519



Donostia zinemaldia Azkuna Zentroan .

Aurten ere, Donostian oihala itxi ondoren, Azkuna Zentroak, Donostiako Zinemaldiarekin elkarlanean, azken edizioan estreinatutako film-sorta bat aurkeztuko du. Programak barne hartzen du zuzendari ospetsuen eta zinemagile berrien lana. Belaunaldi eta modu desberdinak dira zinemagintza ulertzeko.

Bilboko Zinemaldiaren zikloak, lehen aldiz, haur eta familientzako bi emanaldi izango ditu asteburuan goizez, eta filmen bi emanaldi larunbatean eta igandean.

Zikloa Javier Marco errealizadorearen Josefina opera primarekin hasiko da, eta Julia Ducournauren bigarren filma-

rekin jarraituko du; Titane izeneko film horrek Urrezko Palma eskuratu du aurtengo Canneseko Zinemaldian. Asteazkenean zehar hiru zuzendari hasiberriren lanak proiektatuko dira: Noémi Merlanten *Mi lubita, mon amour*, Laura Wandelen *Un monde*, eta Tea Lindeburgen, *Du som er i himlen / As in heaven*.

Programa lan hauekin osatuko da: Marocco, Emanuel Pârvu zuzendari eta aktorearen bigarren filma; Laurent Cantet beterranoaren *Arthur Rambo*, François Ozonen *Tout S'est Bien Passé*, eta Xavier Giannoliren *Les Illusions Perdues*, Venezian aurkeztu ondoren.

BESTE PROIEKTUAK

Paulino Viota *Contactos Mayo de 1970*

Urtarrilaren 30an – Auditorioa

Audientzia.
58

Nabigatzeko moduak: kabotajea izeneko fluent eta Bulegoa z/b-ren lankidetzaren barruan kokatzen da

Paulino Viotaren *Contactos. Mayo de 1970* (1970) filmaren proiektzioa eta, ondoren, hizketaldia zinemagilearekin.





Laida Lertxundi

8 Topaketa

Ekaina- Urria

Artistak.

Usoa Fullaondo – Ekainaren 17 eta 25

Sirah Badiola y Keire Greene – Uztailaren 1 eta 2

Alejandro Alonso Díaz – Uztailaren 15 eta 16

Ren Ebel – Irailaren 23 eta 24

Clara Schulmann – Urriaren 21 eta 22

Laida Lertxundik, 2021eko urtarriletik artista AZKidea da

“8 Topaketa” proiektua jarri du abian: zortzi tailer eta elkarlaneko errodaje ditu, eta emaitza 16 mm-ko obra bat izango da.

Topaketa bakoitzak bi zati ditu: Lehenengoan, tailer bat egiten da artista gonbidatu batekin Azkuna Zentroan. Bigarren zatia Bizkaiko zortzi menditan egiten da.

Filmaketa bakoitzak prozesu espezifiko bat hartuko du kontuan, ekoizpen zinematografiko tradizionalaren faseen barruan (kokapena, interpretazioa, gidoia, soinu-banda, ekoizpena, kamera, argiztapena eta edizioa), eta birsignifikatu egingo ditu, mugimenduan dagoen irudi-lan bat sortzeko ideia eta parametroen multzo zehatz bat eratzeko.

JAIALDIAK

Audientzia.
10.150

Azkuna Zentroa, aurten ere, Bilboko zinema jaialdi garrantzitsuenen epizentroa da.

ZINEGOAK Bilboko Gaylesbitrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia

Martxoaren 1etik 14ra

Aurtengo edizioan, beren identitatea, nortasuna eta etorki-zuna duela gutxira arte kontzeptu edo ideia hutsak ziren tresnekin eraikitzen ari direnengan jarri dugu begirada. Beren ikuspegia sexu-aniztasunerantz, askotariko orientazioetarantz, genero-identitatearen eraikuntzarantz edo sexualitatearekin loturiko beste edozein elementurantz modu natural batean zabaldu dutenengan.

FANT - Bilboko Zinemaldi Fantastikoa

Maiatzaren 7tik 16ra

27 ediziotan, FANTek bere nortasun-ezaugarri nagusiei eutsi die: zinema fantastiko eta independentearekiko eta sortzen ari diren egileekiko konpromisoari eta zinema garaikidearen joera eta lengoia berriei emandako arretari.

ZINEMAKUMEAK GARA- Emakumeek zuzendutako zinemaren erakusketaren 26. Edizioa

Urriaren 25a

Zinemakumeak gara! erakusketak Lola Salvador Maldonado gidoilari eta idazlea omenduko du aurtengo edizioan, 'Simone de Beauvoir' saria emanaz. Saria jaso ostean, elkarrizketa-hizketaldi batean parte hartuko du, Almudena Cachorekin. Egunari amaiera emateko, *El crimen de Cuenca* (1980) filma proiektatuko da. Pilar Miró zuzentzen du filma, eta gidoia Lola Salvador Maldonadok idatzia da, 1970eko hamarkadaren amaieran, izenburu bereko bere liburuan oinarrituta. Filmak 1910ean herri hartan desagertutako artzain baten istorioa kontatzen du, Guardia Zibilak bi atxilotuei egindako torturak barne. Horren ondorioz, urte eta erdi baino gehiagoz atxilotu zuten, eta bere errealdorea prozesu militar baten pean jarri zuten. Azkenean, 1981. urtearen erdialdean estreinatu zen, eta zentsura desagertu zenetik debekatutako film espainiar bakarra izan zenez, erabat arrakastatsua izan zen Pilar Miróren bigarren film luze hau.

ZINEBI - Bilboko Zinema Dokumental eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia

Azaroaren 11tik 18ra

ZINEBI gorabidean dauden autoreak babesten dituen jaialdia da. Nazioarteko film laburren lehiaketa (dokumentala, animazioa eta fikzioa) eta nazioarteko ZIFF- ZINEBI First Film lehiaketa (opera primako film luzeei eskainia) dira bere ezaugarri nagusiak. Gainera, urtero urteko dokumental luzerik onenetako batzuk proiektatzen ditugu Beautiful Docs sailean.

Bilboko zinema jaialdien epizentroatra

Cine invisible

Film Sozialak

Mendi Film Festival

Zinexit

Zinemagileen Artean

Sail In Tour

...

ARTE BIZIAK



Arte bizien programazio egonkorak forma artistikoen inguruko erakusketa, praktika eta ikerketa proposatzen ditu. Gorputza da elementu eszeniko nagusia, antolaketa koreografikoan edo espazialean, plastikoan edo performatiboan; eta, harekin batera, egitura narratibo berriak, formatu eta lengoaia berriak, sormen-aukerak pizten eta zabaltzen dituztenak.

Musika esperimentalaren eta soinu-artearen esparruan, Zentroak apustua egiten du musikarekin eta soinuarekin lotuta dauden esperientzia artistikoen alde, musikalak edo harmonikoak ezinbestez izan beharrik gabe. Musika esperimentalaren eta soinuaren urteko programak nazioarteko eta bertako artistak biltzen dituzten musika-entzunaldiak ditu, eta soinu-sorkuntzari eta inprobisazioari buruzko tailerrak eta topaketak ere bai.

3.898
parte-hartzaile

55
jarduera

14
tailerra eta topaketa artistekin

71
artista

ESZENAZ. AZKUNA ZENTROKO ARTE ESZENIKOEN DENBORALDIA

AZ eszenan, arte eszenikoak dimentsio osoan sartzen ditugu: antzerkia, dantza, performancea, Azkuna Zentroaren instalazio guztiak hartzen dituzten agertoki posible guztiak erabiliz.

2021eko proposamen eszenikoan, nabarmentzen da zentroaren sorkuntza artistikoari laguntzeko programen esparruan sortutako pieza, *Makersen* estreinaldiarekin. eta, orobat, Gizarte Inklusioari eta Arte Eszenikoen Hezkuntzari buruzko XIII. Jardunaldiak, Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalarekin lankidetzan eginak.

Mal Pelo

On Goldberg Variations / Variations

Urtarrilaren 21, Auditorioa

Audientzia.

177

“Steve Paxton: Drafting Interior Techniques”
erakusketaren programaren barruan



Mal Pelo.

On Goldberg Variations / Variations lengoaien ildoaz eraturako sare bat da, eta denek bat egiten dute J.S. Bachen obraren inguruan ehun bat osatzeko. Dantza, John Berger-en ahotsa, testu propio batzuk, soinu-bandaren soinu manipulatu eta foku-anitza, zuzeneko ahotsa eta bideo-proiektzioak elkartu dira, Mal Pelok J.S. Bachen uni-bertsora egin duen gerturatzeko hau eratzeko.

Oscar Gómez Mata L'Alakran & Juan Loriente

Makers

Apirilak 15 eta 16a, Auditorioa
Estrenaldia

Audientzia.

261

Az kideak



Oscar Gómez Mata L'Alakran & Juan Loriente. *Makers*.

Argiari, denborari eta maitasunari buruzko lana da *Makers*, eta gainezkatzeko komikoaren eta emozio-euspenaren artean egiten du bidaia, zentzugabekeriaren eta egiaren artean. Ikuskizun honek poetikoa eta filosofikoa nahasten ditu, bizirik dirautenentzako eskuliburu moduko batean, eta erreallitatean dugun iragaiteari irtenbideak ematen saiatzen da.

Makers-en funtsezko eginkizunetik sortzen da pieza: argia egiteko ikertzea. «Detektibeak gara, sentipenaren azpian hautematen dena bilatzen, erreallitateari irtenbide poetikoa aurkitzen saiatzen gara», azaldu du Azkuna Zentroko artista AZkideak. Ondoriozko ikuskizunean, «bikote komiko» honek gai klasikoak jorratzen ditu, hala nola maitasuna, denbora eta argia, umore hunkigarriarekin nahasita. Horrela, beste ikuspegi bat ematen digute ertz lausoak eta zalantzazkoak dituen garai hauskortu honen egunerokotasunari buruz.

Societat Doctor Alonso

Hammamturgia

Maiatzaren 26an – Lantegia 1

Artistak.

Tomas Aragay eta Sofia Asencio

Lanean. Prozesuetarako laguntza.

Uztailaren 12tik 23ra – LAB2

Audientzia.

25



Societat Doctor Alonso.

Lanean Prozesu artistikoei laguntzeko programa

Societat Doctor Alonsok “Hammamturgia” aurkezten du, bere azken proiektu eszenikoen prozesua, “hammamturgia”ri buruz hausnartzen duena, dramaturgiaren beste alderdi gisa ulertuta.

Egindako ikerketetan, konpainiak “kode irekia” nozioarekin lan egin du beti. «Praktikaren bidez kontzeptualki mugatzen diren barne-jarraibide edo -arau batzuekin lan egiten dugu, eta garapenean mugako espazio gisa hartzen da publikoa: harrera irekia eta iluna izango da aldi berean, publikoa ziurgabetasunez egongo da tarte batez, kode horrek nolabait enkriptatzen baitu obraren ulermena», hausnartu du Societat Alonsok.

MDV Danza

Arquitectos del Aire (Alhóndiga)

Ekainak 24a, Kulturen ataria

Audientzia.

125



MDV Danza.

Dantza gorputzaren mugimendua da espazioan, eta arkitekturak espazioa antolatzen eta hierarkizatzen du erakuntzaren bidez. Biak espazioaren okupazioa dira. Airearen denboraren bidez betetzea. Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao da proiektu honen inspirazio oinarria, arkitektura industrialaren paradigma bezala, kultura-espazio bihurtua. Ikerketa-prozesuaren abiaburua da arkitektura publikoaren esparrua, eta erabiltzen ez diren espazio berezien berrikuntzarantz nola joan den.

Nuria Guiu

Spiritual Boyfriends

Abenduak 16a, Kubo baltza.

Audientzia.

57

Bitartekaritzako jarduera.

Pasea eta solasaldia ikasleekin

Audientzia.

40

Cía. Daniel Abreu

La Desnudez

Azaroak 25a, Auditorioa.

Elkarlanean.

Dantzaldia (La Fundación).

Audientzia.

269



Cía. Daniel Abreu.



Nuria Guiu.

Núria Guiuk, lan honetan, yogaren praktika aztertzen du; yogaren ikerketa dokumental eta ikonografiko bat egiten du: yogako jarreraren eraikuntza historikoa eta jarrerak gorputzei rol, arau eta botere-egiturak nola ezartzen dizkieten, autodiziplinaren, osasunaren eta edertasunaren kultura bat sortzen baitute. Egungo yoga, praktika espiritual bat bada ere, gorputzaren kapitalizazioan harrapatuta dago, hainbat kontzepturen bidez, hala nola edertasuna, osasuna eta autoterapiaren inguruko objektu fetitxeen industria.

Piezak erlazio baten egitate magikoa deskribatzen du, non galderak jada existitzen ez diren eta ekintza baizik ez dagoen. Bi irudi eszenan, musikarekin batera, musikaria eta haizearen soinu baxua metalean. Biluztasunak intimitate-leku horri dagokio, non jada galderak ez dauden. Eder-tasuna, dagoenaren eta gertatzen denaren biluztasunean.

Gizarte Inklusioari eta Arte Eszenikoen Hezkuntzari Buruzko XIII. Jardunaldiak

Azaroak 3, 4 eta 5a, Auditorioa

Elkarlanean.

Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalak (INAEM)



Azkuna Zentroak eta Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalak (INAEM) Gizarteratzeari eta Arte Eszenikoen Hezkuntzari buruzko Jardunaldiak aurkeztu dituzte. Topaketa hauen ardatza prozesu artistikoen inpaktuak dira, eta begirada artistiko hibridoen alde egiten dute, ertzetara edo mestizoa den horretara hurbiltzen direnen alde; orobat, elkarguneak azpimarratzen dituzte, horietan aberastasuna dibertsitatearekin eta hizkuntza artistikoen eta pertsonen eta kolektiboen arteko kutsadurarekin indartzen baita. Dibertsitate artistiko eta soziala Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren bereizgarria da, eta, horregatik, zentro hau aukeratu da horiek hartzeko.

Jardunaldi hauen programak batera biltzen ditu txostenak eta zuzeneko ikuskizunak, artisten foroak, ekintza performatiboak, proiektuen aurkezpenak eta tailerrak.

Les Impuxibles Suite TOC n°6

Azaroak 3a , Auditorioa

Audientzia.

204

Gizarte Inklusioari eta Arte Eszenikoen Hezkuntzari Buruzko XIII. Jardunaldien barruan

Kontzertu bat, ikuskizun bat, mugako espazio bat gizartearen isildutako gai bat argira atera nahi duena: TOCaren sintomatologia (nahasmendu obsesibo-kompulsiboa). Nagusi diren begiraden hegemoniaren aurkako diskurtso ofizialen periferiara egindako hurbilketa. «Zein dira gizarte osasuntsu batean ezartzen diren parametroak? Bost interpretatzaile agertokian, bakoitza diziplina desberdin batekoa, hausnarrean, sufrimendu mentalaren inguruan, lengoia eszenikoen nahasketan sakonduz eta kodeak bateratuz», azaldu dute sortzaileek.



Les impuxibles .

Proyecto colectivo

HQPC

Habr  que ponerse cachas

Azaroark 4a – Auditorioa

Audientzia.

155

Gizarte Inklusioari eta Arte Eszenikoen

Hezkuntzari Buruzko XIII. Jardunaldien barruan

Habr  Que Ponerse Cachas esanahi-joko bat da, txantxetako, xarma eta pindar handikoa. Bob Dylanen abesti bat. "The Royal Tenenbaums" filma, hor entzuten baita. Filmeko familia eta bertako bi anai-arreben paperak. Anai-arreben arteko harremanak nola aldatzen diren denboraren poderioz, nola eboluzionatzen duten harreman horiek haurtzaroren, nerabezaroren eta helduaroaren artean, eta, zer gertatzen da hurrek gurasoen ordeztu erabakiak hartu behar dituztenean? Zerk hurbiltzen gaitu anaiarengana? Zerk bereizten gaitu? Gure familiak nola osatzen du gure identitatea eta nola urruntzen gaitu batzuetan?



Proyecto colectivo HQPC.

C A. Colectivo Mur

Detuatu

Azaroak 4a – Auditorioa

Audientzia.

155

Gizarte Inklusioari eta Arte Eszenikoen

Hezkuntzari Buruzko XIII. Jardunaldien barruan

Gizabanako bat beste baten aurrean dagoenean -hirugarren pertsonarik gabe, interferentziarik gabe-, duoren barruan sortzen diren harreman pertsonalen introspektziarako bidaia.

Bi bizikleta paraleloan elkartzen dira mugimendu akrobatikoak ikertzeko, aukera ematen baitute pertsona batek zerbait modu jakin batean gertatzeko, izateko edo funtzionatzeko, edo beste pertsona batek berak nahi duen bezala jarduteko duen konfiantza eta itxaropen irmoa lantzeko. Horrela, bada, binomio hau osatzen dutenek fede itsua izan beharko dute bestearengan zutik irauteko, hau da, bizikletan.



C A. Colectivo Mur.

Kolaborazioak

Loraldia.

Martxoak 13-20.

Kolaborazioa.

Ekimen honen bidez, bat egiten dugu euskarazko kultura-ekoizpena sustatzeko eta hedatzeko Bilbon egiten den jaialdiarekin. Musika, hitza, zinema eta antzerkiko ikuskizunekin, euskarazko sorkuntza artistiko garaikidea ezagutzeko eta harekin gozatzeko.



Loraldia 2020.

Mitusu

Bizkaiko haur eta gazteentzako antzerkia

Audientzia.

2469 ikasle

Azaroan eta abenduan, arte eszenikoekin egiten dugu topo, Mitusuk eta Azkuna Zentroak jorratutako proiektuaren bidez. Programak hiru antzerki-proposamen eta hamar emanaldi ditu, ikastetxeekin itunduak.

Azaroak 29- Auditorioa

Marie de Jongh *Ikimilikiliklik*

Azaroak 30 eta Abenduak 1
Auditorioa

Zumzum teatre *Zapata-kaxa batean bizi zen neska*

Abenduak 2 eta 3

Teloncillo *Baltasar jaunaren animaliak*



Marie de Jongh .

MUSIKA ESPERIMENTALA ETA SOINU-ARTEA

Azkuna Zentroak musika eta soinuarekin zerikusia duten esperientzia artistikoen alde egiten du, musika edo melodikoak izan beharrik gabe.

Musika esperimentalari eta soinu-arteari buruzko HOTTSETAN programaren esparruan, artistentzat, irakasleentzat, nerabeentzat eta interesa duten ikusleen komunitate guztientzat, hainbat artistak musika esperimentalaren programazio interesgarria egiten lagundu dute aurten.

Eraeran + Myriam Rzm + Matías Riquelme & Fernando Ulzión + Mudoh

Urriaren 10a - Lantegia 1

Audientzia.

66

Eraeraneke, Miguel A. García artistak bertako soinu-artista batzuekin batera garatutako pieza elektroakustiko labur batzuk aurkeztuko ditu, sorkuntza- eta inprobisaziotailerren osagarri gisa pentsatuak. Horietan, soinusorkuntza kolektiboa ikertzen da, inprobisazio librearen eta interpretazioaren arteko askatasun-maila desberdineko partituren bidez, tradizioz erabilitako bitarteko akustikoak darabiltzaten musikariek hasi, eta musikari elektroniko esperimentalengana.



Eraeran + Jana Jan + Ec + Killerkume

Martxoaren 16a – Lantegia 1

Audientzia.

61

Eraeran pieza elektroakustiko batzuekin itzuliko da; bertan, soinu-sorkuntza kolektiboa ikertzen du, inprobisazio librearen eta interpretazioaren arteko askatasun-maila desberdineko partituren bidez.



Eraeran + Radithor + Testura + In Memoriam Jon Higging De Alvin Lucier



Apirilaren 28a – Auditorioa

Audientzia.

57

Eraeran, Radithor, Alvin Lucier-en “In Memoriam Jon Higging” eta Testuraren proposamenek luzaroan eutsitako soinuekin eta dronearekin esperimentatzen dute

Francisco López *Criaturas Sónicas*

Urriaren 13a – Auditorioa

Audientzia.

85



Francisco López konpositore eta audio-artistak hamarkadak daramatza mundu osoko entzuleak liluratzen bere esperientzia sonikoekin, kanal anitzeko surround sistemak eta publikoaren begietarako bendak erabiliz. Artistak «mono-media egoera» esaten dio horri.

Planeta osoan zehar egindako ingurune-grabazio originalatik –naturalak zein artifizialak– sortutako piezez osatuta dago. «Ez dira soinu-paisaiak, irudikapenik gabeko soinu-mundu birtualak baizik», zehaztu du artistak. Publikoak bere esperientzia propioa garatzen du, murgiltzearen arauak eta parametroak soinuek berek –espazio gisa eta indar fisiko dinamiko gisa sentituta– definitzen dituzten ingurune batean.

Hezkuntza eta Bitartekaritza

Musika esperimental eta soinu-artearen hastapenetako tailerrak

Martxoaren 1etik 12ra
Azaroaren 8tik 12ra

Parte-hartzaile.
193

Tailer teoriko eta praktikoa honetan, era ludiko atseginean, ikus-entzule gazteenek aukera izango dute soinu- esperimentazio musikalaren mugimendu eta ordezkari garrantzitsuenak ezagutzeko, XX. mende hasieratik orain artekoak, eta soinuarekin eta haren pertzepzioarekin plastikoki esperimentatzeko.



Talleres de música experimental 2019.

Rafael Martínez del Pozo

Escuchando, hacia una música anterior a si misma

Abenduaren 17tik 19ra

Parte-hartzaile.
8

Topaketa horretan, testu-riketa eta -argibide batzuen bidez, parte-hartzaileek soinua duten formak sortuko dituzte, ezagutu daitekeenetik erdi-musika partekatura, gorputz arrotzak ekartzeko ekosistema gisa ulertutako musikara.



Kolaborazioak

Bilboko Udal Bandaren Kontzertuak

BOS *AZ. Musika loturak. Kontzertuak* *Bilbao Orkestra Sinfonikoa*

Irailaren 10 eta 24an – Kulturen ataria

“Cercanías con el teatro”

Miren de Miguel, Sopranoa

José R. Pascual-Vilaplana, Zuzendaria

“La cercanía de lo ajeno”

Francisco A. Soler Compañ, Zuzendari
Gonbidatua

Abuztuaren 5ean eta irailaren 2an – Kulturen ataria

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao, Bilboko Udaleko Gizarte eta Kultura Garaikide Zentroak eta Bilboko Orkestra Sinfonikoak (BOS) ‘Musika Loturak’ programaren bigarren edizioa antolatu dute, musika eta kultura garaikidea soinu esperimentalaren bidez konektatzen dituzten bi emanaldirekin. Errepertorioaren barruan jaso dira XX. mendeko abangoardietako musika klasi-koaren estetika eta praktika artistikorik garaikideenak kontrastatzen dituzten lanak.



LITERATURA



Hitza, adierazpen literarioaren bitarteko legez eta pertsonen arteko komunikazioaren eta elkarrekintzaren ardatz legez; hitza da, hain zuzen ere, Azkuna Zentroaren ardatz programatikoetako bat.

Programazioak literaturaren ikuskera garaikideari hel-tzen dio, liburuak, letrak eta irakurketa gaindituz, eta zabaltzen da ahozko adierazpenaren eta transmisioaren artera, ikus-entzunezko narratibara, marrazkira eta komikira. Era berean, ezagutzera ematen du bertako sormen urbanoa eta euskarari lotutakoa, publiko familiarri lotuago dauden adierazpenak, eta azaleratzen ari diren ahots berriak eta hegemonikoak ez diren hizkuntzetakoak.

2.306

jardueretara bertaratutakoak

78

jarduera programatu dira

70

egile, artista eta beste profesional batzuk

14

tailer

GUTUN ZURIA. BILBOKO LETREN NAZIOARTEKO JAIALDIA

Hemen.
*Non guztiak biltzen
dituen lekua*

Martxoaren 23tik 27ra

Audientzia.

1.277

Online bisitariak.

7.120

Elkarlanean.

BBK

Institut Français, Metro Bilbao

Gutun Zuria. Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia martxoaren 23tik 27ra bitartean ospatu da, *“HEMEN. Non guztiak biltzen dituen lekua”* izenburu orokorrarekin, Koldo Izagirreraren *“Hemendik idazten dugu”* poemaren bertsoan inspiratuta. 2021-2020 Gutun Zuria bi edizioaren artean ibiliko da oraingoan. 2020an, Jaialdiak hurbilpen bat egin nahi zuen, saiakera kolektibo gisa, gizartean izaten diren eraldaketetara. Pandemiarekin bizkortu egin da aldaketa-prozesua, eta egoera berri-rakurtzeko aukera eman du. Topaketa ezin izan zen aurreikusitako formatuan egin, baina proiektuak zabalik jarraitu du, denbora errealeko saiakera gisa, eta *“Saiakera hemen hasten da”* liburua bihurtu da. Antologia horretan, 17 egilek errealitateari buruzko gogoetak proposatzen dituzte, nork bere belaunaldi-, ideologia- edo geografia-ikuspegitik begiratuta; eta horrekin irekitzen da aurtengo Jaialdia.

Horrez gain, 2021eko edizioa zabaldu da irakurketaren begirada artistiko berrietara eta artearen begirada literario berrietara, euskal literatura eta hizkuntza ez-hegemonikoen ekosistema jorratuz, literaturan jatorri migratzaileko ahots berrien sorrera ikertuz, sorkuntza garaikidearen inguruan saiakera eginez.

Dozenaka egile ibiliko dira horretan guztian, hitza, saiakera, edizioa, antropologia, soziologia, filosofia, kazetaritza, ikerketa, arte bisualak edo zuzeneko arteak oinarritzat hartuta.

Batzorde betearazlea: Rakel Esparza, Alasne Martín, Fernando Pérez

Aholku Batzordea: Iván de la Nuez, Iñaki Esteban, Beñat Sarasola



Topaketak Auditorioan

Azkuna Zentroko Auditorioan egileen aurrez aurreko hitzaldiak izan dira.

Anari, Iñigo Astiz *Inon izatekotan*

Martxoak 23 – Auditorioa

Iñigo Astizen galderei erantzunez, kantu bat nola eta nondik sortzen den azaltzen digu musikariak. Eta Anariren kantuetan hitzak duen garrantziari helduz, idazteko orduan izan duen bilakaeraz, aurkitu duenaz, bilatu duenaz, aurkitu ez duenaz, eta bidean galdu duenaz jardungo du, besteak beste.

Martha Rosler, Marcelo Expósito & Imma Prieto *Nola iritsi gara hara hemendik?*

Martxoak 24 – Auditorioa

Elkarrizketa honen izenburuak gelditzera behartzen gaitu. Galdera plurala da, leku eta denbora batetik harantz doana. Aldi berean, hausnarketa izugarri zehatz batean sartzen gaitu: hemen eta orain geopolitikoa eta historikoa, iraunkorra. Paradoxa da berriro historiari itzultzeko beharra planteatzeko modu bakarra.

Mónica Ojeda, Itxaro Borda, Yuri Herrera & Arrate Hidalgo *Hizkuntzak hizkuntzetan, panpina errusiar linguistikoak*

Martxoak 25 – Auditorioa

Hizkera berezia da haiena, gai baita hizkuntza harrapaezina, sofistikatu eta aldi berean lagunartekoa sortzeko, non jargoiak, familiako hizkerak edo antzinako eta egungo esapideek berezko hizkuntza bat eratzen baitute bitxikeria boteretsu honekin: eksklusiboki haien literaturakoa izanik, askok uler dezakete.

Marta Rebón, Alexei Yurchak, Santiago Gerchunoff & Iván de la Nuez *Hemen, Leninen mausoleoan*

Martxoak 26 – Auditorioa

XX. mendeko espaziorik ezagunenetako bati helduko dio: Moskuko Plaza Gorriko Leninen Mausoleoari eta XXI. mende honetan behin eta berriz egiten den galdera bat: Zer egin behar da mausoleo batean ia mende batez gorde den lider boltxebikearen momiarekin?

Miren Agur Meabe, Olga Novo & Beñat Sarasola *"Txikitik idaztea handi"*

Martxoak 24 - Auditorioa

Bakoitza bere tokitik, antzeko zidor poetikoetan murgiltzen dira, eta beraz, saio honetan aukera izan dugu bi idazleen sorguneen eta kezka literarioen inguruan jakiteko. Zein dira beren abiapuntu, zeharbide eta jomuga poetikoak? Zer da poesia idaztea egun? Zer da gaztelaren aldamenean txikiak diren hizkuntzetan idaztea? Beren ibilbidearen goanean dauden bi poeta ezagutzeko parada ezin hobea.

Kaouther Adimi, Margaryta Yakovenko & Iñaki Esteban *Bi munduren artean bizitzen, norberaren espazioa aukeratuz*

Martxoak 25 - Auditorioa

Elkarrizketak berariaz jorratu ditu literaturan jatorri migrazaileko ahots berrien sorrera eta identitateen inguruko idiosinkrasia, identitate horiek ezin baitira ohiko estatu-nazio baten ideiarekin barruan sartu.

Eider Rodriguez, Aixa de la Cruz, Katixa Agirre & Haizea Barcenilla *Saiakera eta fikzioaren bidegurutzean*

Martxoak 26 - Auditorioa

Hiru saiakeragileek haien testuetan behin eta berriro agertzen diren gaiak jorratzen dituzte mahai inguru honetan: ni-aren idazketa eta saiakera, gorputza eta idazketa, amatasuna eta sormena, kristalezko sabaiak euskal eta espainiar literaturan, etab.

Marta Peirano *Sare Sozialei buruzko topaketa gazteekin.*

Martxoak 26 - Auditorioa

Amets Arzallus, Ibrahima Balde & Goizalde Landabaso *Hormak eta zeharkaldiak*

Martxoak 27 – Auditorioa

Topaketan, Ibrahima Baldek bere jaioterritik, Gineako Errepublikatik, Gibraltarko Itsasarteraino egin duen bidaia kontatzen du.

David Le Breton, Anna María Iglesia, Lara Moreno & Txani Rodriguez

Ibili, elkar topatu, alden du

Martxoak 27 – Auditorioa

Hori egitearen plazerretik ibiltzeak askatasuna gauzatzen du, tokiei esleitutako funtzioak eta zuzendaritzen nahitaezko norabidea iraultzen ditu. Denbora araututik alden tzea eta norberarekin, gorputzarekin, pentsamenduarekin eta oroitzapenekin, eta baita besteekin ere topo egitea esan nahi du.

Kapsulak

Martxoaren 23tik 27ra

Autoreak.

Eneko Aizpurua, Iván de la Nuez, Marco d'Eramo, Cristina de Middel, Najat El Hachmi, Gonzalo Elvira, Iñaki Esteban, Mari Luz Esteban, Joan Fontcuberta, Alicia Kopf, Glenda León, Anjel Lertxundi, Beñat Sarasola, Alasne Martin, Fernando Pérez

Marta Peirano

Etsaiak sistema ezagutzen du

Martxoak 27 – Auditorioa

Zaintza, azpiegiturak, subiranotasun teknologikoa, propaganda konputazionala eta klima-aldaketa bezalako gaie tan erreferentea da. Hitzaldian gogoratzen du Internet, demokraziaren elementu dinamizatzaileena, autoritarismo global berriaren zerbitzura dagoen zaintza- eta manipula zio-makina bihurtu dela.

Gutun Zuriak bere formatuetan dibertsifikatzen du, Jaialdi- ra joateko modu berriak proposatuz. Horra hor, esate bate- rako, hamar artista eta idazle baino gehiagoren multimedia kapsulak, gonbidapena onartu baitute bakoitzak bere es- paziotik parte hartzeko. Webgunean aurkitu daitezkeen lekukotasunak dira, baita Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdi honen artxiboa eta me- moria ere.

Online hitzaldiak

Gutun zuriaren beste egoitza batzuk

Gutun Zuria bere muga fisiko eta presentzialetatik harantz hedatzen da, Bilbotik mundu osora zabaltzen den lineako HEMEN batekin, hainbat egileren parte-hartzea testuinguruan kokatuz, beste herrialde batzuetan duten beren “hemen” horretatik.

Artista x Artista (La Habana)

Martica Minipunto

Mihiarekin idazten

Martxoak 24 - Kuba

“Nire sormen prozesuak desautomatizatzeko, mihiarekin gauzak nola egin galdetu diot neure buruari. Galdera hori behin eta berriz entseatu nahi dut gorputzarekin, orrietan, objektuetan, gelditasunean. Mihia dantzatzen dut hitzak murmurikatzen, idazketa/irakurketa alfabetikotik “irudi- kapen hutsaren” logikarik gabe inprobisatzen duen musku- lu baten harikortasunera igarotzen naizen bitartean. Haba- nan nago, Kuban, mihia ateratzen dut leihotik”.

Centre des musiques actuelles (Casablanca)

Salah Malouli / Boultek

Kultura garaikidea Darijan

Martxoak 26 - Maroko

Darijako sorkuntza garaikidea (berbera, arabiera eta frantses eta espainiera apur bat nahasten dituen tokiko hizkuntza ez-ofi- ziala) kultura- eta hiri-adierazpide berri baten ibilgailu bihurtu da, rap, komiki, slam, podcast eta YouTubeko sorkuntzarekin gurutzatuta. Marokon eta Mediterraneoaren hegoaldeko beste herrialde batzuetan gertatzen ari den paradigma-aldaketaren adierazgarri.

Platako Unibertsitate Nazionala (Buenos Aires)

Damián Tabarovsky

Hemen, erantzun bitxi gisa

Martxoak 25 – Argentina

Hemen edo han (Argentinan “acá o allá” esaten duguna) eraikuntzak dira, ez egiak.

Normaltasun berriari aurre egin behar diogu, ez normal- tasun zaharrera -neoliberal eta basatira- itzuliz, baizik eta bitxikeria berriak asmatuz.

Programa Publikoa

Gutun zuria. Bilboko Nazioarteko Letren Jaialdia zentroko espazioetara hedatzen da. Hitzak liburuen orrien muga gainditzen du eta musika, artea, ahotsa edo edizioa bezalako diziplinekin hitz egiten du.

Gutun Zuriaren “Irakurketa Kultura” Kluba

Martxoaren 16tik 26ra – TK101. Mediateka BBK

Gutun Zuriaren Kultur Klubak kulturaren iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko hainbat gairi buruz hitz egitera eta gogoeta egitera gonbidatzen du: diziplinek izaten dituzten aldaketak; hizkuntzarekin duten erlazioa; denboran irauten duen ondasun gisa duten balioa; mugak edo garrantzia.

Liburudendaz.

Azkuna Zentroko Liburu-Denda

Martxoak 18>28 – Azkuna Zentroko ataria

LiburudendAZ, Azkuna Zentroko denda, Jaialdiaren liburu-denda, argitalpen-ekoizpenaren erreferentziako gunea, eta, besteak beste, Az argitalpenen corpusa du, erreferentziako tokia da Jaialdiaren arratsaldeko saioen ondoren liburuak sinatzeko. Zentroko programazio-lerroen inguruko erakusketen, saiakeren eta liburuen katalogoek osatzen dute.

Argitaletxe independenteen topaketa

Martxoak, 27 - Auditorioa

Continta Me Tienes (Madrid), Katakarak (Iruña), Pepitas de Calabaza (Logroño), Susa Literatura (Zarautz), Hoja de Lata (Gijón), Editorial Tránsito (Madrid), Txalaparta (Tafalla), Sans Soleil (Vitoria- Gasteiz), Rayo Verde (Barcelona), Impedimenta (Madrid), Alpha Decay (Barcelona), Capitán Swing (Madrid), Nórdica (Madrid), Editorial Barrett (Sevilla), Impedimenta (Madrid), Tres hermanas (Madrid), Godot (Buenos Aires), Almadía Ediciones (Ciudad de México), Altamarea Ediciones (Madrid), Bonito editorial (Barakaldo).

Gutun Zuria Irratia. Jaialdiaren Irratia

Matxoak 24, 25 – Azkuna Zentroko ataria

Gutun Zuria irrati moduan ere zabaltzen da edizio honetan. Lehen aldiz, jaialdiak Gutun Zuria Irratia izaten du, publiko berrietara iristeko kanal berria. Atrioaren erdiko kuboan dago, fisikoki —lehen Infopuntua—, eta soinu-leiho hori kanporantz irekitzen da. Jaialdiarekin elkartzeko gune berri bat sortzen du, eta edukien artxibo bihurtzen da, soinu-artxiboaren banku. Gutun Zuria Irratia Idoia Jauregi kazetariak zuzentzen du.

Deriben katalogoa Ariadnaren Haria

Martxoak 25 – Mediateka BBK

Oscar Gómez Mata, Azkuna Zentroko artista AZkideak eta Espe López artistak proposamen berri bat aurkeztuko dute Deriben katalogoa proiektuaren barruan: Ariadnaren haria. Esperientzia desberdin baten bidez Zentroa ezagutzeko modu gisa planteatu da, edo hirian zeharreko ibilbide berezi batean murgiltzeko, zenbait argibide eta arrasto jarraituz.

Argitalpenak

Jaialdian honako argitalpen hauek aurkeztu dira, egileekin egindako topaketetan:

El ensayo empieza aquí (caniche, 2021), *Acromática. Una partida inmortal* (Azkuna Zentroa, 2021), *Azkuna zentroa - Alhóndiga de bilbao. Ardoen biltegitik gizarte eta kultura garaikideko zentrora* (Azkuna Zentroa, 2021), *Gorputzak, desirak eta almendratxo batzuk. Sra. Polaroiskaren film bat* (Sra. Polaroiska / Alaitz Arenzana & María Ibarretxe Del Val, 2021).

LITERATURAKO BESTE JARDUNALDIAK


Leire Urbeltz *Bitarte baten aukera*

Martxoaren 2, 3 eta 4

Parte-hartzaile.
8

Fatxada Proiektua. Diseinua, ilustrazioa eta komi- kia-ren esparruan

Ez artea eta ez ilustrazioa, laborategi bat da hau, marrazkian oinarrituta sortzeko leku gisa 'bitarte'ko espazio bat jorratzeko bokazioa duen tokia. Bazterketaz bazterketa erai-
kia dirudien mundu batean, La probabilidad de un entre
lasaitze proposamen moduko bat da, non segurtasun eza
eta nahasmena besarka daitekeen balizko ilustrazio hedatu
batekin esperimentu ahal izateko.



Artoteka *Gure ARTEan*

Martxoaren 12tik apirilaren 10era

Parte-hartzaile.
27

6 eta 12 urte bitarteko publiko-komunitateei zuzenduta, Gure ARTEan ikaskuntza kooperatiborako eta pentsamendu kritikoa sustatzeko plataforma bat da, euskal tes-
tinguruko artisten lana zabaldu eta ikusarazi nahi duena,
ikaskuntzen trukearen bidez. Proiektu honen helburua da
haurtzaro kritikoa, sortzailea eta parte- hartzailea eraikitzen
laguntzea, hezkuntza ez-formaleko ekintzen eta jarduera
artistikoen bidez.



Txakur gorria

Huts egite saiakerak

Apirilak 29

Parte-hartzaile.
40

Tailer partehartzailea.

Txakur Gorria Malen Amenabar, Mariñe Arbeo, Nerea Ibarzabal eta Ane Labakak osatzen duten talde sortzailea da. Hamalau urtetik gorako ikasleei zuzendutako "Huts egite saiakerak" izeneko parte-hartzeko tailerra aurkeztuko dute.

Literatura-generotik harantz, sormenerako bitarteko eraginkor gisa hartzen dute saiakera. Aldizka probatu, huts egin eta berriro saiatu. Hori da tailerlean landuko den ideietako bat.



Irakurketa Erraza

Apirila, maiatza, iraila eta urria

Parte-hartzaile.
43

Topaketei esker, irakurtzeko gaitasun desberdinak dituzten pertsonak liburu bat formatu egokitu batean irakurtzeaz goza dezakete, eta partekatuko dute. Dinamizatzaile batek gidatutako istorioak. Irakurketa Erraza - Euskadiko Irakurketa Erraza elkartearekin batera bultzatutako dinamika honek irakurketa partekatua bultzatzen du ozenki, eta historiarekin eta testuaren ulermenarekin lotutako hainbat ariketa eta jarduera ere egiten dira.



Josune Urrutia

Honela ikusten dut neure burua

Maiatzaren 24 eta 25

Parte-hartzaile.
22

Fatxada Proiektua. Diseinua, ilustrazioa eta komikia-ren esparruan

Izenburu bera duen liburutik abiatuta, autorretratuari ekitea proposatzen du, nork bere burua ezagutzeko prozesu gisa, eta marrazkiaren bidez nork bere burua begiratzeko esperientzia bizitzea. Horretarako, artistak azaltzen duenez, «beharrezkoa da nork bere buruari baimena ematea prozesu honetan esperimintatzeko, jolasteko, aurkitzeko eta harritzeko».



Haur eta familientzako bisitak / tailerrak

Uztaila-Iraila

Parte-hartzaile.
93

Uztaila eta iraila bitartean hainbat hezkuntza-jarduera egingen dira haurrak eta familiak zentroko zenbait kulturaproposamenekin lotzeko. Bisitak / tailerrak dira, Mediateka Galearian Miriam Iasik duen instalazio artistikoaren eta Terrazan José Ramón Ais artistak diseinatu duen arboretoaren ingurukoak.



Asier Irazabal eta Hernán Quipildor

Arimaren giltza

Urriaren 19 eta 20

Parte-hartzaile.
11

Fatxada Proiektua. Diseinua, ilustrazioa eta komikia-ren esparruan

Hobeto ulertuta eta enpatia garatuta, intuizioak sustatzea da tailerraren helburua, pertsonen hobeto ulertzen eta iza-tearen kontzientzia zabaltzen laguntzeko.



Komikiari buruzko ezinbesteko elkarrizketak

Urria- abendua


Parte-hartzaile.

29

ivoox.

1.900

Komikiteka abiarazteko prozesuaren barruan, urritik abendura bitartean, lehen bitartekaritza-zikloa egingo da, komiki amerikarraren, europarraren, espainiarraren eta mangaren munduko ezinbesteko figuretako batzuen inguruan. Mediateka BBKren bildumaren parte dira guztiak. Topaketa hauek eleberrri grafikoaren zaleei eta diziplina hau ezagutzen hasi nahi dutenei zuzenduta daude.



Ekosystem: Birziklapena arte bihurtuta

Abenduaren 28tik urtarrilaren 5era

Parte-hartzaile.

30

Mediatekak EKOsystem proiektua jarri du abian, 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako jarduera-programa, literaturara eta arte garaikidera hurbiltzea sustatzen duena, material birziklatuen bidez.



BITARTEKARITZA ETA HEZKUNTZA

4.500
parte-hartzaile

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok, Kultura Garaikide eta Gizarteko Zentroak, pertsonen eta kultura garaikidearen arteko loturak sortzea du helburu, testuinguruan eragiteko, eta gizarte sortzaileagoa, kritikoagoa eta desberdinagoa eraikitzen laguntzeko. Helburu hori lortzeko bidean aurrera egite aldera, funtsezkoa da hezkuntzaren eta bitartekaritzaren esparrua, aukera ematen baitigu programazioaren edukiak publikoengana hurbiltzeko hainbat formaturen bidez, hainbat komunitarekin berariaz lan egiteko, eta espazioak irekitzeko topaketa, elkarrizketa eta hausnarketa kolektiboa lantzeko.

Artea eta kultura gizartea eraldatzeko tresna baliotsuak dira sinetsita egiten dugu lan. Kultura beti da topagune bat, galderak egiteko eta hausnarketak zabaltzeko, ezagutzak partekatzeko eta jakintza berriak sortzeko. Funtsezko bidea da eztabaida sustatzeko, espiritu kritikoa pizteko, lotura sozialak indartzeko eta gizarte kohesionatuagoak lortzeko.

2021ean, hezkuntza eta bitartekaritzaren esparrua bultzatu da Zentroan, hainbat arloren arteko zeharkako lan estrategiko gisa, eta Programa Proiektuaren helburuak betetzeko.

Hezkuntza- eta bitartekaritza-jardueren programa Zentroaren programazio-ildoan inguruan egituratzen da: arte bisualak, eszenikoak, zinema eta ikus-entzunezkoak eta literatura, eta gizartea eta kultura digitalak zeharkako espazio gisa hartuta. Ardatz horien inguruan definitzen diren jarduerak programazioa hedatzen dute, publiko desberdinegana hurbiltzen saiatzen dira, eta, aldi berean, espazio berriak irekitzen dituzte programazioa osatzeko eta hedatzeko.

2021ean bitartekaritzako ekintza eta programa espezifikoak planteatu dira: gonbit egin genien gure testuinguruan bitartekaritzan adituak diren bi kolektibori, Tipi eta Artaziak-i, prototipo bat, proiektu esperimental bat, gara zezaten.

Artaziak-ek bitartekaritza aztertu zuen Zentroan, eta proposamen bat egin zuen aukera berriak planteatzeko, hezkuntza eta bitartekaritzako ekintza eta programa espezifikoek bidez.

Tipik *Inventario del rellano*, *Un inventario de lo invisible* (Tranpalaren inbentarioa, ikusezinaren inbentarioa) izenburuko proiektua planteatu zuen. Adin guztietako pertsonen irekitako hainbat saioen bidez, azterketa parte-hartzaile bat proposatu zuen, entzuteko eta testuingurura hurbiltze-

ko beste modu batzuk aktibatzeke, eta beste kontakizun batzuk eraikitzeke, itxuraz hutsala dena, ikusten ez dena, abiapuntu gisa hartuta.

Halaber, bitartekaritzaren ikuspegia nabarmendu behar da, sorkuntzari laguntzeko programan, bertan hogeita hamar artista ingururi ematen baitaizkie laguntza eta baliabideak proiektuak garatzeko. Sorkuntza-prozesuetan, irekiera-uneak sustatzen dira, beste kultura-eragile batzuekin eta publiko desberdinekin konektatzeko, tailer, hitzaldi, topaketa eta abarren bidez. Gainera, proiektu horietako batzuk bitartekaritza-proiektuak dira berez. Hala nola, Josune Urrutiaren *Crónicas complejas* (Kronika konplexuak) proiektua, Babestu. Sorkuntzari laguntzeko programaren barruan dena. Horretan, lankidetzan aritu zen Gurutzetako Ospitale-



ko etxeko ospitalizazio-zerbitzuarekin, gaixotasun bat duten gazteei gonbit egiteko beren esperientziari buruzko kontakizunak bateratzera.

Edo Sra. Polarioska (Alaitz Arenzana eta María Ibarretxe) Azkuna Zentroko artista AZkideen Consejo de sabias (Jakintsuen kontseilua) proiektua, hainbat arlotako profesionalak diren adineko emakumeen esperientzia partekatu, eta gogoeta sortu nahi zuena zahartzeko moduen inguruan.

Bestalde, 2021ean, areago indartu da Zentroaren hezkuntza-estrategian lehentasuna duen publiko batekiko harremana: eskola-komunitatearekikoa. Ikastetxeekiko lankidetzaren helburua da instituzioaren espazioak ikasleei eta irakasleei zabaltzea, lengoaia berriez jabetzeko, haien sentsibiltate artistikoa eta sormena zabaltzeko edo gizar-

te garaikideko hainbat gairi buruz hausnartzeko, kulturatik abiatuta. Azken batean, funtsezko bidea da haur eta gazteek artearekin duten lotura garatzeko.



Roma akademia. Ibilbide ludikoak.

ARTISTAK ETA PROGRAMAZIOAREN KONPLIZEAK

MABI REVUELTA • SUSANA BLAS • TXUSPO POYO • IÑIGO ORDOZGOITI • ANA LAURA ALÁEZ • BEATRIZ ESPEJO • CA2M - MANUEL SEGADÉ • CA2M - PALOMA RUBIO • CA2M - ASUNCIÓN LIZARAZU DE MESA • CA2M - VANESSA POLLÁN • JESÚS DONAIRE • MARÍA MILANS DEL BOSCH • AECID - ÁLVARO CALLEJO ROALES • AECID - ELVIRA XXX • JOSÉ RAMÓN AMONDARAIN • TAXIO ARDANAZ • ITZIAR BARRIO • IGOR BRAGADO • ANDREA CANEPA • NICOLÁS COMBARRO • ISOLINA DIAZ • LARA DOPAZO • SILVIA FERNÁNDEZ • MARÍA ÁNGELES FERRER • PABLO FIDALGO • PEDRO G. ROMERO • BEGOÑA HUERTAS • JULIA HUETE • MARIA MORALEDA • JORGE GALÁN • MARTA RAMOS-YZQUIERDO • ESTÍBALIZ SÁDABA • FERNANDO SÁNCHEZ-CABEZUDO • BORJA SANTOMÉ • ANNA TALENS • M^a DEL MAR VILAFRANCA • ANTONIO VIZCAÍNO • JOSÉ RAMÓN AIS • CARLA BERROCAL • ANTONIO BUCHANNAN • ANA BUSTELO • JOANA CERA • JORGE CUBERO • FEDERICO GUZMÁN • SUSANNA INGLADA • MONTSERRAT LASUNCIÓN • JANA LEO • JORGE LUIS MARZO • IRENE CLÉMENTINE ORTEGA • JAVIER PIVIDAL • ENRIQUE RADIGALES • PANTXO RAMAS • ADOLFO SERRA • BEGOÑA SOTO VÁZQUEZ • CLAUDIO SOTOLONGO • EDUARDO SOUTULLO • JAVIER VERDUGO • MANUEL VILAS • ANA ZAMORA • IVÁN GÓMEZ • KAREN RIVAS • ANDREA ÁLVAREZ • IVÁN URETA • LUCÍA PEDREGAL • NIEVES BARRENETXEA • BERNARDA B. GARMENDIA • XABIER BARRUTIA • SILVIA CABRILLA • JULÉN IBÁÑEZ • IDOIA LEACHE • MALE LÓPEZ • JOEY O.R. • TRACTORA KOOP E. / USUE ARRIETA • TRACTORA KOOP E. / AINARA ELGOIBAR • ANDRÉS DUQUE (KINU #4) • IMOGEN STIDWORTHY (KINU #5) • UTE AURAND (KINU #6) • OSCAR GOMEZ MATA - L'ALAKRAN • LAIDA LERTXUNDI • SRA. POLAROISKA / ALAITZ ARENZANA • SRA. POLAROISKA / MARIA IBARRETXE • USOA FULLAONDO • SIRAH BADIOLA • KEIRA GREEN • ALEX ALONSO • CLARA SCHULMANN • REN EBEL • ARANTXA URRETABIZKAIA • HIGINIA GARAY • MARGARITA LEDO • RUTH JUAN • ROSA MARÍA CALAF • LEIRE URBELTZ • TERESA CATALÁN • RAISA ALAVA • TANIA ARRIAGA • IDOIA ZABALETA • ARRATE ETXEBERRIA • IRANTZU VARELA • ISABEL DE NAVERÁN • AIMAR ARRIOLA • CAMILA TELLEZ • ESZTER KATALIN • PABLO MARTE • SANDS MURRAY • MANU ARREGUI • BEGO KREGO • DANIEL HERNÁNDEZ • ARTISTA X ARTISTA - CARLOS GARAICOA • ARTISTA X ARTISTA - LILLEBIT FADRAGA • ARTISTA X ARTISTA - MARIAN GARCÍA • ARTISTA X ARTISTA - VICTORIA LOZANO • DAYANA TRIGO RAMOS • DANSATELIERS - KRISTIN DE GROOT • ARTOTEKA / LAURA DíEZ • ARTOTEKA / MARINA URRUTIKOETXEA • ARTOTEKA / IRANZU GUIJARRO • BELÉN CEREZO • HELENA GOÑI • JUANA GARCÍA • MAWATRES • RAISA ALAVA • RAQUEL ASENSI • RAQUEL MEYERS • SAIOA OLMO • TUNIPANEA • VICTORIA ASCASO • SOCIETAT DOCTOR ALONSO / TOMÁS ARAGAY • SOCIETAT DOCTOR ALONSO / SOFIA ASENCIO • SOCIETAT DOCTOR ALONSO / IMMA BOVE • SOCIETAT DOCTOR ALONSO / BEATRIZ LOBO • SOCIETAT DOCTOR ALONSO / KIM KIDOW • SOCIETAT DOCTOR ALONSO / RAÚL ALAEJOS • SOCIETAT DOCTOR ALONSO / ANA CORTÉS • ELENA AITZKOA • MAIDER ALDASORO • BORJA CRESPO • RAQUEL MEYERS • IRATI INORIZA • MIRIAM ISASI • SAHATSA JAUREGI • KARLOS MARTÍNEZ • JOSUNE URRUTIA • CAMILA TELLEZ • IKER VÁZQUEZ • VICTORIA ASCASO • MARÍA BENITO • LIDIA ZOILO • BLANCA ORTIGA • JONATHAN GARCÍA • ANDER PÉREZ • MARIO PANIEGO • JAVIER ARBIZU • ALBERTO DE LA HOZ • MIGUEL ALVAREZ • MABI REVUELTA • SUSANA BLAS • ANTONIO GUDE • LUIS FRANCISCO PÉREZ • ANA LAURA ALÁEZ • BEATRIZ ESPEJO • PAUL B. PRECIADO • MARIA JOSÉ BELBEL

• ÁNGEL BADOS • SONIA FERNÁNDEZ PAN • IVÁN DE LA NUEZ • CRISTINA DE MIDDLE • VERONICA GERBER BICECCI • KIKO FAXAS • GONZALO ELVIRA • VALERIE MRÉJEN • KURT CAVIEZEL • ALICIA KOPF • GLENDA LEÓN • JOAN FONTCUBERTA • GUILLEM NADAL • MABI REVUELTA • OIER ETXEBERRIA • ISIDORO VALCARLOCEL MEDINA • MARTA MANTECÓN • KRISTINE GUZMAN • PATXI EGUILUZ • ARANTXA PEREDA • MIKEL BILBAO • BEÑAT SARASOLA • IÑAKI ESTEBAN • IVAN DE LA NUEZ • ANGERU EPALZA • AIXA DE LA CRUZ • ALEXEI YURCHAK • ANJEL LERTXUNDI • DAMIAN TABAROVSKY • ERNESTO CASTRO • IXIAR ROXAS • MARI LUZ ESTEBAN • KATIXA AGIRRE • MARTA PEIRANO • MARTA REBÓN • PAUL B. PRECIADO • TXOMIN BADIOLA • AIMAR ARRIOLA • MANU ARREGUI • CAMILA TELLEZ • ESZTER KATALIN • PABLO MARTE • SANDS MURRAY • SRA. POLAROISKA / ALAITZ ARENZANA • SRA. POLAROISKA / MARIA IBARRETXE • DOLORES JULIANO • ABIGAIL LAZKOZ • AMAIA LASA • CONXITA HERRERO • GARBIÑE MENDIZABAL • BEA APARICIO • LUISA MENÉNDEZ AGUIRRE • JUANA GARCÍA-POZUELO BARRIOS • ADELINA MOYA • NAIARA GOIKOETXEA • MAL PELO - MARÍA MUÑOZ • MAL PELO - PEP RAMIS • MAL PELO - GEMMA MASSÓ • OSCAR GOMEZ MATA - L'ALAKRAN • JUAN LORIENTE • MDV DANZA - MIKEL DEL VALLE • MDV DANZA - MARIO BERMUDEZ • MDV DANZA - POL JIMÉNEZ • EVA GARCÍA • ULALUME - ALMUDENA HEREDERO • SILVIA MARTÍNEZ SUÁREZ • LES IMPUXIBLES - MIREIA GRÀCIA BELL-LLOCH • CAMALEONICA PRODUCCIONS - QUIM ARAGÓ • CAMALEONICA PRODUCCIONS - PERE VILARRUBLA • NURIA GUIU • ENRIQUE HURTADO • MIGUEL A. GARCÍA • OIER IRURETAGOiena • MIKEL ITURREGUI • MYRIA RZM - Myriam Petralanda • MUDOH - Aitor Monje Garrido • MATÍAS RIQUELME • FERNANDO ULZIÓN • JANA JAN - ITZIAR MARKIEGI • EC - ESTANIS COMELLA • KILLER KUME Mikel Vega • KILLER KUME Joxean Rivas • VICTOR LARDÍES • TESTURA - Ander Mujika • RAFA MARTINEZ DEL POZO • JOHN RICHARDS • FRANCISCO LÓPEZ • ROSA CASADO • ELENA AITZKOA • ELSSIE ANSAREO • AMALIA FERNÁNDEZ • CATHERINE SARDELLA • NINES MARTIN • JAVIER CUEVAS • MAIA VILLOT • NAZARIO DÍAZ • LAIDA LERTXUNDI • REN EBEL • MAIDER LÓPEZ • JOSUNE GARCÍA • DIEGO SOLOGUREN • SÉBASTIEN TRIPOD • JOSE RAMON AIS • EGEDA - OSCAR BERRENDO • INSTITUTO FRANCÉS • ZI-NEMALDIA - JOSE LUIS REBORDINOS • RUBEN CORRAL • ITXASO DÍAZ • MELISA LIEBENTHAL • DAVID RODRÍGUEZ • RAÚL RIEBENBAUER • RAFHAEL BARBOSA & WERNER SALLES • ALEXIA GIL & NATALIA GUERRERO • AITZIBER OLASKOAGA • LORETO SAINZ Y ADRIÁN DÍAZ • ANA SCHULZ & CRISTOBAL FERNÁNDEZ • CARMEN GRANXEIRO • POL MERCHAN • LYNNE SACHS • CANDELA CIENFUEGOS • JUAN PALACIOS • JAIME DE LOS RÍOS • PEZ ESTUDIO - ELISA DE LOS REYES • ARANTXA PEREDA • TIPI / ANE RODRÍGUEZ • TIPI / ITSASO LARRAMENDI • TIPI / ANE ABARRATEGI • ARTAZIAK / Oihane Espuñez • ARTAZIAK / Mainer Urrutia • MAWA3 - JUAN PABLO ORDÚÑEZ • ANDREA ESTANKONA • IÑAKI ESTEBAN • BEÑAT SARASOLA • IVAN ERNESTO DE LA NUEZ CARRILLO • ANARI ALBERDI • IÑIGO ASTIZ • OLGA NOVO • MIREN AGUR MEABE • MARTHA ROSLER • MARCELO EXPOSITO • INMA PRIETO • KAOUTHER ADIMI • MARGARYTA YAKOVENKO • MÓNICA OJEDA • ITXARO BORDA • YURI HERRERA • ARRATE HIDALGO • MARTA PEIRANO • EIDER RODRÍGUEZ • KATIXA AGUIRRE • AIXA DE LA CRUZ • HAIZEA BARCENILLA • MARTA REBÓN • ALEXEI YURCHAK • SANTIAGO GERCHUNOFF • AMETS ARZALLUS • IBRAHIMA BALDE • GOIZALDE LANDABASO • DAVID LE BRETON • ANNA MARÍA IGLESIA • LARA MORENO • TXANI RODRIGUEZ • MARTICA MINIPUNTO • SALAH MALOULI • DAMIAN LUCIANO TABAROVSKY • CONTINTA ME TIENES - MARINA BELOQUI • CONTINTA ME TIENES - SANDRA CENDAL • KATKRAK - HEDOI ETXARTE MORENO • PEPITAS DE CALABAZA - JULIÁN LACALLE • SUSANA LITERATURA - LEIRE LÓPEZ ZILUAGA • HOJA DE LATA - LAURA SANDOVAL BORRÁS • TRÁNSITO EDITORIAL - SOL SALAMA • SANS SOLEIL - ANDER GONDRA • TXALAPARTA - GARAZI ARRULA RUIZ • EDITORIAL BERRETT - ZACARÍAS • MARIA LUZ ESTEBAN • NAJAT EL HACHMI • ENEKO AIZPURUA • ANJEL LERTXUNDI • GLENDA LEÓN • CRISTINA DE MIDDLE • JOAN FONTCUBERTA • ALICIA KOPF • GONZALO ELVIRA • MARCO D'ERAMO • JOSUNE URRUTIA • LEIRE URBELTZ • ASIER IRAZABAL • HERNAN QUIPILDOR • CARLOS VAZQUEZ • EUGENIO PUERTO • MITUSU / ESTITXU BEISTEGUI • LA FUNDICIÓN / LAURA ETXEBARRIA • ADDE / LUCIANA CHEREGATI • ION MUNDUATE

PROIEKTU
ESTRATEGIKOAK

Connect

Todo será igual.
Nada será igual.

Imajinatu

Entzun

Hezitu

Inventa

ARTE ETA KULTURA GARAIKIDEKO PRAKTIKA ETA TEORIAKO BEREZKO MASTERRA



Elena Aitzkoa. Lendia Song (Babestu 2020).

Esparru honetan, 2021 ean amaitu da arte eta kultura garai-kideko praktika eta teoriako lehen masterra abian jartzeko prozesua. Azkuna Zentroak - Alhóndiga Bilbaok emango du masterra, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan. Programak behar den prestakuntza eskaintzen du kultura-ekoizpenaren errealitate berria ulertzeko eta lantzeko, ikuspegi aplikatu eta berritzaile batetik, batera uztartzen baititu zorrotasun akademikoa eta kultura-espazio bateko eguneroko praktika. Horrela, prestakuntza testuinguru errealean kokatzen da, arte- eta kultura-erloto berrogei profesional baino gehiagoren esperientziaren eta ezagutzaren eskutik.

Kultura-kudeaketaren, komisariotzaren eta proiektuen ekoizpenaren alderdi guztien ezagutzak, tresnak eta trebetasun espezifikoak eskaintzen ditu, gizarte eta kultura garai-kideko zentro batean. Programak gaitasuna ematen du proiektu artistiko bati osorik ekiteko: proposamena aurkezten denetik administrazio- eta finantza-kudeaketaraino, ekoizpen tekniko, marketin- eta komunikazio-plana eta kultura-instituzio publiko eta pribatuekin lankidetzaren sareak aktibatzea barne hartuta.

Master berria 2022-2023 ikasturtean hasiko da ematen. Proposamena da kultura garai-kideko zentro baten kudeaketaren benetako testuinguruan murgiltzea, arte- eta kultura-erloto berrogei profesional baino gehiagoren esperientziaren eta ezagutzaren bidez.

Alde horretatik, gaitasuna ematen du proiektu artistiko bati osorik ekiteko: proposamena aurkezten denetik administrazio- eta finantza-kudeaketaraino, ekoizpen tekniko, marketin- eta komunikazio-plana eta kultura-instituzio publiko eta pribatuekin lankidetzaren sareak aktibatzea barne hartuta.

Programak beharrezko prestakuntza emango du kultura-ekoizpenaren errealitate berria ulertzeko, ikuspegi aplikatu eta berritzaile batetik; izan ere, batera uztartzen ditu teorikoa eta profesionalizazioa, zorrotasun akademikoa eta Alhóndiga bezalako kultura-zentro bateko eguneroko praktika.

Klaustroa osatzen duten profesionalak jardunean daude, eta ibilbidea eta esperientzia dituzte kultura-kudeaketaren eta prestakuntza akademikorekin hainbat arlotan. Haiek parte hartuta, batera bilduko dira ikerketa, zorrotasun akademikoa, pentsamendu kritikoa eta praktika.

AZ IRRATIA. AZKUNA ZENTROA - ALHÓNDIGA BILBAOREN IRRATIA



Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren programazioa kultura garaikidea zabaltzen, handitzen eta maximizatzen duten formatu berrietara hedatzen da. Az Irratia, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren irrateria martxan jartzearekin batera, Zentroak ahozotasunaren aldeko apustua egiten du, pentsamendua eta hausnarketa artistikoa transmititzeko uhal gisa hartuta.

2019-2023 Programa Proiektuan sartuta, Az Irratia irrati esperimental eta komunitarioa da, irratiaren kontzepturik tradizionalenetik urrutiratu eta podcastingaren egungo formatura bideratua. Kultura esperimentatzeko modu garaikide berri gisa proiektatzen da, praktika artistiko garaikideen inguruko soinu-sorkuntza eta hausnarketa bultzatuz. Zentroko programazio-ildoekin harremana duten atal eta gaiekin, baina, aldi berean, autonomiaz, sormen-proiektu gisa eta inguruko ahots eta soinuak eta kulturaren eta praktika artistikoen beste une batzuk berreskuratzeko bide gisa.

Fisikoki Atariko erdiko kuboan kokatuta, soinu-leiho hau kanporantz zabaltzen da, Zentroan lan egiten duen eta

egoiliarra den testuinguru artistikoarekin elkartzeko espazio berri bat sortuz; eta Zentroko hormetatik eta hiritik harantz hedatzen da, edukien artxibo, soinuen banku bihurtuz.

Zentroko konplizeei gonbit egiten die kontakizunak ontzera, soinu-bide berriak osatzera eta entzuteko uneak sortzera. Soinu-pilula hauek, berez, sormen kolektiboko ariketak dira, alde batetik, irratiaren – performancearen edo irrati-magazinaren tradizioa balioesten baitute eta, aldi berean, gonbit egiten baitiete beste ahots batzuei podcastingarekin lehen aldiz esperimentatzeko.

Proiektu berri honek balioetsi egiten du Zentroko komunitate artistikoa osatzen duten sortzaile, komisario eta eragile sozial eta kulturalen konplizitatea. Haren begiradari eta proposamenei esker, Az Irratia nazioarteko izaera duen bertako irrati bat da, eta haren narratibek eta konposizioek muga geografikorik ez duen hurbileko komunitatea sortzen dute.

SORKUNTZA ETA EKOIZPEN ARTISTIKOARI LAGUNTZEKO PROGRAMAK

33

artista eta ikertzaile egoilarrak



Sra. Polaroiska. Emakume jakintsuen kontseilua. Artistas AZkideak Asociadas a AZ

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok ikerketa, sorkuntza eta ekoizpen artistikoari laguntzeko hainbat ekimen garatzen ditu programazio-ildoei lotuta: arte bisualak, arte biziak, zinema eta ikus-entzunezkoak, literatura, kultura digitalak eta gizartea. Prozesu horiek guztiek beti dute alde publiko bat, eta publiko-komunitateei aukera ematen diete hausnarketa artistiko garaikidea egiteko, bai egindako lanaren bidez, bai sormen-prozesuen bidez.

Artea espazio guztietan sortzen da, erakusketa-aretoan edo Mediatekan ere bai, etapa berri honetan konektatzeko, pentsatzeko eta sortzeko leku gisa planteatu baita. Baina Lantegia. Ideien laborategia da Azkuna Zentroko sorkuntza

eta esperimentaziorako espazioa. Lan-habitat, esperimentazio-tailer bat da, eta, bertan, harreman-mota desberdinak ezartzen dira, trukea, prozesuak eta sorkuntza artistiko garaikideari bide emateko. Era berean, leku irekia eta sarbide askekoa da, prozesu horiek ezagutzera hurbildu nahi duten ikusle-komunitate guzientzat.

Sorkuntza bultzatzea Azkuna Zentroaren DNAn txertatuta dago, 2019-2023 Programa Proiektuaren bidez. 2021ean hori indartu nahi izan da, eragile eta erakunde kultural askorekin lankidetzan aritzeko bideak irekiz, artisten lana aktibatu eta aberastu ahal izateko.

Programas de apoyo y acompañamiento a la creación

Gonbidapenez

- Kolektibo egoiliarra
- Ikertzaile AZ kideak
- Artista AZ Kideak

Deialdi bidez

- Nazioarteko egonaldiak
 - Dantza, Praktika artistikoak, Komikia
- Lanean. Prozesu artistikoei laguntzeko programa
- Komisario Berriak. Komisariotza lantzeko programa
- Babestu. Sorkuntza garaikidean laguntzeko programa

Babestu. Sorkuntza garaikidea babesteko programa

Elkarlanean.

Fundación Banco Sabadell

Azkuna Zentroak sorkuntza garaikideari laguntzeko Babestu ezohiko programaren lehen deialdia egin zuen 2020an, COVID-19aren krisiak eragindako salbuespenezko egoerari erantzuteko, sortzaileek aukera izan zezaten pandemiaren ondorioz kaltetutako prozesuak eta ikerketak garatzen jarraitzeko.

2021ean, beharrezkotzat jo zen sorkuntza artistikoa bultzatzeko deialdia egiten jarraitzea, eratzeko-prozesu horiek indartzea eta pertsonei beren proiektuak garatzen lagun egitea.

Bigarren edizio honetan artista hauen proiektuak aukeratu dira: Victoria Ascaso, M Benito Píriz, Jonathan García Lana / Tunipanea, Blanca Ortiga, Ander Perez Puelles eta Lidia Zoilo González / Macarena Recuerda Shepherd.



Elena Aitzkoa. Lendia Song (Babestu 2020).

M Benito Píriz

El panda más dramático del mundo

“El panda más dramático del mundo” mugikorraren ohar-blokean idatzitako liburu bat da. Idazteko modu ez hain arduratsua bilatzen da, non ideiarik inozoena benetakoena izan daitekeen, eta aukera egin daitekeen ur edalontzi batean itozteko min sakonik erakutsi beharrik gabe. Literaturaren egiturak hautsi, idazteko modu fresko eta erakargarri bat bultzatzeko, esaterako, mugikorraren hiztegi predikti-boa edo hizkuntza inklusiboa erabiltzea.

Blanca Ortiga

Shifter!

Eskulturaren eta performatibitatearen arteko harreman-puntuan kokatzen den Shifter! ikerketa- eta sorkuntzaproiektuak –hizkuntza-tradizioak abiadura-palanka itxurako gailuari esateko darabilen terminoa– desbideratzean jartzen du arreta, hor egoera eskultorikoak eta ekintza ingurune performatiboetan artikulatzen baitira. Hortxe, desbideratze-ko une horretantxe, hartu nahi du lekua Shifter! Proiektuak.

Lidia González Zoilo / Macarena Recuerda Shepherd

Cosa. Intervenir un cuerpo

“Cosa” esku hartutako gorputzari buruzko ikerketa bat da. Laborategi koreografiko bat, material eta objektu desberdinekin interpretearen gorputzari nola eragin dakiokeen ikertu nahi duena, irakurketa ugari sortuz. Konposizioaren bidez eta material desberdinak erabiliz, gorputza nola eraldatzen den ikusiko dugu. Hiru ikerketa-lerro irekiko ditugu: forma, mugimendua eta soinua; begirada eta behatzen duenaren iruditerian sortzen dituen interpretazio posibleak izango ditugu ardatz.

Victoria Ascaso

So sad today

“So Sad Today” gaur egungo kultura digitalen inguruko ikerketa-proiektu transdiziplinarra da, eta mundu fisikoan garatutako identitateen eta pertsona bakoitzaren mundo digitaletan garatutakoen artean sortzen den frikzioa du ardatz. Proiektuak “disforia digitala” jorratzen du, gure ni digitalarekiko disoziazioak sortutako ondoez sentsazioa bereizgarritzat duen kontzeptua.

Jonathan García Lana / Tunipanea

El íntimo ritmo del azar: diálogos entre máquinas imperfectas

“El íntimo ritmo del azar” ikerketa artistiko pertsonaleko prozesua 2020ko maiatzean hasi zen, ziurgabetasun eta ezegonkortasun sozial handiko une batean. Soinu-instalazioa bezalako ingurune batean ausazkoa denaren kontzeptuak dituen aukerak esploratzeko motibazioa da abiaburua.

Ander Perez Puelles

Ágil y un placaje

“Ágil y un placaje” proiektuak eta bera egiteko prozesuaren zati handi batek grabazioaren ezaugarriak eta mugimendua ikertzen ditu, jolasetik bertatik abiatuz, errealtatearen aldi baterako baliogabetzaile gisa hartuta. Prozesuaren fase honetan, grabazioetarako tresnak eraikitzean jarriko da arreta.

Artista AZ kideak

Programa honek laguntza ematen dio sorkuntza artistikoari, beren lanetan lengoia artistikoei buruzko begirada inspiratzailea duten eta ibilbide sendoa egina duten edo azaltzen ari diren sortzaileak sustatuz eta bultzatuz.

Lankidetzarako marko bat berria, zentroaren programazio-ildoekin bat datorrena, kultura garaikiderako eta sormen-prozesuen babeserako sarbide-plataforma izatea indartzeko.

Sra.Polaroiska (Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe)

Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe dira Sra. Polaroisken sortzaileak. Haien lanean, beste espazio eta hizkuntza batzuk bilatzen dituzte, eta gorputza eta kokatuta dagoen espazioarekin gorputzak duen harremana dira beti protagonista nagusiak.

2019. eta 2021. urteen artean, "Jakintsuen kontseilua" proiektua garatu dute Zentroan, hainbat arlotako profesionalak diren adineko bederlatzi emakumerekin egindako topaketan zikloa. Elkarrizketen bidez, emakume horiek beren bizi- eta lanbide-esperientziak transmititu eta partekatu dituzte, eta erreferente gisa agertu dira. Proiektua "Jakintsuen kontseilua" fanzine hedatuarekin amaitzen da.

Oscar Gómez Mata

Oscar Gómez Mata artista, egile, aktore eta zuzendariak Azkuna Zentroko artista AZkideen programan parte hartzen du, eta 2021ean "Deriben laborategia" proiektua amaitu du Espe López artistarekin batera.

Laida Lertxundi

Laida Lertxundi Artista AZ-Kidea da 2021etik 2023ra. Artista eta zinemagilea da, eta Los Angelesen eta Euskal Herrian bizi eta lan egiten du. Zorroztasun kontzeptuala eta plazer sentsuala uztartuz, bere filmek lurraren eta gorputzaren arteko paralelismoak egiten dituzte, plazer eta esperientzia gune diren aldetik. Bere lanak hemen erakutsi dira: Whitney Biennial, NY, Hammer Museum, LIAF Bienal Biennale, Lyon, Frieze Projects New York. Eta hainbat museo eta galeriatan, besteak beste, MoMa, NY, Tate Modern eta Whitechapel Gallery, Londres, Angela Mewes Berlin, Joan Los Angeles, Human Resources Los Angeles, MAK Schindler House ICA Museo de Arte Moderno de Medellín Kolonbia, CCCB, PS1 MoMA, Museum of Contemporary Photography Chicago, Baltimore Museum of Art, Kunstverein, Hanburgo, eta Habanako Bienalean. Bere obra LUXek banatzen du Londresen, eta Reina Sofía Arte Zentroaren Museoko bildumaren parte da. 2020an euskal artearen Gure Arte saria jaso zuen.

Ikertzaile AZ kideak



Aimar Arriola, Pablo Marte.

Aimar Arriola

Aimar Arriola komisarioa “Forma-desira bat” proiektua garatzen ari da ikertzaile AZkide gisa zentroaren programazioaren barruan. Proiektuak artearen eta queer/kuir ikuspegiaren arteko harremana hartzen du esparru orokortzat, eta haren jarduna mugatzen du forma- eta interpretazio-gaien inguruan. Teoria kritikoaren eta gizarte-zientzien esparruan, queer/kuir ikuspegia deskribatzen da maskulinitateari eta feminitateari buruzko konbentzio sozialak zalantzan jartzen dituen perspektiba gisa, horiek desnaturalizatzen, eta borroka feministen, antirrazisten eta dekolonialen eta LGBTIQ+ borroken iraganaren eta orainaren arteko elkarriketa bilatzen baitu. Baina, zer da queer/kuir perspektiba arteari eta haren espezifikotasunari dagokionez? Nola hurbildu formaren eta sentikortasunaren esparruetatik queer/kuir perspektibara?

Urtebete igaro da ikerketa hasi zenetik, 2021 ean proiektua bi eremu edo arloren elkargunean dago, eta gune edo eremu horiek bata bestearengana bultzatzen dira. Alde batek, hausnarketa jarraitua dago “forma” kategoriari buruz, eta desira eta arrarotasunaren nozioek dualismoak birpentsatzen laguntzen diguten moduari buruz, hala nola makurrak, azalera-sakonera, edo jarduerak pasibotasuna –gorputz gisa eratzten gaituzten eta inplikazio politikoak dituzten bereizketak-. Bestalde, esperimentazioa dago, ikerketa-metodo propio batekin, aldi berean diskurtsiboa, plastikoa eta entzutekoa izan nahi duena.

Isabel de Naverán

Isabel de Naverán Ikertzaile Az-Kide berria da 2021etik.

Artean doktorea da UPV/EHU, eta Artes ikerketa-taldeko kidea Madrilan. Arteak, koreografia garaikidea eta performancea lotzen dituen bidegurutzetan ikertzen ari da, kuratortzako, edizioko eta idazketako proiektuetan. Ikertzaile AZ-kide gisa, La ola en la mente proiektua garatuko du, idazketa somatikoa oinarritua, entzuteko eta kuratortzako modu gisa.

Kolektibo egoiliarren programa

Sorkuntza eta ikerketa artistikoari laguntzeko programa bat da, kultura garaikidearekin zerikusia duten talde, kolektibo artistiko eta kooperatibei zuzenduta, beren proiektu artistikoak zentroan bi urtez gara ditzaten.

Tractora Koop. E

Tractora artisten kooperatiba 2020-2022 Azkuna Zentroko kolektibo egoiliarra berria da.

Usue Arrieta eta Ainara Elgoibar, Mark Vives eta Vicente Vázquez artisten ikus-entzunezko ekoizpenak programatu, ikusi eta eztabaidatzeko plataforma gisa sortutako proiektu honen parte dira.

Hiru hilean behingo topagunea, artista bat bere lana erakustera gonbidatzeko eta harekin batera lan-saio bat egiteko, praktika-mota horri eta haren berezitasunei buruz taldean gogoeta egiteko.

Tractorak Kinu proiektua garatzen du zentroan, ikus-entzunezko proiektuaren saioak eta autoprestakuntzako lan-taldeak, arteko mugimenduko irudiaren edo artist moving image-ren inguruan.

Komisario Berriak. Komisariatuak garatzeko programa

Komisario Berriak komisariatuzaren praktika bultzatzeko eta artearen munduko profesional berriak sortzen eta sendotzen laguntzeko Eusko Jaurlaritzak duen programa da. Aurtengo deialdiaren bidez, Azkuna Zentroak eremu hedatuko kultura-kuradoretzaren aldeko apustua egin zuen, baita diziplinen arteko trantsituaren kontzepzio artistikoa hedatzeko gaitasuna zuen komisariatuaeren alde ere, Javier Arbizu.

Lanean. Prozesu artistikoei laguntzeko programa


Lanean. Prozesu artistikoei laguntzeko programaren helburua da deialdi irekia egitea, gonbidapen bidez, obra eszenikoak ekoizteko. Lanean programaren bidez, sortzaileek beharrezko baldintza material eta espazialak dituzte arte biziarekin lotutako proiektuak garatzeko, eta Zentroaren programazioa ere bai, horiek garatu eta Azkuna Zentroan aurkezteko.

Societat Doctor Alonso Hammamturgia

Hammamturgia eszena-formatuko ikerketa-prozesu berri bat da, "hammamturgia"ri buruz hausnartzen duena, dramaturgiaren bestea bezala ulertuta

Artoteka

Espacios cotidianos para el arte. Artoteka plataformak artelanen mailegua eta bitartekaritzako jarduerak eskaintzen ditu sortzaileekin, artea eguneroko bizitzara eta era askotako ikuslerengana hurbiltzeko.



Lantegia. Ideien laborategia

Nazioarteko egonaldiak

Sorkuntza garaikidea sustatzeko programak hurbileko sormen-sarea lotu nahi du homologagarriak diren nazioarteko kultura-inguruneekin, truke, harreman eta lankidetzara iraunkor eta elkarrekikoen bidez.

Horretarako, ezinbestekoa da sarean lan egitea, lehen mailako gune eta proiektu garaikideekin. Hainbat partnert-en laguntza du, besteak beste, Etxepare Institutu eta Banco Sabadell Fundazioarena.

Komikiaren Nazioarteko Lehen Egonaldia

2021ean, Azkuna Zentroak komikiaren nazioarteko lehen egonaldia deitu du, Quebec-eko Maison de la littérature-rekin eta Angulemako Cité internationale de la bande dessinée et de l'image-rekin batera, komikiaren esparruan sorkuntza sustatzeko eta hainbat herrialdetako pertsonen arteko elkarketa bultzatzeko, eleberrigrafiakoaren funtsezko ingurune profesionaletan, beste diziplina garaikide artistiko batzuetako artistekin konektatuz.

Lehenengo edizio honetan, Higinia Garay, Marine des Mazery eta Jimmy Beaulieu izan dira hautatuak, eta, beraz, 2022an izango dute egonaldia, Anguleman, Bilbon eta Quebec-en, hurrenez hurren.

Lan partekatuko tailer bat egingo dute hiri bakoitzean, bi daiekin eta ostatuarekin batera, eta 4.500 euroko zuzkidura ekonomikoa egonaldiaren iraupena ordaintzeko.

ARTE BIZIETARAKO ESPAZIO BERRIAK: KUBO BALTZA





2021ean Kubo Baltza jarri da abian da Lantegian, Ideien Laborategian. Agertoki berri honek aukera ematen du eszenari beste era batez begiratzeko. Agertoki ez-konbentzionala da, berariaz pentsatuta dago arte bizien praktika garaikideak garatzeko, antzerkia eta performancea, dantza eta mugimenduaren arteak.

Kubo Baltzan, publikoaren eta artisten banaketa ausazkoa izan daiteke espazio osoan; hala, ikuspegi desberdinak eskaini, eta bide eman dezake errepresentazio artistikoan murgildutako esperientzia izateko.

Bere moldakortasunari esker, ikusleak ekintza eszenografi-kora hurbil daitezke, ikuslearen rol bakarra gaindituz, piezarekin elkarriketan hasi, eta konplizitatea izateko.

HARREMAN INSTITUZIONALAK



Roma Akademia. Inaugurazioa

Azkuna Zentroak jardura instituzionalari eutsi dio, tokiko zein nazioarteko sorkuntza artistikoko eta kultura-arloko beste erakunde eta espazio batzuekin lankidetzaren sare berriak mantendu eta irekitzeko helburuarekin. Aurtengo harremanen artean, nabarmentzekoa da AECID Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziarekin, Erromako Espainiako Errege Akademiarekin eta INAEM Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalarekin izandako lankidetzak.

Bestalde, Azkuna Zentroak, Artium eta Tabakalerarekin batera, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak bultzatutako “Komisario Berriak” proiektuan parte hartzen du. Ekimenaren helburua da komisariotzaren praktika garatzea eta profesional berriak sortzen eta finkatzen laguntzea.

Era berean, Azkuna Zentroa Escena sarearen parte da (Titulartasun Publikoko Antzoki, Auditorio, Zirkuitu eta Jaialdien Espainiako Sarea), zeina arte eszenikoen eta musika-

ren sektorea sustatzen saiatzen baita, herritar guztientzat eskuragarriagoa izan dadin. Zentroa Bilbao Convention Bureau-ren bazkidea ere bada. Horren xedea da hiria korporazio- eta elkarte-bileren egoitza gisa sustatzea, eta zentroa aliatu estrategikoa da erakunde antolatzaileentzat.

Sare berriak irekitzeko estrategian sartzen dira beste espazio batzuekin erakusketak batera ekoizteko akordioak, hala nola “Ana Laura Aláez. Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik” erakusketarako Centro de Arte 2 de Mayo -CA2M zentroarekin egindakoa, eta Mabi Revuelta artistaren “Akromatika. Partida hilezkorra” erakusketarako Tabacalera. Promoción del Arte (Madril) zentroarekin egindakoa; Gaztela eta Leongo Arte Garaikideko Museoarekin - MUSAC (Leon) Isidoro Valcárcelen “Arquitecturas prematuras” proiekturako; eta Bartzelonako Kultura Garaikideko Zentroarekin - CCCB María Ptqkren “Ciencia Fricción” proiekturako. Gainera, harremanak izan dira nazioarteko instituzioekin, besteak beste, Boultek-Centre des Músiques

Actuelles (Maroko) eta La Platako Unibertsitatearekin (Argentina), Gutun Zuria. Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia egiteko; eta Cité internationale de la bande dessinée et de l'image (Angulema) eta Maison de la Littérature-rekin (Quebec), Komikiaren Nazioarteko Egonaldirako.

Halaber, akordioak mantentzen dira Carlos Garaicoa (Havana) estudioko Artista x Artista programarekin, Praktika Artistikoen Egonaldia garatzeko, eta dantza sortu eta erakusteko Dansateliers zentroarekin (Rotterdam, Herbeherak), Dantza Garaikidearen Egonaldirako. Zentroa lanean

ari da sare berriak eta proiektu berriak irekitzeko, hala nola nazioarteko komikiaren egonaldia, Maison de la littérature de Quebec (Kanada) eta Maison de la littérature eta Cité internationale de la bande dessinée et de l'image de Angoulême (Frantzia) zentroekin lankidetzan.

Babesleen arloan, BBK Fundazioarekiko akordioa berritu da, Mediateka BBK-ko erabiltzaileentzako zerbitzuari eta programazioari lotuta, bai eta BEAZekin ere, diseinatzailerak ikusarazteko ekintzak egiteko, Azkuna Zentroko den-dAZen proiektuaren esparruan.

Nazioarteko harremanak eta sareak

Aurten, Azkuna Zentroa parte hartzen hasi da ACuTe. Adaptable Culture Testbeds for Interactivity, Performance and Technology proiektuan. Proiektu multidiziplinario eta multi-trans hori arteetan, oro har, eta, bereziki, berrikuntzan eta teknologian inplikaturako performing-art-etan ardaztuta dago.

2021ean, Azkuna Zentroa nazioartekotzeko proiektu estrategiko bat ere landu da. Horretarako, Harbours for Arts & Cultures proiektua egin da, eta AZrentzat estrategikoak izan daitezkeen Europako hiriak/eskualdeak identifikatu dira, balio eta ibilbide komunak dituztenak: Porto, Bordele, Flandes, Rotterdam. Hiri horietako bakoitzean, gure programazioarekin sinergiak dituzten kultura-zentroyen bilaketa eta mapaketa bat egin da, izan litezkeen lankidetzari begira. Hautaketa egin eta lehentasunak finkatu dira, laster bidaia-agenda bat egiteko. Zentro horietako bakoitzaren fitxa bat egin da.

Inpaktuaren azterketa

11 urtez jardunean egon ondoren, Azkuna Zentroak Bilbo-Bizkaiari egin dion ekarpena balioetsi beharra dago. BBK-k egindako azterketaren arabera, ekarpena lau arlotan islatzen da. Arlo sozialean, gizartea kultura garaikidearekin lotzeko hartutako konpromisoagatik, kirola eta osasuna sustatzeagatik, eta hainbat auzoren arteko lotura gisa lortu duen kohesio sozialagatik. Arlo kulturean, eskaintza era askotakoa delako eta praktika garaikideetan ardaztuta dagoelako, tokiko sarearen profesionalizazioa bultzatzen delako eta Bilbo kultura-hiri gisa kokatzeko funtsezko eragile egituratzailea eta laguntzailea delako. Arlo ekonomikoan, Bilbo nazioartekotzeko eta Bizkaiko kultura-sarearen bidez tokiko ekonomia bultzatzeko eragile aktiboa delako, eta bere eraginpeko eremuan sortu duen hirigintza-errealizazioagatik eta -berroneratzeagatik. Eta Euskadi herrialdearen marka gisa, eraikinaren balio historiko eta arkitektonikoagatik, bere jarduerak garatzeko nazioarteko lankidetzaren sareak sortzeagatik, eta nazioarteko ikusgarritasuna duten jardueren eta programazioaren egoitza izateagatik.

Gainera, egiaztatu da Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren jarduerak zuzenean laguntzen duela Nazio Batuen 2030eko Agendan ezarritako Garapen Jasangarriko Helburuak lortzen.

PUBLIKOAK

80.808

arreta-eskaera kudeatu dira

998

lagunek parte hartu dute bisita gidatu eta iruzkinduetan

22

zorion-emate jaso dira

Batez beste **4,74 / 5**
puntuazioa jaso da



Roma Akademia..

Azkuna Zentroak – Alhóndiga Bilbaok aurrera jarraitzen du, publiko aktiboagoen eta erabiltzaile egonkortu eta ase-beteen komunitateak sortzeko helburuarekin, eta, ildo horretan, etengabeko hobekuntza eskaintzen du arretan, eta 'jarduera' kontzeptua 'esperientzia eraldatzaile' bihurtzea proposatzen du.

Helburu horiek ezarri eta garatzen dira, erabiltzailea ardatz gisa hartuta, eta, horretarako, Erabiltzaileen Arretarako taldeari tresnak eta diskurtsoak ematen zaizkio, maila desberdinetan, premia bereziak ulertzen eta interpretatzen laguntzeko. Hala, gai dira Zentroak eskaintzen dituen aukeren bidez gidatzeko eta laguntzeko, eta esperientzia egokituak eta erakargarriak eskaintzen dituzte, baita horietan inplikatzeko aukera ere. Era berean, taldeak ondo daki zein diren antolakuntzaren helburuak eta laguntza ematen du proiektuen inpaktua maximizatzen.

Ekintza-ildo nagusiak bi ardatzen bidez ezartzen dira: erabiltzaileei arreta emateko berezko estiloa, talde ikusgarri eta ezagun batekin eta arreta proaktibo, hurbil eta elebidunarekin; eta publikoak eta publikoak ez direnak garatuz, bitartekaritza funtsezko tresna gisa hartuta.

Erabiltzaileen Arretarako arloak 2021ean egin dituen jarduera nagusien artean, bereziki nabarmentzen da kulturako publikoetan aditua den Pepe Zapatak zuzendutako proiektua, erabiltzaileen arretarako arloaren estrategia abiarazten laguntzekoa dena. Horren bidez, Erabiltzaileen Arretarako estrategia 2019-2023 Programa Proiektuarekin lerrokatu, eta oinarri estrategikoak eta metodologikoak ezarri nahi dira estrategia abiarazteko.

Bitartekaritzari dagokionez, bisita gidatu bereziak sortu dira, publikoen eta programen arabera. Zentrora egiteko moduko bi bisita berezi dira –partikularrena eta publiko profesionalarena–, eta proposatu da erakusketa eta instalazio artistikoetara bisita bereziak egitea eta udako hilabeteetan bisita bereziak izatea.

Aurten, zeinu-hizkuntzaren ezagutzari eta erabilerari buruzko prestakuntza eman zaio Erabiltzaileen Arretarako taldeari, inklusioa eta irisgarritasuna bultzatzeko, eta informazioa publiko-komunitate guztiengana hurbiltzeko. Prestakuntza horrekin batera, audio-formatuko agendak sortu dira, eta Zentroaren programazioa braillez eskaintzen hasi da 2021eko azarotik aurrera.

HOBETZEKO PLANAK

Irisgarritasun unibertsala

Kultura eskubide bat da, eta hori eskuratzeko aukera unibertsala bermatzea Azkuna Zentroaren erantzukizuna. 2020an irisgarritasun unibertsala kudeatzeko sistema berria ezarri zen, AENORen UNE 170001-2:2007 arauaren ziurtapenarekin. 2021ean, aurrera egin dugu hobetzeko prozesuarekin, espazio egokitueta sartzeko ateak automatizatuz, argiztapena indartuz eta laguntzeko osagaiak jarri gurpil-aulkian dauden pertsonak eskaileretatik ebakua-tzeko.

Gainera, zentroak programazioa eskuratzeko beste baliabide batzuk ere baditu, hala nola erakusketak entzuteko audiogidak, zinema-egitarauko xehetasun guzti-guztiak eskura izateko soinu-begiztak, literatura gaitasun betean

gozatzeko irakurketa errazeko programak edo ikusteko eta ukitzeko bisita komentatuak.

Programazioa bera aniztasunerako gunek bilakatu da. Horretan daude kokatuta INAEMekin batera aurtengo azaroan egin diren Gizarte Inklusioari eta Arte Eszenikoen Hezkuntzari buruzko XIII. Jardunaldiak. “Joan-etorriak eta iragateak” lelopean, hitzaldiak egin ziren zuzeneko ikuskizunekin, artisten foroekin, ekintza performatiboekin, proiektuen aurkezpenarekin eta tailerrekin. Begirada inklusiboa duten prozesu artistikoen inpaktuetan jarri zen arreta, bai eta proiektu horiek zabaltzen dituzten erresonantzietan ere, hala lantzen dituzten artistentzat, nola parte hartzen duten pertsona eta kolektiboentzat edo sustatzen dituzten instituzioentzat.



Jardunaldien luzapen gisa, beste jarduera batzuk egin ziren, hala nola bigarren eskuko azoka txikia, material bibliografiko eta ikus-entzunezkoekin, Irakurketa Erraza elkar-tearekin lankidetzan, Mediateka BBK-ko jarduera egonko-rrerako bat den Irakurketa Erraza saiorako titulu berriak editatzeko dirua biltzeko.

Jarduera Fisikoko Zentroaren programazioa ere aldatzen ari da, inklusio-irizpideen arabera, eta 60 urtetik gorako pertsonen zuzendutako "Osasun Premium" ekimena jarri da abian, besteak beste, ariketa osasungarria sustatzeko.

Berdintasuna

Gure kultura-programazioak gorputza, generoa eta identitatea sustatzen ditu, kategoria anitz eta aldakor gisa, egungo gizartean dagoen dibertsitatearen eta aniztasunaren berri emanez. Horrela islatzen da zenbait proiektutan, besteak beste, Ana Laura Aláez artistaren "Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío" (Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik) erakusketan eta Aimar Arriola komisarioak Azkuna Zentroko ikertzaile AZkide gisa aurten bertan egindako "Forma-desira bat" lanean.

Instituzio publiko gisa konpromisoa dugu sexu- eta genero-aniztasunarekin, eta hori guztiz bat dator Bilboko Babilioen Gutuneko lehentasunekin eta Nazio Batuen 2030eko Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta inor atzean ez uzteko duen leloarekin.

Aldi berean, 2021ean aurrera egin du Berdintasun Planaren garapenak, hiru erronka hauekin: berdintasuna gobernu onean, barne-kudeaketa genero-berdintasunean oinarrituta, eta Azkuna Zentroaren ekarpena gizartean genero-berdintasuna lortzeko bidean. Erronka bakoitzak bete beharreko helburuak garatzen ditu, eta guztira 49 ekintza gauzatu behar dira.

Etengabeko hobekuntza

2019-2023 Programa-proiektuaren esparruan, aurrera jarraitzen dugu Azkuna Zentroaren langile-zerrenda indartzeko eta organigrama osatzeko helburuarekin. Ildo horretan, 2021ean lau pertsona sartu dira administrazio-kudeaketaren programazioaren, erabiltzaileen arretaren eta marketinaren arloetan, hurrenez hurren.

Horretaz gain, prestakuntza eman zaio jendeari arreta ematez arduratzen den taldeari, bai zeinu-mintzaira ezagutaraziz, bai dibertsitate funtzionala duten pertsonen premien berri emanez, Zentroan esperientzia onak bermatzeko.

Era berean, Zentroaren irisgarritasunari buruzko komunikazioa indartu da, informazio orokorraren atalean dagoen "Gune irisgarria" orrialdearen bidez <https://www.azkuna-zentroa.eus/es/informacion-general/>; eta audio- eta braille-formatuko agendak sortu dira, hiruhileko programazioa jakinarazteko.

Jasangarritasuna

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok oraingo eta etorkizunerako zentroa izan nahi du, sentsibilizatua eta aktiboa, ingurumena hobetzera eta baliabideen kontsumo arduratsua lortzera bideratutako ekintza jasangarriak egiten dituen. Ingurunearekiko kezka eta zentroa Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) lerrokatzeko eta 2030 agendari laguntzeko interesak bultzatuta, zentroko jardueraren eragina hobetzera bideratutako ekintzak aztertzen jarraitzen du.

2021ean, Iraunkortasun Planaren esparruan, "Respira" (Hartu arnasa) aztertu da, klimatizazioaren kudeaketa adimenduneko sistema bat, SENER enpresak garatua. Adimen artifiziala erabiltzen du eraikinetako eta azpiegiturako eraginkortasun energetikoa, erosotasun termikoa eta airearen kalitatea hobetzeko. Probarako, kontsumoak eta zundak monitorizatzeko ekipoak jarri dira Mediatekan, erakusketa-aretoan eta Jarduera Fisikoko Zentroko gimnasioan, eta orain emaitzak aztertzeko fasean dago.

Bestalde, karbono-aztarna murrizteko asmoz, hainbat neurri ezarri dira eguneroko jardueran, hala nola ur-botilatxoan ordez iturriko ur-pitxerrak jartzea topaketetan eta hitzaldietan. Era berean, kudeaketa-sistema berri bat jarri da Zentroko inprimagailuetan, paperaren, tintaren eta energiaren kontsumoa murrizteko; eta birziklatzeko jarduera sustatu da eraikineko hainbat tokitan, paperontzi bereizien kopurua handituz.

Jasangarritasunaren arloan hartutako konpromisoaren barruan, Azkuna Zentroak aktiboki parte hartu du "Bilbao Ari-ma Berdea" ekimenean, zeina Bilbao Convention Bureauk sustatu baitu gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-orekarekin konprometitutako helmuga turistikoak bultzatzeko.

BIOTHEKA

ZERBITZUAK

DESPACHU BASTIDA BU

BASTIDA

ARTE BIZIAK / ARTES EN VIVO

RICARDO BASTIDA
ARQUITECTO
BILBAO (1875-1952)

RICARDO BASTIDA
ARQUITECTO
BILBAO (1875-1952)



MEDIATEKA BBK

63.178

mailegu

238.682

sarbide Mediateka BBKra

6,39%

gehikuntza bilduma bibliografikoan

7.800

komiki

63.500

ale, formatu desberdinetan
(inprimakiak, CDak, DVDak, ...)

2019a hausnarketa- eta inflexio-urtea izan zen, Mediateka BBKren eredu berri baterako trantsizioa hasteko abiapuntua, eta 2020a eraldaketaren azken prozesuaren urtea izan zen. 2021. urtea, berriz, ibilbideak definitu eta begirada desberdinak zehazteko aldia izan da. Prozesuak eta metodologiak aktibatu dira Mediateka BBK hezkuntza-, sorkuntza- eta ikaskuntza-espazio bihurtzeko, batez ere hitzarekin, pentsamendu kritikoarekin eta kultura digitalarekin lotutako adierazpen artistikoen garapena ardatz gisa hartuta.

Bilduma, espazioak, zerbitzuak eta lan-dinamikak izan dira, besteak beste, definizio-prozesu horren xede, leku proaktibo bihurtzeko trantsitu horren helburu, artistak eta kultura-ekoizpena sorkuntzarako beharrezkoa den zerbait bezala hartuko dituen leku izateko. Espazio plural bat, elkarbizitarako eta topaketarako, sorkuntza eta ezagutzarako, pentsatzeko, konektatzeko eta sortzeko, erabiltzaileak jardueraren eta zerbitzuen jomuga izanda.


Horrela, 2021ean, edukiak eguneratu dira, Zentroko publiko-komunitateei forma, espazio eta eredu berriak proposatzeko, ezagutza eta ikaskuntza bultzatzeko eta kultura praktika, prozesu eta esperientzia gisa bizitzea errazteko.

Programazioa

Elkarlanean.

BBK

- Web orriko gomendioen asteroko buletina: ostiraletan aktibatzen diren nobedade bibliografikoen aukeraketa bat du, hala fikziozko lanekin nola materiakoekin, haurrei eta helduei zuzendua.
- Gune bibliografikoen dinamizazioa: hilerok, Zentroaren programa eta beste gertaera garrantzitsu batzuk ardatz gisa hartuta, aukeratutako gaiarekin zerikusi gehien duten bildumako liburuak jartzen dira Mediatekako sarrean: arte biziak, arte bisualak, emakumea, Gutun Zuria Bilbaon parte hartu duten egileen lanak, poesia, ekologia, komikia, gizarteratzea, euskarazko lanak, emakumezko egileak...
- Mailegurako ezusteko sortak: erabiltzaile helduentzat eta familientzat sortutako mailegu-sortak dira. 21 egunez mailegatu daitezke, eta sortaren izenburuarekin lotura duten liburu bat, komiki bat, film bat eta CD bat edukitzen dute.
- Txikitekako aktibazioak: haur eta familientzako jarduerak iraunkortasuna, errespetua eta berdintasuna, belaualdien arteko harremanak, poesia, musika eta antzeko gaiak izan dituzte ardatz, eta 441 pertsonak hartu dute parte.
- Mediateka galerian egiten diren erakusketa-proiektuen inguruko bitartekaritzako jarduerak.
- Aste Santuko, Gabonetako eta udako oporraldietan familiei zuzendutako jarduerak. Sei jarduera eskaini dira, eta 217 pertsonak hartu dute parte.
- Komikiari buruzko ezinbesteko elkarriketak: Komiketara abiarazteko prozesuaren barruan, bitartekaritza-ziklo hau jarri da abian, komiki amerikarraren, europarraren, espainiarraren eta mangaren munduko ezinbesteko figuratuen inguruan, guztiak ere Mediateka BBKren bildumakoak. Mediatekako topaketen eta podcast-en formatuan, programa hau zuzenduta dago hala nobela grafikoaren zaleei nola diziplina hori ezagutzen hasi nahi dutenei.
- Club de Lectura Fácil/Irakurketa Errazeko kluba: topaketa hauek erakunde eta kolektibo desberdinekin hitzartuta daude, eta, haietan, irakurtzeko gaitasun desberdinak dituzten pertsonak liburu bera irakurtzen dute, formatu egokitu batean, dinamizatzaile batek gidatuta.
- "Mediateka konektatu, pentsatu eta sortu": Mediateka BBKra bisita gidatuak egiteko programa da, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeei zuzenduta dago, eta Mediatekaren erabiltzaile autonomoak prestatzea du helburu.



artxiboAZ

2019-2023 Programa-proiektuetako bat *artxiboAZ* sortzea da. Ezagutza artistiko garaikidea zabaltzeko eta babesteko tresna izateko sortu da Azko Artxiboa, eta Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok zentro kultural gisa egindako ibilbidean gauzatutako jarduera eta proposamen artistiko garaikideei buruzko informazioa eskuratzeko erraztasunak eskaintzea du helburu nagusia.

2021ean, lanean jarraitu da artxiboAZ edukiz hornitzeko zereginarekin. Gehienbat jardueren katalogazioan lan egin da, eta arreta jarri da Zentroan pisu gehien eta ibilbiderik luzeena duten ekitaldi eta jaialdietan, hala nola Gutun Zuria Bilbaok. Azkuna Zentroaren Letren Nazioarteko Jaialdian, Bideotik. Ikus-entzunezko bestelako narrazioei begira proiektuan eta Zentroko erakusketa-proiektuetan.

2021. urtearen amaieran, artxiboAZek 211 jarduera katalogatu, 88 artista-profil sortu eta 7.179 artxibo erantsi ditu.

AZ argitalpen-produkzioa

Azkuna Zentroaren kultura-programazioa jarduera editorialaren bidez hedatzen da, praktika artistiko garaikidea jaso eta osatzen baitu, ezagutzera eman eta zabaltzeko.

Funtsa osatzen duten katalogo-liburuek Zentroan antolatzen diren artisten eta erakusketen gaineko ezagutza eta begirada zabaltzen dute. Beste argitalpen batzuk ere badira, programazio-ildoekin lotutako topaketen eta sinposioen bidez sortutako dokumentuak eta materialak biltzen dituztenak.

Gaur egun, artista-liburuen bilduma berri bat lantzen ari da, Zentroan beren lanak egiten dituzten sortzaileetako batzuekin. Gainera, urteko argitalpen bat ere lantzen ari da, programazioarekin zerikusia duten kultura-eragileen testuak eta lankidetzak biltzeko.

Edizioak eskaintzen dituen sormen-aukerei erreparatuta, Azkuna Zentroko argitalpen-sailak material horiek prestatzen ditu, hainbat artista eta argitalpen-eragilerekin hitz eginez, artelan horiek euskarri fisikoan kontzeptualizatu eta presta ditzaten.

2021ean argitalpen-funtsa handitu da, honako liburuki hauekin:

Arkitektura goiztiarrak Valcárcel Medina

“Arquitecturas prematuras” lanak Isidoro Valcárcel Medinak hirigintzari eta arkitekturari buruz asmatutako proiektu guztiak biltzen ditu. Artista duela hamarkada batzuetatik ari da hiritik eta gure ingurune eraikitik elikatzen, inspirazio-eta ekintza-iturri nagusi gisa hartzen. Ez dira proiektu utopikoak; aitzitik, artistaren beraren arabera, topikoenak dira, tokiari eta, era berean, uneari lotuenak, ez baitituzte bizitzeko moduak diktatzen, bizitza egiteko bestelako moduak proposatzen baizik. Valcárcel Medinak ekintza pertsonalen multzo bat zabaltzen du, eredu izan daitezkeenak, “baina ezin dutenak inoiz balio eredugarririk izan”.



Roma Akademia

Roma Akademia erakusketaren katalogoa. Erakusketa Azkuna Zentroko hainbat gunetan erakutsi zen, 2021eko urriaren 28tik 2022ko otsailaren 6ra bitartean. 2018-2019 eta 2019-2020 aldietan, Erromako Espainiako Akademan izandako egonaldian, beren arte- eta ikerketa-proposamenak hausnartu, ondu eta gauzatu zituzten 45 artista eta ikertzaileen lana biltzen du.

Saiakera hemen hasten da

2020an, Gutun Zuria ezin izan zen egin, baina proiektuak irekita jarraitu zuen, denbora errealeko saiakera gisa, eta testu kolektibo bat sortu da, urte horretako edizioan parte hartu behar zuten egileen idazki argitaragabeetatik abiatuta. Saiakera kolektibo horri literatura-generoaren kortseaz harago joz heldu zaio, prozesu kultural gisa, kulturaren egoteko eta jarduteko modu gisa hartuta.

Hala, pandemiak liburu honen orrialdeetara eraman zuen jaialdia, eta hor jarraitu dute pentsatzen eta idazten: Katixa Agirre, Paul B. Preciado, Txomin Badiola, Ernesto Castro, Aixa De La Cruz, Iván De La Nuez, Aingeru Epaltza, Iñaki Esteban, Mari Luz Esteban, Anjel Lertxundi, Marta Peirano, Fernando Pérez, Marta Rebón, Ixiar Rozas, Beñat Sarasola, Damián Tabarovsky eta Alexei Yurchak. Argitalpenak Gutun Zuriaren 2020ko edizioa sendotu zuen eta 2021eko jaialdiaren abiapuntua izan zen.



DENDAZ. AZKUNA ZENTROAREN SALTOKIA

59

artista eta diseinatzaile

Salmentari buruzko 500

aipamen baino gehiago

+%20ko

hazkundera salmentetan

7.805

bisita dendaz-en webgunera

dendAZ. This is Basque Design, Azkuna Zentroko denda, euskal diseinuari irekitako leihoa da, erosketa-esperientzia gisa Espazio publiko honetan, diseinatzaileek ikusgai jar ditzakete beren prozesuak eta praktikak; haien lanak, produktuak eta zerbitzuak topa ditzakegu bertan.

Sortzaileak dira proiektu honen ardatza, eta Bilbo, Bizkaia, Euskadi, Nafarroa eta Akitania berriko berrogeita hemeretzi artistak eta lankidek hartzen dute parte. Diseinua sustatzeko eta ikustarazteko ekimen honetan, Azkuna Zentroak Bilboko Udalaren, BEAZ eta EIDERen, eta Euskadiko eta Nafarroako Diseinatzaileen Elkartearen laguntza du; talde bat eratu dute saltokian dauden proiektuak hautatzeko.

DendAZ. This is Basque Design espazioaren balio bereizgarria da bertakoa, iraunkortasuna, Do It Yourself ikuspegia eta eskusibotasuna agerian jartzea eta, batez ere, bertako sormenaren eta diseinuaren balioa nabarmentzea. dendAZ. This is Basque Design eraikitzean, Azkuna Zentroarentzat estrategikoak diren balioak hartu dira oinarritzat: sorkuntza, irisgarritasuna, dibertsitatea eta lankidetzeta.

Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaoren dendak jarraitzen du lotura izaten Lantegia. Ideia Laborategiarekin, hau da, esperimentaziorako eta kultura-ekoizpenerako espazioarekin: tokiko diseinua sortzeko laguntza, erosketa jasangarrirako pentsamendu kritikoari egindako ekarpena, tokiko diseinurako irisgarritasuna, erreferentzien aniztasuna. Ireki zenetik, hainbat esparrutatik lan egin da dendaren atalak betetzeko: argitalpenak, ilustrazioa, bitxigintza, papergintza, deko-

razioa, ehungintza eta upeltegiak. Hauek dira 2021. urteko izen berriak: Abana, Ekomodo, Bizkaiko Txakolina, Bodega Crusoe Treasure eta Tytti Thusberg.

2021ean, nabarmentzekoa da abian jarri dela NUEVE BOTELLASXMETRO proiektua, Pilar Morquillas diseinatzailearekin elkarlanean; eta German Design Award Special 2021 saria jaso duela iraunkortasunaren kategorian. Banakako mahai-zapiak dira, PET botilekin eginak eta Zentroa inguratzeko duen zoladuran inspiratuta. Michelangelo Fundazio ospetsuak gure denda hautatu du HOMO FABER gidan, Bilboko diseinu eta artisautzaren erreferentzia gisa.

2021ean, dendAZ lehen aldiz bihurtu da liburudendAZ, Gutun Zuria. Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiaren espa-

rruan, eta egile gonbidatuen argitalpenen salmenta kudeatu du.

2021eko guztizko fakturazioa % 20 igo da 2019arekin alderatuta. Fakturazio gehiena ehungintzatik eta ilustraziotik dator, eta azpimarratzekoa da diseinatzaile guztiek salmentak izan dituztela urte osoan. 2021. urtea Covid-19ak zigortutako urtea izan da oraindik, baina egia da pixkanaka suspertzen joan garela. Hiru une nabarmen dira bereziki: martxoa argitalpenen salmentarekin, uda turismoaren itzulerarekin, eta abendua Gabonetako salmentekin, orduan 2021eko fakturazioa 2020koaren bikoitza baino gehiago izan baitzen.



Jarduerak

2021ean diseinuaren bi merkatu egin dira Atarian (uztaila eta abendua), eta hainbat topaketa izan dira Euskal DiseinuAZ: This is Basque Design-en. Horrela, espazio zabalagoa eta erosoagoa sortu da, ezagutzera emateko produktu bakoitzaren atzean dagoen proiektu pertsonala eta profesionala, sormen-prozesuak, eta haietako bakoitzaren atzean dagoen bertako ekoizpena, artisautzakoa eta iraunkortasunarekin konprometitutakoa, besteak beste, honako gai hauek landuta: “Sormen-prozesuak”, “Ekonomia zirkularra” eta “Inspirazioa eta diseinua”.

2021ean, hainbat diseinatzailek esku hartu dute dendako erakusleihoan: Elena Ciordia, Pilar Morquillas, FABdeFAB eta Abad Design-ek.

JARDUERA FISIKOKO ZENTROA

344.774

sarrera 2021ean Jarduera Fisikoko Zentroan

163.212

sarrera gimnasioan

181.599

sarrera igerilekuan

3.195

abonatu hilean, batez beste

270

kurtso



Jarduera Fisikoko Zentroak 10.000 m² ditu gutxi gorabehera, hiru instalaziotan banatuta, eta erabilera intentsiboa izaten dute urtean 365 egunetan, asteburuetan eta jaiegunetan barne. 15 orduz irekita dago publiko guztientzat asteleheneetik ostiralera, eta 12 orduko zerbitzua du larunbat, igande eta jaiegunetan. Gimnasioko langileak, igerilekukoak eta erabiltzaileen koordinazioa eta arretakoak kontuan izanda, 51 langile daude guztira.

Jarduera Fisikoko Zentroaren instalazioetan honakoak dituzte: gimnasio 1, entrenamendu-errutineterako espazio diafanoa, erabilera askotarako egokitutako 7 jarduera-gela, jarduera garatzeko beharrezko guztiak dituen entrenamendu-gela funtzional bat, igeriketa librerako 2 igerileku eta udako hilabeteetan terrazara sarbidea duten jarduerak.

Gimnasioa eta kirol jarduerako aretoak

1.100 m² baino gehiago, erabiltzaileen kirol-errutinak garatzeko gaituta, 140 indar- eta kardio-makinarekin. Instalazio honek, gainera, hainbat kirol-material du, hala nola halterak, diskoak, barrak, Kettlebell, core bag, esterillak...

600 m² baino gehiago, 7 aretotan banatuta. Areto horietako hiru hala nola funkya (haurrentzako), yoga, tai jia eta pilates egiteko dira. Hiru areto horiek gimnasioko zalapartatik aldentuta daude, eta material goxoak daude, xede dituzten zereginak egoki garatzeko. Gainerako aretoak, lehenengoak baino zabalagoak, inpaktu-jardueretarako prestatuta daude, hala nola GAP, power tono, aerobic, fitpilates... eta horietako bat oso-osorik ziklo indoor-ari eskainia dago, 52 bizikleta daude areto horretan eta saioak girotzeko pantaila digital handi bat ere bai. Bigarrenean jarduera aerobikoak egiten dira, hala nola aerobica, stretching-a, fitpilatesa, dantzazuma... hirugarrena tonifikazio-jardueretarako dago, hala nola quennaxa, TRXa, ezegonkorrak, Power tonua... eta lau garren areto bat, Osasun Premiumeko jarduerak eta entrenamendu pertsonalak egiteko.

Espazio horiei entrenamendu funtzionalerako prestatutako eremua gehitu behar zaie. 240 m², jarduera hau garatzeko behar den guztiaz hornituak, halterofiliako bi plataforma, gomak, zintak eta barra lantzeko egitura bat; baloi medizinalak, kettlebell baloiak, halterak, kaxa pliometrikoak lantzeko erabilera anitzeko gune bat; kardio-jardueretarako beste espazio bat eta, azkenik, belar artifiziala duen zuzen bat, lera, abiadura, desplazamendu eta abarrekin lan egiteko.



Igerilekua

JFZ eraikinaren eta Lantegiaren artean zintzilik daude igerilekuak. Instalazioek bi ontzi dituzte eta horietako batek bi sakonera ditu. Lehenengo ontzia 1,2 metro da sakonean; 25 X 21,15 m da eta 9 kalerentzako tokia du. Uraren tenperatura 27,5° C da eta igeriketan ikasteko jarduera guztiak, poolbike, kardioaletak, urgazte... egiten dira.

Beste ontziak bi sakonera ditu, bata 0,95 metrokoa eta bestea 0,75 metrokoa. Beste ontzia baino apur bat txikiagoa da, uraren tenperatura 30,5° C da eta sakoneraren ondorioz, haur txikientzako ikastaroak egiteko oso egokia da, baita aquafitness, igeriketa terapeutikoa eta beste zenbait jarduera egiteko ere, erabilera librea gain. Gune honetan dago Ataritik ikusi daitekeen beirazko zatia.

Terrazak 2.000 m² baino gehiago ditu, erabilera anitzekoa da; solariuma egoteaz gain, gimnasioko eta instalazioetako jarduera puntualak ere egiten dira zenbaitetan.

2021eko jarduera

Gimnasioaren eta igerilekuaren erabilerak gora egin du, 2020. urtearekin alderatuta, 344.774 sarbiderekin. Dena dela, ahalik eta segurtasunik handiena bermatzeko 2021eko urrira arte indarrean izan diren zenbait neurrik eragina izan dute kopuru horretan: edukieraren murrizketa, covid pasaporte eta plaza erreserbatu beharra. Kirol-jardueraren okupazioa % 13,5 handitu da urtearen hasieratik, urteko azken hiruhilekoko jarduerari dagokionez, neguko denboraldi berriaren hasierarekin eta osasun-larrialdiaren amaierarekin bat etorrira.

2021ean instalazioak erabili dituzten abonatuaren hileko batez bestekoa 3.195 pertsonakoa izan da.

270 ikastaro eskaini dira denboraldi bakoitzean, eta 10 tailer espezifiko egin dira, gutxi gorabehera hilabeteko iraupenekoak.

Jarduera Fisikoaren Zentroak bi programa berri jarri ditu abian 2021ean: "Osasun Premium" eta "Uretako ikaskuntza-mailetarako grabazioak".

"Osasun Premium" programan 60 urtetik gorakoak diren edo zailtasun funtzionalak dituzten 50 pertsonak eman dute izena; kopuru murriztua, zerbitzuaren kontrola bermatzeko eta optimizatzeko.

Premium Salud

"Osasun Premium" programak inskribatutako pertsonen egoera fisikoaren jarraipena egiten du, hasierako eta denboraldian zehar egindako ondorengo proben bidez, mantentze-lana eta aurrerapenak baloratzeko. Hilero, tentsioaren, gluzemiaren eta gorputzaren osaeraren jarraipena egiten da. Gimnasioko, igerilekuko eta areto funtzionaleko jarduez gozatzeaz gain, bi profesionalak laguntza eman diete pertsona horiei uneoro, zalantzak argituz, jarrerak zuzenduz eta pertsona bakoitzari egokitutako jarduerak proposatuz.



2021eko bigarren proposamen berria da "Uretako ikaskuntza-mailetarako grabazioa" programa, eta igeriketa ikasteko helduen taldeei dago bideratuta. Helburu nagusia da teknika-akatsak zuzentzea hainbat estilo eta mailatan; eta, kasu bakoitzean, igeri egiteko teknika aztertzea, modu eraginkorrago bat proposatzeko. Horretarako, denboraldi bakoitzean 4 aldiz filmatzen eta argazkiak ateratzen zaizkie inskribatutako pertsonari, beren baimenarekin.

Jarduera Fisikoaren Zentroaren programazioak aurrera egin du 2021ean, eta, denboraldiko ikastaro eta tailerrez gain, aisialdiko aukera osasungarria eskaini die herritar guztiei, ikasleentzako, premia bereziak dituzten pertsonentzako eta tutoretzapeko etxebizitzetan dauden pertsonentzako programen bidez.

ESPAZIOEN ALOKAIRUA

100

ekitaldi

12.830



erabiltzaile

207

espazio erabiltzaile

265.000ko

sarrerak, 2020an baino % 20 gehiago



Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao Bilboko erdigunean dagoen Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroa da. Kultura-, enpresa- eta gizarte-ekitaldietarako gune berezi bat da, diseinuaren eta kultura garaikidearen balio erantsia ematen duena, eta zentrorra eta erakusketetara, kultura-programaziora, mediatekara, gimnasiora, igerilekura, ostalaritza-espaziora edo zinemetara egindako bisita gidatuekin osatzen duena. Azkuna Zentroko espazioek irtenbide zehatzak dituzte edozein ekitaldi-mota egiteko, eta aholkularitza pertsonala eta beharrezko laguntza ematen duen talde bat ere bai, zure ideiarekin zure beharretara eta aurrekontura egokitutako ekitaldi bat egin ahal izateko.

Atrioa

Kulturen ataria, eguzkiaren pantaila handiaren azpian dagoen Ataria da Zentroak duen espaziorik zabalena. Erabilera anitzeko espazio honetatik, azkuna zentroko hiru eraikinei eusten dieten 43 zutabeak ikus daitezke.

Aulki argitsuak eta Argizuloa espazioak, Kulturen Atarian daude, eta 300 eta 500 lagunentzako edukiera dute, hurrenez hurren; beraz, espazio ezin hobeak dira lunchak, koktelak, gala-afariak, aurkezpenak, kontzertuak eta abar egiteko.

Topaketa gunea, 800 lagunentzako edukiera du, igerilekuaren azpian, toki ezin hobean kokatua, Kulturen Atarian, gune apropos-aproposa da lunchak, koktelak, gala-afariak, aurkezpenak, kontzertuak eta abar egiteko

Atarian dauden Fernández del Campo, Iparraguirre eta Urquijo aretoek argi naturala dute, Fernández del Campo kalera begira dauden leihoei esker. Balio anitzeko guneak dira, eta, haietan, bilerak, jardunaldiak, tailerrak, hitzaldiak eta abar egin daitezke.


Lantegia

Lantegia 1 espazio bakana, hiriaren erdian kokatua, sabaia altuera bikoitza du bereizgarri, eta aukera ugariak ematen ditu. Espazio gardena eta erabilera anitzekoa, egoiki-egokia inaugurazioak, gala-afariak, harrerak, hitzaldiak, kontzertuak etab. egiteko. Lantegia eraikineko lehen solairuan dago, eta sarrerako harrera-lekua eta komunak ditu gunearen barruan. Aretoak altuera bikoitza du, espazioa zatitzeko aukera ematen du eta sabaiko panelak ditu akustika optimizatzeke.

Auditorioa eta Bastida Aretoa

Koadro gisa markoan sarturiko agertokia da **Azkuna Zentroko Auditorioaren** bereizgarria, izaera pertsonala ematen diona. Besaulki-patioak ikuspen bikaina du, eroso-erosoa da, eta aukera ematen du kultura- eta enpresa-ekitaldi ugari egiteko, hala nola biltzarrak, kontzertuak, sari-banaketak, aurkezpenak edo hitzaldiak. Akustika ezin hobea da, eta ikus-entzunezko ekipamendu osoa, aldagelak eta itzulpen-gelak ditu. Hain zuzen, honako hauek ditu: 3 itzulpen-kabina, 2 VIP kamerino, 2 koru-kamerino.

Bastida Aretoan diseinua eta falka moduko forma nabarmentzen dira, goranzko norabideko alboko plakez apaindua. Areto honek omenaldia egiten dio hasierako alondegia egin zuen Ricardo Bastida arkitektoari. Aukera-aukerakoa da jardunaldiak, prentsaurrekoak, aurkezpenak eta abar egiteko. Aretoak hall handi bat du, akreditazio-mahaia jartzeko egokia, bertarutzen direnei harrera egin eta coffe break-ak, lunchak eta abar egiteko.



RTVE 50. urteurrena

2021ean 100 ekitaldi antolatu dira, erakunde publiko eta pribatuek, enpresek, erakundeek eta hirugarren sektorekoek antolatuta. Alokairu-espazioetan antolatutako ekitaldiak, nagusiki, tokikoak izan dira, eta soilik 5 nazioakoak eta 8 nazioartekoak.

Guztira 145 egun izan dira, 12.830 pertsonak hartu dute parte eta Azkuna Zentroarentzat 265.000 euroko fakturazioa izan da. 100 ekitaldi horietatik, 53 kultura-erakundeek antolatu zituzten; 27 ekitaldi, aldiz, ekonomia- eta merkataritza-erakundeek antolatu zituzten.

Ekitaldirik aipagarrienak Bilboko kultur eskaintza osatzen dutenak eta, aldi berean, Azkuna Zentroa kultura, herri, nazio eta nazioarteko sektoreko beste eragile batzuekin konektatzen dutenak dira. Horien artean Netflix filmake-

ta-jardunaldiak, Zinebi, Fant, Zinegoak, Caravana de Cine realizado por Mujeres, Cine Invisible, Zinemakumeak Gara, Música Musika, Bilbao BasqueFest, BOS, Bilboko Udala banda, MITUSU, Loraldia, Dantzaldia, Gau Zuria, Bilbao European Encounters, La nuit des idées.. izan dira.

Bestalde, ekitaldiei esker, enpresa- eta sektore-sarearekin konektatu ahal izan da, hainbat enpresarekin, besteak beste: Startup Campus, Fundación Tecnalia Research & Innovation, Asoc.de apoyo al Desarrollo Empresarial Dema, Euskaltel, Cámara de Comercio de Bilbao, Bizkaia Foru Aldundia, Gorabide, Viajes Pacífico, SPRI, Fineco, Eusko Jaurlaritza izan dira

Pandemiak ekitaldien formatua aldarazi du, ekitaldi hibridoak (online eta aurrez aurre) sustatu dira.

GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK

192.031

ikusle

160

film programatu

8.130

lagun Golem jardueretan



Golem Alhóndiga zinemek 8 proiektzio-areto dituzte, eta edukiera osoa 1.246 pertsonarentzat da. Golem Zinemen programak batera uztartzen ditu zinema komertziala, interes sozialeko ziklo monografikoak eta Azkuna Zentroko ikus-entzuleen komunitate desberdinen beharrei eta interesei egokitutako saioak.

Estrategia horretan, hauek nabarmentzen dira, besteak beste: igande eta jaiegunetako zinemako goizeko saioak, haurtxoak dituzten gurasoentzako saio bereziak eta haurrentzako emanaldi bereziak.

2021an 190 film proiektatu dira, 10 nazionalitate ezberdinetakoak, 7.040 saiotan. Programazio horri jaialdi, programazio berezi eta eduki alternatiboek eskainitako 387 saioak gehitu behar zaizkio. Pandemiak eta murrizketek eragina izan dute berriz aurtengo emaitzetan.

Programazioa

Golem Alhóndiga zinematik funtsezko guneak dira Azkuna Zentroak programatutako jarduerak egiteko, hala nola Zinemateka edo BideOtik. Ikus-entzunezko bestelako narraitibei begira zikloak, Tractora Koop kolektibo egoiliarren proiektzioak eta Laida Lertxundik Prototipoak programarako egindako proposamen artistikoa. Honako jaialdi hauen egoitza ere bada: FANT, Bilboko Zinemaldi Fantastikoa; Zinebi, Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia; 'Film Sozialak' Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia; Zinemakumeak Gara!; Zinegoak, Bilboko Nazioarteko Gaylesbotrans Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia, Mendifilm, Sail in Tour eta elkarbizitzarako zinemaren erakustaldia; Emakumeen karabana.

Zine komertzialaz, Azkuna Zentroko Zinematekaz eta hiriko jaialdiez gain, Golem Alhóndigak programazio bereziak jarri ditu martxan aurtan, aretoetako publikoa berreskuratzeko.

Operen goizeko emankizunak: igande goizetan izango da hitzordua, 2 hilabetez.

ITE Cinemas: Proposamen zinematografiko eta bidaiari honek aukera ematen du zinemako besaulkietatik lekuak deskubritzen jarraitzeko. Inter rail Through Europa Cinemas-en siglak dira ITEC. Diseinatu duen esperientzian, ikusleez gain, zinema-aretoak, haien istorioak eta inguruan dutena ere dira protagonista. Golemek bultzatu du, eta Europa Cinemas-en proiektu irabazleentako bat da, "Collaborate to Innovate" esparruaren barrukoa. Europa-Espainia batasun horrek formula berriak aurkitu nahi ditu gazteak zinema-aretoetara itzul daitezen, gertakari zinematografikoaren inguruan bestelako esperientziak sortuz, ikusle gisa aberasteko eta beste balio batzuk emateko.

Zuzendarien ziklo monografikoak: Zuzendari handien filmografia berrikustea

Filmak modu birtualean aurkeztea: Aretoan proiektatutako bideokonferentzietan esker, sortzaileek filmak aurkeztu ahal izan dituzte.

Golem Arte: Zinema dokumentalaren zikloa, museo handietako barrualdeak eta historiako artista onenen lanak hurbiltzen dizkiguten film zoragarriekin.

Golem Uda: Udako hilabeteetako film zikloa, Zinematekaren lekukoa hartzen duena; denboraldian zehar estreinatu diren proposamenik erradikalenak sartzen dira eta beste aukera bat ematea merezi dutenak.

Haurrentzako Zinema (euskaraz): Ikasleentzako zinema Itundutako goizeko saioak ikasleentzat. Euskarazko proiektzioak.

Ikasleentzako saio bereziak: Itundutako goizeko saioak ikasleentzat. Gaztelania eta Jatorrizko bertsioko proiektzioak.

Igande eta jaiegunetako goizeko saioak: Familia-zinemari eskainitakoak.

OSTALARITZA



Yandiola jatetxea

Grupo Fielato da Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko jatetxe-zerbitzua kudeatzen duen enpresa. Jatetxeak 4 gune eta catering zerbitzua ditu, Zentroarekin duen sinergiaren indargunea.

Yandiola jatetxea

Bigarren solairuan dagoen jatetxeak tradizioa eta abangoardia uztartzen dituzte jakiak eskaintzen ditu, zapore klasikoak, berrikuntza-ukitu batekin, bai bilbotarrarentzat, bai sukaldaritza modernoa baina sustraiduna dastatu nahi duen bisitariarentzat.

Terraza

Zentroaren goialdean dago, eta hiriko lekurik pribilegiatuenetako bat da, egoera ezin hobean kokatua. Ekitaldi eta jai partikularretarako gune berezia, urte osoan zabalik.

Holabar

Atarian dagoen Yandiola Taldearen bistro-a gune modernoa eta sofistikatua da, solairu bakar batean hainbat giro bereizten dituena. Eskaintza ezin hobea da eguneko edozein ordutan jateko, gosaltzeko, aperitiborako edo osasuntsu, azkar eta prezio onean jateko.



Hola Bar

The Boar

Pub ingelesaren eta taberna peto-petoaren arteko erdibidean, The Boar-ek proposamen ausarta eskaintzen du, giro informolarekin, kontsumo-modu berrietara egokitua.



The Boar



Elisse Ansareo. BIO-INT-DIA

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

OHOREZKO PRESIDENTEA

Juan Mari Aburto Rique jn.
Bilboko alkatea

PRESIDENTEA

Gonzalo Olabarria Villota jn.

PRESIDENTEORDEA

Nekane Alonso Santamaría and.

KONTSEILARIAK

Koldo Narbaiza Olaskoaga jn.
(EAJ-PNVren ordezkarria)

Alba Fatuarte González and.
(EH-BILDUren ordezkarria)

Alfonso Gil Invernón
(Socialistas Vascos PSE-EEren ordezkarria)

Carlos García Fernández jn.
(PPren ordezkarria)

Carmen Muñoz López and.
(Elkarrekin Bilbao-Podemos / Ezker Anitza-IU / Equo
Berdeak-en ordezkarria)

TOKIKO GOBERNU BATZARREKO ESKUORDETUTAKO ORDEZKARIAK:

Asier López Gutiérrez jn. (EAJ-PNV)

Francisca Iturriaga Osa jn. (EAJ-PNV)

José Luis López Bilbao jn. (EAJ-PNV)

Iratxe Portillo Zunzunegui and. (EAJ-PNV)

Ekain Rico Lezama jn. (PSE-EE)

Borja Vázquez Fontao jn. (PSE-EE)

AZKUNA ZENTROKO TALDEA

Fernando Pérez. Zuzendaria

Estibalitz Aldana. Zuzendariaren Laguntzailea

Rakel Esparza. Kultur Programazioko Arduraduna

Ainara Bilbao. Kultura Programazio eta Hezkuntzako
Teknikaria

Marina Urrutikoetxea. Kultura Programazio eta
Hezkuntzako Teknikaria

Iraia Olea Herrero. Kultura Programazioko Admnistraria

Alasne Martín. Mediateka BBK-ko Arduraduna

Sonia Marcos. Mediateka BBK-ko Prozesu
Bibliografikoetarako Teknikaria

Itziar Ijalba. Komunikazioko Arduraduna

Maite Arberas. Komunikazioko Administraria

Bárbara Epalza. Marketing Arduraduna

Leire Sarasola Murga. Marketineko eta Ekitaldietako
Teknikaria

Marina Aparicio. Erabiltzaileen Arretarako Arduraduna

Jorge Landa. Zerbitzu Orokorren Arduraduna

Koldo Elorrieta. Aktibitate Fisikoko Arduraduna

Iñaki Ayala. Mantenimendu eta Logistika Arduraduna

Sandra García. Mantenimendu eta Logistika Teknikaria

Unai Ugarriza. Telekomunikazioak eta Sistemak
Teknikaria

Sonia del Val. Finantza Goi-mailako Teknikaria

Eskerrik asko!

Eskerrak eman nahi dizkiegu, lurraldearekin duten konpromiso sozialetik, laguntzen diguten erakunde pribatu eta publikoei, gizartea kultura garaikidearekin lotzeko dugun eginkizunean.

Sare irekia gara artearen bidez gizarte sortzaileagoa, kritikoagoa eta anitzagoa sortzen laguntzen duen proiektu batean parte hartu nahi duten erakunde guztientzat.

Bilboko Udala

BABESLE ESTRATEGIKOA

Fundación BBK

ERAKUNDE BABESLEAK

Fundación Banc Sabadell • BEAZ • Grupo Urbegi

HEDABIDE LAGUNTZAILEAK

El Correo • Deia • Berria • Gara • El País • eldiario.es • El mundo • El Nervión • Periódico Bilbao • RTVE • EITB • Hamaika Telebista • Telebilbao • Cadena Ser • Onda Vasca • BIFM • Cactus • Noiz Agenda • Kmon • Aux Magazine • Teatron

LAGUNAK DIREN INSTITUZIOAK

Gobierno Vasco • Diputación • Ministerio de Cultura • AC/E (Acción Cultural Española • British Council • Cuerpo Consular de Bilbao • Centro Checo • Embajadas de Noruega, Australia, Canadá, Estados Unidos, Francia, Irlanda, Países Bajos, Rusia, Suecia • Goethe Foundation • Institut d'Estudis Balàrics • Etxepare Euskal Institutua • Foro Cultural Austria • Goethe Institut • Institut Français • Instituto Italiano de Cultura • Japan Foundation • NORLA • Pro Helvetia • AECID • INAEM • Academia de España en Roma

UNIBERTSITATEAK

Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco • Mondragon Unibertsitatea / Universidad de Mondragón • Universidad de Deusto • Oulu University • BCU Birmingham University • Digipen • Instituto de Estudios de Ocio • Harrobia • Universidad de la Plata • Boultek, Centre de musiques actuelles

LAGUNAK DIREN PROGRAMAK

Berbagune • Bilbao Udazkena • Bilbao Bizkaia Design Week • Bilbao European Encounters • Bilbao Música • Bilbao Orkestra Sinfonikoa • BIME • Zinemagileen artean - Caravana de cine realizado por mujeres • Dantzaldia • Dantzan Bilaka • Elías Querejeta Zine Eskola • Ereduak • Festival de San Sebastián • Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas gaylesbotrans de Bilbao - Zinegoak • Festival de Cine Fantástico de Bilbao - FANT • Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao - Zinebi • Film Sozialak - Festival Internacional Cine Invisible Bilbao • Gau Zuria • Loraldia • Bilbao Proyecto Zine Eskola • Zinemakumeak Gara! • Zinexit. Muestra de cine y derechos humanos

LAGUNAK DIREN CULTURA-ZENTROAK

Ars Electronica • Art Divas • ArtistaXArtista • Artium. Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo de Vitoria-Gasteiz • CAPC Musée d'Art Contemporain de Bordeaux • Casa América • Centre de Cultura Contemporània de Barcelona - CCCB • Centro Cultural Montehermoso • Centro de Arte Dos de Mayo - CA2M • Centro Gallego de Arte Contemporáneo - CGAC • Citée de la Bande Dessinée • Collección BEEP Epon • Culturgest - Fundação Caixa Geral de Depósitos • Dansateliers • Dortmund-U • Etopia. Centro de arte y tecnología • Euskal Museo Museo Vasco • Filmoteca Vasca • Fondation Cartier • FRAC Lorraine • La Casa Encendida • Liechtenstein National Museum • Maison de la Littérature Québec • MARCO - Museo de Arte Contemporáneo de Vigo • Matadero Madrid • Mercat de las Flors • MUSAC • Musée de Picardi • Museo de Bellas Artes de Bilbao • Museo de Reproducciones de Bilbao • Museo Guggenheim Bilbao • Albuquerque Museum • Museo Oteiza • Museu d'Art Contemporani de Barcelona - MACBA • Red Española de Teatros • San Telmo Museoa • SFMoma • smARTplaces • Tabacalera - Promoción del Arte • Tabakalera • Teatro Arriaga • Van Abbemuseum • ZKM Zentrum Für Kunst und Medien